

Jan Neruda

Mala Stranako ipuinak

euskaratzailea: Fernando Rey

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Itzulpena: Fernando Rey.

Euskarazko edizioa: Literatura unibertsala, 2001
Jatorrizkoaren data: 1877

Jan Neruda euskaraz:

<http://ekarriak.armiarma.com/?i=337>

Informazio gehiago:

<http://armiarma.com/emailuok/?p=1557>

AITZIN-SOLASA

Jan Neruda ez da oso idazle ezaguna. Gure bazterrotan deus gutxi dakigu Europako Ekialdeko literaturaz, eta kulturaren arloan, behinik behin, oraindik ere ez da erabat erori Berlingo harresia. Horregatik bat baino gehiago harrituko da jakitean Pablo Neruda poeta Nobel Saridunak —Neftalí Reyes zuen bataiarriko izena— *Mala Stranako ipuinak* irakurritakoan hautatu zuela bere goitizena Nerudaren estiloak liluratuta.

Jan Neruda Pragan sortu zen 1834an. Txekiar literaturako maisuetakotzat hartzen du askok gaur egun, eta *Mala Stranako ipuinak* dira, dudazpirik gabe, bere obrarik ezagunen eta estimatuena.

Txekiarrek talentu handiko idazle mordoxka batez aberastu dute XX. mendea, baina ez dira hain ezagunak XIX. mendekoak. Hogeita Hamar Urteko Gerraren ondoren haustura handia gertatu zen txekiar estatuan eta kulturaren. Germanizazio prozesua hasi zen, pixkana-pixkana gero eta indar handiagoa hartu zuena. Horrela, bada, txe-

kiar kulturak zein hizkuntzak atzera egin zuten, hirietan batik bat, eta txekiera herri xehearen hizkuntza, nekazari jendearen hizkuntza bilakatu zen. Baina, paradoxa bada ere, filosofia alemaniarraren eraginez piztu zen, gero, kontzientzia nazional eta linguistikoa, abertzaletasuna eta bertako hizkuntzaren aldeko apustua.

Erreformatzaile nazionalen lehenbiziko belaunaldia, gehien bat, unibertsitateko jendez osatua zegoen. Hizkuntza bizkortu, gramatikak eta hiztegiak egin eta munduko literaturako klasiko batzuk itzuli nahi zituzten. Bigarren belaunaldia, 1800dik aurrera, hizkuntza beren lanetarako erabili gogo zuten idazle batzuek osatu zuten. Nork irakurri nahi zuen txekieraz garai hartan? Edo hobeki esanda, nor zen txekieraz irakurtzeko gauza? Irakasle, apez eta noble txekiar batzuk kenduta, irakurleek komediak, egutegietako testuak eta moral-ipuinak besterik ez zuten nahi.

Baina bi belaunaldi horiek lortu zutena ez zen makala izan. Hil hurren zen hizkuntza suspertu zuten, liburu batzuk txekierara itzuli zituzten eta beren hizkuntza sormen-lan egiazkora hurbildu.

Eta are garrantzitsuagoa, txekiar kontzientzia bizitu zuten herrian. Gehiago ziren txekieraz mintzatu, irakurri, ikasi eta bizi nahi zutenak. Txekierazaletasuna pizteko tresna nagusia prentsa idatzia izan zen.

Jan Neruda, 1834an jaioa, hurrengo belaunaldikoa da. Bere garaiko idazle txekiar gehienak bezala jatorri apalekoa zen, baina, haiek ez bezala, Pragan jaioa, Hiriaren bihotzean gainera, Mala Strana auzo bikainean hain zuzen ere. Egun Neruda kalea deritzanean sortu zen hain juxtu. Familia pobrea bazuen ere, hezkuntza egokia izan zuen... Pragako eskola alemanetan. Ironia iruditugatik, Nerudaren belaunaldiko idazleek, txekiar literatura ez ezik gizarte txekiarra ere uztarri germanikotik askatzeko xedea bere egin zutenek, Gazte Germaniarren mugimendutik hartu zuten eredia: Heine, Börne, Gutzkow ziren haien gogokoenak.

Neruda 13 urte zituela hasi zen txekierazko eskolak hartzen, «*Elizan bezain txintxo egoten ginen han, liluraturik, zoraturik*» esaten digu Nerudak berak, eta bere garaiko txekierazko hezkuntza-erakunderik bikainenean ibili zen,

Akademické eskolan. Han hasi zen Neruda bere lehen poema eta artikuluak idazten. Aitak beharturik zuzenbidea ikasi zuen, baina hura utzi eta filosofiari ekin zion. Halere ez zituen, diru faltagatik, filosofiako ikasketak bukatu. Lehenik, hortaz, funtzionario lana bilatu zuen. Geroago irakasle ibili zen eta, azkenean, kazetari lanbidea hartu zuen.

Txekiar letretan poema liburu batekin egin zuenez sarrera, poetatzat hartu zuten berehala. Baina tradizio erromantikoak ere izan zuen horretan zeresanik: erromantikoek literatur forma guztien gainetik poesia zeukaten. Prosa-idazlerik bikainenak ere Parnasora igotzez gero, poeta gisa baizik ez zitezkeen ailega gailurrera.

Ez da erraza argitzen Neruda ezkongai gelditu izana, eta hori, bizitzako azken urteetan, bereziki pisua egin zitzaion. Emakume zenbait izan ziren bere bizitzan, eta nahiz eta bi amodio tragiko izan zituen, bere bizitzako lehen amodioa, eta seguruaski handiena, Karolina Svetla nobelagile txekiarra izan zen, baina konbentzioa hautsi nahi ez eta ez zuen senarra utzi nahi izan; bere

bigarren amodioa Nerudak ezkontza-proposamena egin baino lehenago hil zen.

Ez da dudarik, halere, herri txekiarrarengana-ko maitasunak bete ziola hutsune hori. Nerudak oso barneratuak zituen zenbait balore: lan zintzoa, nazio kontzeptua, demokrazia liberalaren oinarrizko printzipioak (bizitza osoan borrokatu zen horien alde), gizarte zuzen baten ideala (horregatik aipatu zituen bere idatzietan gizarteak baztertutako gizon-emakumeen problemak). Baina, denetan, Nerudarentzat eta bere garaikideentzat, nazio kontzeptuak lehentasuna hartu zuen. Bere lanaren bidez aritu zen haren alde, eta kazetari eta poeta gisa egin zuenak ere ukitu hori du. Ez, ordea, bere fikzio lanaren gailurra osatzen duten Mala Stranako ipuin hauek.

Narrazio hauek erabat fikziozkoak badira ere, eguneroko esperientziak eta kezkek agertarazten dituzten kazetari-lanak dira. Behatzaile baten jokabidea hartu zuen: elkarrekin zerikusi gutxi duten elementuak hartu zituen langaitzat, eta bere lanari esker bihurtu zituen interesgarri. Horren emaitza «collage» miresgarri bat da. Bere lanik interesgarrienak, hala ere, bere herri-

ko jendea eta bere garaiko ohiturak deskribatzean egin zituen. Begirada zorrotza eta formulazio zehatza ziren Nerudaren temak. Honela idatzi zion bere lehen andregaiari:

«Aita hilzorian dut. Ni aldameneko ohean nengoan etzanda, lasai lo, seme bati legokiokeen baino lasaiago, agian. Halako batean, esnatu eta azken ordua bazetorkiola ohartu nintzen. Gainera makurtu nintzaion; nekez hartzen zuen arnasa. Bihotza lehertuko zitzaidala pentsatu nuen; itoko nintzela uste nuen, hain lehor eta estu nuen eztarria. Hala ere, gizona nola hiltzen den aztertzen jarraitu nuen. Maitea, sekula ez zinateke zoriontsu izanen ni bezalako deabru batekin».

Nerudak aitorten zinikotzat aurkezten duenak idazlearen obsesioa erakusten du: jakin eta komunikatzeko irrika edo, hobeki esanda, ahalik eta zehaztasun handienaz komunikatu ahal izateko, dena ikastea.

Neruda, dudarik gabe, txekiar gizarteko hemeretzigarren mendeko pertsonaia handienetako bat izan zen, «zutabegile politiko» txekiarretan puntakoena eta poeta gisa miretsia. Idaz-

leak beren gailurrean izaten diren adinera iritsi zen, nahiz eta amaren heriotzak eta ondorengo bakardadeak kolpe handia eman zioten. Orduan- txer sentitu zuen haurtzaroko egun zoriontsuetara itzultzeko irrika: dena aurrean zeukan garai hartara, pasadizo xumeena gertaera handi bihurtu zitekeen garai hartara. Horrek eman zion aukera Mala Stranako jende eta kontuak berriro gogora ekartzeko eta horri buruzko liburu bat idazteko, liburu bateratu tankera duen bakarra.

Hau da, dudarik gabe, Nerudak idazle gisa izandako esperientziaren goi maila: jendeen eta eguneroko bizitzaren xehetasunak begi zorrotzez ikusten dituenaren esperientzia, irribarre nola egin dakien poeta eta kazetari batena, baina, horrez gain, sufritu duenarena eta inguruan sufritu duen jendearena. Dudarik gabe, narrazio hauek txekiar literaturan Nerudaren aurretik idatzitako guztiaren gainetik daude.

Kazetaritzak erakutsi zion Nerudari estilo aberastasuna, eta pentsarazi zion bere irakurleengana iristeko bide hobe zela ixtorioak kon-
tatzea predikuak botatzea baino. Lehen pertso-
na erabiltzen badu, ez da bere ixtorioei beneta-

kotasun handiagoa emateko. Kontalaria, dena dela, ikusten duena jasotzen duen behatzaile bat besterik ez da gehientsuenetan. Gainera, biltzen dituen gertaerak anekdota hutsak izaten dira, eta normalean erro sakonak dituzten problemen kontaera laburrak. Horrela kontatzen du urtetan eta urtetan elkarren ondoan eta elkarri hitzik esan gabe egunero mahai beraren alde banatan esertzen diren bi gizonen ixtorioa, emakume gazte bati bi barrabasek nola egiten dioten irri, eskale bat nola pasatu zen pobreziatik mixeria gorrira... Ixtorioen axaleko anekdotikotasunaren eta atzealdean gelditzen diren bizitzen tragikotasunaren arteko tentsioa da Nerudak kontalari gisa duen artearen ezaugarri nagusietako bat.

Errealismoa da eskola nagusia txekiar literaturan garai horretan, eta, bere estilazioa gorabehera, Neruda errealista da. Mala Stranako ipuinetan paisaje urbanoa da berria, eta, horrez gain, mezu edo ikasbiderik emateari idazleak egiten dion ukoa. Kritikariak hain harriturik gelditu ziren, non isiltasunaz baizik ez baitzuten erantzun; irakurleak, berriz, berehala harrapatu zituen obra honek. Gaur egun txekiar literatura-

ko obrarik ospetsuenetako —eta irakurrienetako— bat da dudarik gabe.

Mala Strana auzo osoa datorkigu burura Nerudaren hitz eta irudietan. *Mala Stranako ipuinak* irakurrita, Pragara bisitan joateko gogoia ere ematen du, berak hainbesteko zehaztasunez deskribatutako zokoak lehengo tokian eta lehengo bezalaxe ote dauden ikusteko. Neruda hil eta handik mende batera Poliziaren Kuartel Nagusia kale-estu ilun berean dago behinik behin.

Fernando Rey

Rysanek jauna eta Schlegl jauna

I

Ez luke zentzurik izanen zalantzan jartzeak Pragan egon diren nire irakurleek Mala Strana auzoko «Stajnic» ostatua ezagutzen ote duten. Auzo hartako lehenbiziko ostatua da; «Harrizko zubiko» dorrearen ondoren lehenbiziko etxea ezkerrean; Zubiko kaleak eta Bainuetako kaleak egiten duten izkina. Leiho ederrak ditu eta beirate handi bat. Kale jendetsuenean jartze-
ra ausartu ziren ostatu bakarra da, ateak, gainera, zuzenean kalera emanda dituena. Gainerako ostatu guztiak kale aski gordeetan daude, edo etxe-atzeetan, edo, bederen, arkupeak dituzte, auzo hartako egiazko zuhurtasunak eskatzen duen moduan. Horregatik, Mala Stranako benetako seme bat, kale isil haietako batean jaioa, zoko poetiko ugari dauden lekua baita, ez da sekulan sartzen «Stajnic» ostatuan. Hara maila

bateko funtzionarioak joaten dira: katedratikoak, armadako ofizialak —bizitzaren halabeharrak auzo hartara eraman zituenak eta beharbada hemendik laster beste batera eramanen dituenak—, funtzionario erretiratu batzuk, zenbait etxe-jabe aberats, horiek ere aspaldi erretiratuak beren negozioetatik, eta beste inor ez. Nolabait esateko, bezeria burokratiko-aristokratikoa.

Orain dela urte asko ere, ni artean batxilergo-ko lehenbiziko urteak egiten ari nintzen gaztetxo bat nintzen denboran, bezeriak bazuen tankera bitxi hori; hala ere, ez zen oraingoa bezalakoxea. Hitz bakarrean, «Stajnic» ostatua Mala Stranako Olinpoa zen, auzo hartako jainkoak elkartu ziren tokia. Historian eztabaida izpirik onartzen ez duen baieztapena da jainkoak zuzenean nor bere herritik ateratzen direla. Greziarren jainkoak dotoreak eta argiak ziren, lirainak eta alaiak, helenoak betiere, alde guztietatik begiratuta. Eslaviarren jainkoak... Barkatu! Guk eslaviarrok ez dugu eduki inoiz behar bezainbesteko indar plastikorik ez estatu handiak egiteko, ez zenbait jainko sortzeko ere. Gure antzinako jainkoak

guretzat, gure jakintsuek zernahi esanik ere, oraindik zerbait lanbrotsua eta zehazgabea dira. Noizbait agian artikulu bat idatziko dut, burutsu eta zorrotza, jakina, jainkotiartasunaren eta gizatiartasunaren arteko parekotasunaz. Gaurkoz gauza bakarra esan nahi dut: «Stajnic» ostatuan bildu ziren jainkoak, dudarik batere ere egin gabe, Mala Strana auzoko egiazko jainkoak zirela. Mala Stranak —etxeek zein jendeak— zerbait du isiletik, patriarkaletik, baita logaletutik ere, eta giro horrek gizon horiek guztiak ere kutsatzen zituen. Funtzionarioak, ofizialak, katedratikoak eta pentsiodunak izanik ere, gaur bezala, bestelakoak ziren; garai haietan funtzionario eta ofizial jendeak ez zuen destinoa aldatzen gaur egun bezain maiz; gurasoek eginahalak egiten zituzten beren semeek karrera Pragan buka zezaten, destino bat lortzen zieten gero eta semeak hantxe gelditzen ziren betikoz, adiskide dirudunen itzalak babesturik. «Stajnic» ostatuko bezero horietako batzuk noizbait espaloian gelditzen zirenean, bertatik pasatzen ziren guztiek agurtu egiten zituzten. Hagitz ezagunak baitziren.

Batxilerrontzat, «Stajnic» ostatuko Olinpoa are olinpoago zen guretzat gure irakasle zahar guztiak bertan zeudelako. Zaharrak?! Zergatik diot zaharrak? Ezin hobeki ezagutzen nituen gure Mala Strana maiteko jainko haiek guztiak; beti iruditzen zitzaidan horien artean ez zegoela bat bakarra ere gaztea, edo, hobeki esanda, segur aski horiek denek itxura bera izanen zutelatik txikitatik. Gehienez ere txixixeagoak izanen ziren.

Denak gogoan ditut, oraintxe ikusten ariko banintz bezala. Lehenbizikoa, Apelazio Auzitegi-ko kontseilari jauna. Altua, mehea eta duintasun ikaragarrikoa. Artean jardunean ari zen funtzionarioa zen; sekulan ez nintzen iritsi, halere, egin-kizun haiek zehatz-mehatz zein ote ziren jakitera. Hamarrak inguruan eskolatik ateratzen gine-
nean, hura bere etxetik ateratzen zen, Karmel-
darren kalean bizi baitzen, eta duintasun izuga-
rriaz Ostruha kalera abiatzen zen, *Cardaren*
ardandegira sartzeko. Ostegun arratsaldeetan
eskolarik izan ez eta harresi zaharretan jostetan
aritzen ginen bitartean, bera parke haietan
barna ibiltzen zen paseoan. Eta arraltsaldeko

bostak baino lehentxeago «Stajnic» ostatura sartzzen zen. Nik garai hartan asmo sendoa nuen asko ikasteko eta hura bezala Apelazio Auzitegi-ko kontseilari izateko; baina gero, ez dakit nola, ahortzi nuen asmo hura.

Gero konde jauna zegoen, begibakarra. Mala Strana auzoan ez zen sekula konde faltarik izaten; baina konde begibakar hura zen seguruena auzoko ostatueta joan ohi zen bakarra, garai haietan behinik behin. Altua, hezurtsua, kolore bizikoa, kalpar motz eta zurikoa eta partxe beltz bat eramaten zuena ezkerreko begia estaltzeko. Bi ordu ere ematen zituen «Stajnic» ostatuaren pareko espaloian. Leku hartatik pasatzekoa nintzen egun batean, itzulinguru bat egin beharrean gertatu nintzen. Naturak aristokratei aurpegikera berezia eman zien, aristokratiko deritzana, hegazti harraparien antz handia ematen diena. Konde jaunak, nire iduriko —egiari meneginez—, hango belatz baten antz handia zuen; belatz hura, egunero-egunero, puntualitate egiantan krudelaz, eguerdiko hamabietan, San Nikolas elizako dorreko orratzean pausatzen zen, bere ehizakia txikitu eta irensteko: usakume bat,

lumak plazara erortzen zitzaizkiona. Belatz haren antza zuen, bada. Egun hartan, beraz, itzulunguru bat egin nuen kondea espaloian ikusi nuenean, beldur ikaragarria bainuen bere mokoa iltzatuko ote zidan.

Armadako mediku potoloa ere maiz joaten zen ostatura, artean sasoiko gizona, baina ordu-rako erretiratu. Esaten dutenez, behin, goigoiko agintari bat Pragako ospitaleak ikuskatzen eta zenbait gauza maiseatzen ari zenean, jaun horrek agintariari erantzun zion ez zekiela deus deusetan ere. Horrek erretiroa ekarri zion eta, bidenabar, gure mirespena, guk gazteok iraultzaile sutsutzat hartzen baikenuen jaun lodi hori. Gainera oso goxoa zen. Bere gustuko mutiko bat topatzen zuenean —eta mutikoa batzuetan neska izaten zen— hura geldiarazi, musua laz-tandu eta, ezagutzen ez bazuen ere, esaten zion: «Goraintziak zure aitari nire partetik».

Gero... baina ez dut segitu nahi! Xahar horiek guztiak bat-batean xaharrago egin ziren, eta gero hil. Utz ditzagun bakean deskantsatzen. Atsegin handiz gogoratzen ditut horien artean eman nituen momentuak. Atsegin handiz gogo-

ratzen dut sentrazio hori, askatasunarena eta baita handitasunarena ere, Unibertsitatean matrikulatu eta ondoan «Stajnic» ostatura lehenbiziko aldiz sartu nintzenean sentitu nuena, irakasleen beldur izan gabe, pertsona bikain haien artean. Ez zidaten kasu handirik egin, egia esan behar badut. Hobeki esanda, ez zidaten kasurik egin ia batere. Behin baizik ez; behin, aste anitzen buruan, armadako medikuak, nire ondotik pasatzean, esan zidan: «Bai, bai, gazte, garagardoak gaur egun ez du zipitzik ere balio, jendeak zernahi esanda ere»; eta esan bidenabar erdeinuz begiratzen zien lehentxeago mahai baten ondoan berekin eseriak egonak zirenei... Brutus ez bestea, astazakila! Esan dezaket, okertzeko deskuidurik gabe, gizon hura gauza izanen zela, konparazio batera, Zesarri berari ere leporatzeko ez zekiela deus ere garagardoaz.

Nik, aitzitik, arretaz erreparatzen nien haiei; ez asko aditzen nielako, baizik eta harrigarri egiten zitzaizkidalako. Haien kopia aski kaxkartzat daukat nire burua; baina bikainetik eta handitik dudana gizon haiei zor diet. Guztietatik, ez ditut sekula atzenduko bi gizon, bien deiturak nire

bihotzetik ezin ezabatuzkoak baitira: Rysanek eta Schlegl zeritzen, eta ezinikusia zioten batak besteari.

Eta barka ezazu orain, irakurle, historia beste modu batez hasten badut.

«Stajnic» ostatura Zubiko kaletik sartuta, lehenbiziko gelan, billarreko mahaia dauden tokian, hiru leiho ikusten dira eskuinaldean, Bai-nuetako kalera ematen dutenak. Leiho bakoitzaren aurrean mahaitto bat dago, eta atzean banku bat ferraren formakoa. Mahaitto horren ondoan hiru lagun esertzen ahal dira: bat bizkarra leihoari emanda eta beste biak ferraren alde banatan; bi lagun horiek ere leihoari bizkarra emanda jarri nahi badute, billarreko mahaiei begira gelditu eta jokia ikusiz dibertitzen ahal dira.

Hirugarren leihoaren parean biltzen ziren egunero, arratsaldeko seietatik zortziak bitarte, Rysanek jauna eta Schlegl jauna, gure herritar non-nahi estimatuak. Lekua libre zegoen beti, gordea, haientzat; beste norbaitek haien ohiko jarleketan inoiz esertzeko ausardia izanen zuela bururatze hutsa pentsaezina zen Mala

Stranako egiazko bizilagun batentzat eta bere burutik baztertzen zuen zeharo ezinezkoa balitz bezala. Pentsa zitekeenik ere! Leiho ondoko lekua beti hutsik gelditzen zen; Schlegl jauna sarreratik hurbilen zen ferraren aldean jartzen zen eta Rysanek jauna beste aldean, kanabete haratago. Biak leihoari bizkarra emanda egoten ziren eta, hortaz, aurrez aurre elkarri begiratu gabe, eta billarreko mahaietan jokatzeko zirenei beha pasatzen zuten denbora. Tragoxka bat edan nahi zutenean eta pipa piztu nahi zutenean baizik ez ziren jiratzen mahai aldera. Hamaika urte ziren leku horietan horrela jartzen zirela, egun bakar batean ere huts egin gabe. Eta denbora horretan guztian ez zioten behin ere hitzik esan elkarri, ezta elkarren berri izateko ere.

Mala Stranako guztiok zekiten zer gorroto bizia zioten elkarri. Haien arteko etsaitasuna aspaldikoa zen, urte askokoa, eta gupidagabea zen. Arrazoia ere ezaguna zen, gaizto den ororen jatorria: emakume bat. Biek emakume bera maitatu zuten. Hark nahiago zuen Rysanek jauna, aspaldiko eta itzal handiko merkatari bat, inongo menpekotasunik gabea, denda on baten jabe;

baina gero, halako batean, ustekabeen Schlegl jauna hautatu zuen, ia hamar urte gazteagoa zelako beharbada. Eta azkenean harekin ezkondu zen.

Ez dakit Schleglen andrearen edertasuna hainbestekoa ote zen, Rysaneken oinaze amai-gabea eta ondorioz beti-koz ezkongai gelditu izana ulertzerainokoa. Urte asko dira andre hark agur esan ziola munduari; lehenbiziko erditzean hil zen, eta senarrari alabatxo bat utzi, nonbait bere amaren berdin-berdina zena. Orain diodan garaian, Schlegl andereñoak hogeita bi urte inguru izanen zituen. Ezagutu nuen; oso maiz bisitan etortzen zitzaion Poldyn kapitainaren andreari, gure gaineko bizitzan bizi zen andreari; kolean barna ibiltzen zenean estropezu egiten zuena hamabi pausotik behin. Jendeak esaten zuen Schlegl andereñoa polit-polita zela. Ez dut nik ezetzik esanen; baina haren edertasuna, nolabait azaltzeagatik, arkitektonikoa zen. Dendena bere lekuan; haren gorputz guzti-guztian simetria akatsik gabea zen nagusi eta jakina zen detaile bakoitzaren arrazoia. Baina arkitekto ez zen pertsona batentzat, ordea, bere onetik ate-

ratzeko modukoa zen. Jauregi baten fatxada ematen zuen, hain gutxi mugitzen zuen aurpegia. Bere begiek ez zuten bizitasunik eta leiho garbitu berrien dirdaia zuten. Ahoa, sifoasa txiki bat bezain polita, mantso irekitzen zen ate baten gisan, eta gero zabal-zabalik gelditzen zen, edo geldotasun berberaz berriz ixten. Eta hori dena, gisuztatu berria ematen zuen larruazala zuela. Seguruenik orain ez da hain ederra, bizirik baldin badago; baina politagoa izanen da noski. Halako eraikuntzek hobera egiten dute denbora pasa ahala.

Zoritxarrez ezin dizuet esan ez zergatik ez nola gertatu zen Rysanek jauna eta Schlegl jauna elkartzea hirugarren leiho ondoko mahaitto hartan. Halabehar madarikatuak erru pixka bat izan zuen, egunero bizitza ozpindu nahi baitzien bi zahar horiei. Patuak lehenbiziko aldiz mahaitto haren aurrean elkarrengana bildu zituenean, harrotasunak ez zien utzi ez batari ez besteari beren lekutik alde egiten. Bigarren aldian destainagatik jarri ziren han. Hurrena, beren gogortasuna erakusteagatik eta «jendearen esamesen beldurrez». Eta gero «Stajnic»

ostatuko ohiko bezero guztiek ulertu zuten bi zaharrentzat ohore-kontua zela eta bietako inork ezin zuela amore eman.

Seiak aldera ailegatzen ziren, gaur bata minutu bat lehenago, bihar bestea. Gizalegez agurtzen zuten jende guztia, denak eta banaka-banaka, eta salbuespen bakarra batak bestearekin egiten zuten. Zerbitzariak udan kapela eta makila hartzen zizkien, eta neguan larruzko kapelua eta berokia, eta gakoan uzten zituen zintzilik, bakoitzaren jarlekuaren atzean. Arropa horiek erantzi eta gero, batzuetan burua makurtzen zuten usakumeek bezala —zahar jendeak ohitura hori du eseri nahi duenean—, esku bat mahaittoaren ertzean jarri —Rysanek jaunak ezkerra eta Schlegl jaunak eskuina— eta mantso-mantso esertzen ziren, leihoari atzea emanda, billarreko mahai aldera begira gelditzeko. Tabernari lodia konplimenduko sudur-hautsak eskaintzeko asmotan hurbiltzen zenean, bere betiko aurpegi irribarretsuarekin eta berriketan atertu gabe, bereiz deitu behar izaten zien haietako bakoitzari sudur-hautsaren kaxako estalkian ttak-ttak joaz, eta bietako bakoitzarentzat

esan behar zituen eguraldi txar edo onari buruzko betiko solasak. Bestela, besteak ez zituen onartuko hautsak edo gorrarena eginen zuen. Inor ezin zen harro agertu esanez biek in batera solasean aritua zela. Behin ere ez zuen batak deus jakin nahi izan besteaz; mahaiko laguna ez zen existitzen biotako inorentzat.

Zerbitzariak biotako bakoitzari aurrean jartzen zion garagardoa. Handik puxka batera mahaitto aldera jiratzen ziren —sekula ere ez biak batera, elkarri zehar-begiratua emanez baina axola ez balitzaie bezalako plantak eginez—, eta magnesitazko pipa bat ateratzen zuten, zilarrezko apaingarriduna, eta jakako kanpoko sakelatik poltsa bat bete tabako; pipak bete, piztu eta berriz lehengo moduan jartzen ziren. Horrela bi ordu ematen zituzten, eta horrelaxe edaten zituen bakoitzak bere hiru garagardoak; geroago, altxatu —gaur bata minutu bat lehenago, bihar bestea—, eta pipak gordetzen zituzten, tabernariak berokiak janzten laguntzen zien, eta mundu guztiari diosala egiten zioten, guztioi agur esanez, batak besteari izan ezik.

Espres jarri nintzen lurreko suaren aldamene-ko mahaian. Horrela, aurpegia parez pare ikusten nien eta eroso egoten ahal nintzen haiei begira batere nabarmendu gabe.

Rysanek jauna oihal-saltzailea zen; Schlegl jaunak purtzileri denda bat zuen. Ordurako beren negozioetatik erretiratuak zeuden finkajabe aberats gisa, baina aurpegikera artean ezagun zuten beren lehengo ogibidea. Rysanek jaunaren aurpegiak lehenago saltzen zuen marra zuri eta gorriko oihala oroitarazten zuen beti; Schlegl jaunarenak, berriz, bazter utzitako almeriz zahar baten itxura zuela iruditu zitzaidan beti.

Rysanek jauna garaiagoa zen, meheagoa eta, lehenago esan dudan bezala, zaharragoa. Bere onenak emanda zegoen, maiz ahul sentitzen zen, eta matrailezurra, nahi gaberik, erori egiten zitzaion. Adar beltzezko armazoiko betaurrekoak ibiltzen zituen. Ilea arrea zuen eta, jatorrizko koloretik gordetzen zuen pixarra ikusita, Rysanek jauna ilehoria izan zela ziurtatzen ahal zen. Matrailak hondoratuak zituen, eta zurbil; hain zurbil ezen haien ondoan sudur luzeak gorria

ematen baitzuen, gorrimina, karmin-kolorekoa kasik. Horrexegatik, beharbada, beti malko bat, ttantta bat, izaten zuen zintzilik sudur-puntatik, apaingarri gorri hartatik isuria. Biografo saiatua naizen aldetik, adierazi beharra daukat Rysanek jauna sobera berandu ahalegintzen zela malko hura xukatzen: bere bularrera erori ondoren batzuetan.

Schlegl jauna moztaka samarra zen; leporik ez zuela esan nahi dut. Burua bola bat bezalakoa zuen; kalparra, urdindu samartua, beltza. Aurpegia, bizarra egina zuen aldean, beltz urdindua, eta ilerik ez zuen aldean, gorrixka: haragi puxka bat distiratsua eta gero beste bat iluna, Rembrandten erretratu baten argi-ilunak bezala.

Bi heroi haienganako benetako estimazioa sentitu nuen nik, eta zenbat eta gehiago estimatu, orduan eta gehiago miresten nituen. Banku hartan jarrita zeuden bezala, egunero borroka latza izaten zuten, norgehiagoka krudela, erruki-gabea. Borrokan beren armez baliatzen ziren: isiltasuna pozoiz gainezka eta mespretxu nabariena. Eta bataila beti erabakitzeke gelditzen zen. Bietatik nork jarriko ote zuen azkenean

hanka bere etsaiaren lepazurraren gainean? Schlegl jauna bieran bizkorrena zen gorputzez; beregan dena motza zen, llaburra; hitz egiten zuenean, ematen zuen kolpe-hotsak aditzen zirela. Rysanek jauna xuabexeago mintzatzen zen, polikiago; ahula zen, baina herotasun berarekin gorrotatzen zuen eta eusten zion isiltasunari.

II

Zerbait gertatu zen.

Jubilate igandearen, hau da, Bazko ondoko hirugarren igandearen aurreko asteazken batean Schlegl jauna ailegatu eta bere betiko tokia hartu zuen. Eseri, pipa bete eta piztu egin zuen, ketzarra botaz tximinia baten gisan. Tabernaria sartu zen eta harengana jo. Hautsen kaxako estalkian ttak-ttak jo zuen, eskaintzeko. Kaxatxo itxitakoan esan zuen, ate aldera begiratu bidenabar:

— Orduan gaur ez dugu Rysanek jauna ikusiko, ezta?

Schlegl jaunak ez zuen deus erantzun, eta estatua baten begirada galduaren hoztasunaz aurrera begiratu zuen.

—Hortxe, armadako medikuak esan du — segitu zuen kontatzen tabernariak, ateari bizkarrara emanda, Schlegl jaunari begira—. Beti bezala jaiki da goizean; bat-batean hotzikara sentitu du gorputz guztian, hainbestekoa non segituan berriz oheratu beharra izan baitu, eta denborarik galdu gabe doktoeari abisatu diote. Birikeria! Armadako medikuak gaur hiru aldiz ikusi du. Dagoeneko gizon zaharra da. Hala ere, esku onetan dago; ez da esperantza galdu behar.

Schlegl jaunak ez tul txikia egin zuen, ezpainak itxita. Begirada ez zitzaion deus ere mudatu, ez zuen nabari aztoramen izpirik ere. Tabernaria ondo-ondoko mahaira joan zen.

Ni Schlegl jaunaren aurpegira beha nengoen. Denbora-puxka luzean erabat geldirik egon zen; gero ezpainak erdi-ireki zituen, keari ateratzen uzteko, eta behin edo behin piparen ahokoa ezpain-ertz batetik bestera eramane zuen. Geroxeago bere lagunetako bat hurbildu zitzaion. Solasean aritu ziren, eta batzuetan Schlegl jau-

nak ajataka egin zuen irri. Nazka ematen zidan haren irriak.

Ez zen dudarik, Schlegl jauna ohi ez bezala jokatzeko ari zen. Beste batzuetan bere lekuari josia zegoela ematen zuen, zentinela bat bere guardia-lekuan bezala; orain, ordea, urduri zegoen, ezinegonaz. Billar-partida bat hasi ere egin zuen, Köhler jaunarekin, dendariarekin. Partida guztietan suertea alde izan zuen *doublea* ailegatu zen arte, eta aitortu beharra dut poztu egin nintzela hondarreko atakada hartan behin ere asmatu ez eta Köhler jaunak beti harrapatzen zuelako.

Gero berriz eseri zen, eta erre eta edan egin zuen. Norbait hurbiltzen zitzaionean ohi baino gorago eta esaldi luzeagoekin mintzatzen zen. Haren mugimendu txikienari ere erreparatua nion; garbi ohartu nintzen barrenetik pozik zegoela eta ez zuela bere etsai gaixoarenganako atsekabe ñimiñorik ere sentitzen. Laburbilduz: berriz ere izugarritzko ezinikusia hartu niola.

Batzuetan begirada, ihesi bezala, barra alde-
ra joaten zitzaion, hurbil armadako medikua bai-
tzegoen eserita. Ziur nago gogotik esanen ziola

medikuari gaixo hartaz sobera ez arduratzeko. Gizon gaiztoa, inon gaiztorik bada.

Zortziak aldera joan zen armadako medikua. Hirugarren mahaittoaren parean gelditu zen.

— Gabon —esan zuen—; oraindik Rysanek jauna ikusi behar dut. Kontuz ibili beharra dago.

— Gabon —erantzun zuen Schlegl jaunak, hotz.

Arrats hartan Schlegl jaunak lau garagardo edan zituen eta zortzi eta erdiak arte gelditu zen.

Egunak joan ziren, asteak joan ziren. Apiril hotz eta zakar baten ondoren maiatz benetan goxoa egin zuen, eta udaberri zoragarria izan genuen. Maiatz ona egiten duenean, Mala Strana paradisua da. Petrin lore zuriz josia dago, alde guztietatik esnegain ezta isuriko balu bezala, eta Mala Strana osoa lila zurien urrinak inguratzen du.

Rysanek jauna eritasunaren mendetik atera zen azkenean. Udaberria benetako baltsamoa izan zen eriantzat. Maiz eguzkitan topatu nuen parkean. Mantso ibiltzen zen, makilaren laguntzarekin. Lehen ere ez zen batere lodia, baino

orain are meheago zegoen, inondik ere. Beheko matrailezurra ez zitzaion gehiago berriz itxi. Bakarra falta zuen zapi batekin matrailezurri eutsi, begiak itxi eta zerraldoan sartzea. Baina bat-batean bizkortzen hasi zen.

Ez zen joaten «Stajnic» ostatura. Han nagusi zen, hirugarren mahaittoan, ordura arte, Schlegl jauna bakarrik. Eta han jarri eta gogoak ematen zion bezala mugitzen zen.

Ailegatu ziren ekaineko hondar egunak eta, San Pedro eta San Pablo egunean hain xuxen, bi zaharrak gibelera mahai berean jarrita ikusi nituen. Berriz ere han zegoen Schlegl jauna aulkiari josia bezala eta biak leihoari atzea emanda.

Auzokoak eta adiskideak Rysanek jaunarengana joan ziren zorionak ematera. Denek bihotz-bihotzez zoriondu zuten eta zaharrak, atseginez hunkiturik, burua kulunkatu, irri egin eta ahalik gutxiena esaten zuen. Artean pattal zegoen. Schlegl jauna billarreko mahaira begira zegoen, tabakoa erretzen.

Halako batean, bakarrik utzi zutenean, Rysanek jaunak barra aldera zuzendu zuen begirada,

han baitzegoen jarrita bere medikua: esker oneko arima bat!

Rysanek jauna toki berera begiratzeko jiratu zen unean hain juxtu, Schlegl jaunak burua bere lagunarengana jiratu zuen, hari so egiteko. Begiratu bat eman zion Rysanek jaunaren gorputz osoari, polliki, lurretik hasita belaubun zorrotzeta-
ra, eta gero eskuan gelditu, mahaittoaren ertzean pausatua, hezur eta azal hutsa, eta gero gora, matrailezur lokatura eta aurpegi zurbilera iritsi arte. Baina segundo bateko kontua izan zen dena; berehala begiak bere etsaiarengandik bereizi eta berriz burua zuzen jarri zuen.

— Gizona! Hau poza! Berriz ere osorik! —
esan zuen tabernariak, orduantxe ailegatua sukaldetik edo sototik. Sartu eta, Rysanek jauna ikusi orduko, harengana joan zen laster—. Berriz osorik eta gure artean! Jainkoari eskerrak!

— Jainkoari eskerrak, eskerrak Jaunkoari! —
erantzun zuen Rysanek jaunak irribarretsu—. Oraingoan lortu dut ihes egitea. Berriz sasoiari sentitzen naiz.

— Baina Rysanek jaunak ez du erretzen?
Oraindik pipa erretzeko gogorik gabe?

— Uste dut gaur dudala gogoia lehenbiziko aldiz. Erreko dut, bai!

— Ederki, ederki. Hori ongi da! —tabako-kaxa itxi, ttak-ttak jo, berriz ireki hitz bat edo beste esanez Schlegl jaunari eskaintzeko, eta alde egin zuen.

Rysanek jaunak pipa atera eta bere jakako sakelari tabako-poltsa bilatu zuen. Buruari pixka bat eragin eta berriz bila hasi zen, eta hirugarrenean poltsa aurkitu ez zuenez, zerbitzariari deitu eta esan zion:

— Segi nire etxera. Badakizu non bizi naizen, ezta? Hemen kale-kantoian. Esaiezu tabako-poltsa emateko, mahai gainean egon behar du-eta. Zerbitzaria txistuan atera zen.

Momentu hartan Schlegl jauna mugitu egin zen, eskuineko eskua luzatu zuen bere poltsa irekia zegoen aldera eta hurbildu egin zion, Rysanek jaunaren pare-parean jarri arte ia-ia.

— Nahi baduzu, «Hiru Erregerekin» eta tabako arruntarekin egindako nahastea dut nik — esan zuen lehor; eta gero ez tul txikia egin zuen.

Rysanek jaunak ez zuen deus erantzun; begiratu ere ez zuen egin. Burua beste aldera begira zuen, aurreko hamaika urteetan bezain hotz.

Behin edo behin eskua mugitu zuen, barreneko bulkada batek eraginda bezala; baina bere ahoak itxita segitzen zuen.

Schlegl jaunaren eskuineko eskua poltsari itsatsia gelditu zen, begiak lurrari finkaturik, oraintxe ke-laino batez inguratua, oraintxe ezulka eztarrian zerbait traban balu bezala.

Une hartan zerbitzaria itzuli zen.

— Eskerrik asko; badut nire poltsa, begiratu! —esan zion orduan Rysanek jaunak Schlegl jaunari, berari begiratu gabe betiere—. Nik ere nahaste bera gastatzen dut, «Hiru errege» eta tabako arrunta —gaineratu zuen handik puska batera, beste zerbait esan behar zuela ulertu balu bezala.

Pipa bete, piztu eta erre egin zuen.

— Gustatzen zaizu? —egin zion purrust handik tarte batera Schlegl jaunak, normalean baino ehun aldiz ahots lakarragoan.

— Jainkoari eskerrak, bai, gustatzen zait.

— Jainkoari eskerrak, dudarik ez egin —
berriz, Schlegl jaunak.

Aurpegiko giharrak uzkurtu egin zitzaizkion,
azkenean zero beltzean argi bat piztu balitz
bezala. Eta berehalaxe gehitu zuen:

— Beldur ginen hemengook zerbait gertatuko
ote zitzaizun.

Orduan bai; orduan Rysanek jaunak burua
jiratu zuen bere solaskidearengana. Bien begira-
tzeek topo egin zuten.

Eta harrezkeroztik elkarri hitz egin zioten
Rysanek jaunak eta Schlegl jaunak «Stajnic»
ostatuko hirugarren mahaittoan.

Eskalea mixeria gorrra bidali zuen emakumea

Zer edo zer idatzi nahi dut gertakari goibel batez, baina nire parean Vojtisek jaunaren aurpegi alaia ikusten dut, aurpegi sano eta distiratsua, musugorri beti, igandeetan batik bat niri hainbeste gustatzen zaidan haragi erre gurinez oratua gogorarazten didana. Baina larunbatetan ere —Vojtisek jaunak ez zuen bizarra igandeetan baizik egiten—, esnegain lodiaren gisako bizar zuri berriz haziak bere aurpegia apaintzen zue-nean, Vojtisek jaunak itxura goxoa izaten zuen. Bere kalparrak ere bazuen nolabaiteko xarma. Ez zuen ile askorik, egia esanda; ileak soilune borobilaren behealdean hasten zitzaizkion eta zuri samarrak ziren; batzuk, zilar-kolorekoak kasik, eta beste batzuk horixka antxak; baina zeta bezain finak ziren eta burua leuntasunez inguratzen zioten. Vojtisek jaunak kapelua beti eskuan ibiltzen zuen, eta, janztekotan, eguzkiak gogorregi jotzen zuen tokiren batean ibili behar zuenean janzten zuen. Bi hitzetan, oso gogokoa

nuen Vojtisek jauna; bere begi urdinek dirdira alai zuten eta aurpegia begi borobil-borobil bat bezalako zen, xalotasunaren ispilu.

Vojtisek jauna eskalea zen. Ez dakit lehenago zer izan zen. Baina Mala Stranako berri badudanez, seguruenik oso aspaldiko eskalea zen, eta bere osasuna ikusita denbora luzean eskean segitzeko moduko sasoia zuen; pago baten pare. Ez zen zaila asmatzea zenbatsu urte zituen. Behin paseoan ikusi nuen, pauso txikian, San Joaneko muinoan, Ostruha kalean goiti; simr polizia ikusi zuen, barandari bermaturik eguzkitan, eta harengana hurbildu zen. Simr jauna polizia lodi bat zen, hain lodia ezen bere frak urdina beti lehertzeko heinean izaten baitzen; buruak, atzealdetik ikusita, —nire irakurle maiteok konparazio hau barkatzen badidazue— urina zerien saltxitxa batzuen itxura zuen. Mugimendu bakoitzean kasko distiratsua txanbalakaz zebilketan bere buru larriaren gainean, eta apendizien baten atzetik lasterka hasten zenean, lege ororen kontra eta inolako lotsarik gabe pipa pizturik zuela karrika gurutzatzeagatik, kaskoa kendu eta eskuan eraman behar izaten zuen. Orduan

mutilok irri egiten genuen, eta txingoka hasten, baina hark guri begiratu orduko, deus ikusi ez izanaren itxurak egiten genituen. simr jauna alemana zen, *sluknovekoa*; bizirik baldin badago — Jainkoak hala nahi izan dezala—, apustu egingen nuke txekieraz oraindik ere garai haietan bezain trakets egiten duela. «Baina badakizue —esan ohi zuen— urte bakar batean ikasi nuela».

Diodan egunean, bada, Vojtisek jaunak ezkerreko besapean jarri zuen bere kapelu urdina, eta eskua bere beroki arre luzeko sakelaren zoko-zokoraino sartu zuen. Aldi berean simr jauna agurtu zuen, bere guardia-postuan asper turik aho zabalka baitzegoen, hitz hauek esanda: «Jainkoak egun on!»; eta simr jaunak militarren moduan agurtuz erantzun zuen. Ondoren Vojtisek jaunak sudur-hautsetarako ezpelezko toxa xumea atera zuen, toxako estalkiaren larruzko belarritik tiratuz hura ireki, eta simr jaunari eskaini zion. simr jaunak hauts batzuk hartu eta esan zuen:

— Zenbat urte dituzu? Zu ere zahar samarra izanen zara, ezta?

— Bai, horixe! —erantzun zuen eskaleak irribarre eginez—, laster laurogei urte izanen dituk amak ni izan eta bere bihotza alaitu zuela.

Irakurlea harritu izanen da, noski, eskale bat polizia batekin hain adiskidetsu mintzatzera ausartzeaz, eta poliziak berari zuka egiteko ez eskatzeaz, edozein arlote edo menpekorekin egiten zuen moduan. Gainera, kontuan hartu beharra dago zer zen polizia izatea hain gutxi ziren garaian. Bazen norbait. Lau polizia besterik ez zeuden, Novak, simr, Kedlicky eta Weisse jaunak, egunean zehar gure kalea zaintzeko txandatzek zirenak. Hauek ziren: Novak jaun *ñimiñoa*, *Slabecekoa*, zenbait dendatarako joera zuena, *slivovice* zalea zelako; simr jaun potzoloa, *sluknovet*koa; Kedlicky jauna, *Vysehrad*koa, beti betilun baina oso bihotz onekoa, eta, azkenik, Weisse jauna, *Rozmital*goa, altua, hortz horituak eta ikaragarri handiak zituen. Guk bagenekien bakoitza nongoa zen, armadan zenbat denboraz egona zen eta zenbat seme-alaba zituen. Laurok auzoko haurron estimazioa zuten eta ahal gauen guztietan segitzen genien. Haien denok ezagutzen gintuzten; horregatik modua izaten

zuten beti amei esateko nontsu zeuden beren haurrak. Eta 1844. urtean Weisse jauna *Rent-hauzeko* sutean izandako lesioen ondorioz hil zenean, Ostruha kaleko bizilagun guztiek bere azken bidaiari lagundu zioten.

Baina Vojtisek jauna eskale arrunta ere ez zen. Ez zuen sobera zaintzen bere eskale itxura zarpail eta zikina; garbi samarra zen, aste hasieran bederen; lepo inguruan eramaten zuen zapia beti ongi lotua edukitzen zuen; jakan batzuetan adabaki bat edo beste izaten zuen, baina ez latorri puska bat bezala nolana jarria, ez eta oso kolore desberdinekoa ere. Astean zehar Mala Stranan ibiltzen zen eskean. Toki guztietara sartzeko bidea zuen, eta etxe aurre batean edozein etxeakoandrek Vojtiseken ahots goxoa entzun bezain laster, hiru zentimoko txanpon batekin ateratzen zen beti. Halako txanpon bat, *krejcar* erdia, dirua zen garai hartan. Goizetik hamaikak aldera arte ibiltzen zen eskean, eta ondoren San Nikolas elizara joaten zen hamabi eta erdietako meza entzutera. Han, elizatik hurbil, ez zen behin ere eskean ibiltzen, eta erreparatu ere ez zien egiten ate ondoan jarrita egoten ziren eska-

leei. Ondoren bazkaltzera joaten zen, edozein tokitara, ongi baitzekien etxe askotan janari hondarrez betetako eltzea gordetzen ziotela. Bere jokabidean bazen zerbait naturala eta lasaia, Theodor Stormi poesia komiko batean hau adierarazi ziona: «*Ach, könnt' ich betteln geh'n über die braune Haid!*», hau da, «Eskean joaten ahalko banintz Lurreko zelaietan barna!».

Herzl jauna zen, gure etxeko ostatu-jabea, sekula ere dirurik ematen ez zion bakarra. Herzl jauna gizon luzea zen, zakar samarra solasean, baina hori barkatzen ahal zitzaion. Vojtisek jaunak, behinik behin, barkatu egiten zion. Dirua eman beharrean, beti sudur-hauts pixka bat ematen zion bere toxatik. Eta orduan —larunbattetan ikusten zuten elkar— beti honelako solasaldia izaten zuten:

— Ai, Vojtisek jauna, a zer garai txarrak!

— Txarrak benetan, eta hoberik ez da etorriko harik eta gazteluko lehoia Vysehradeko kolunpioan jartzen ez den arte.

Vojtisek jauna San Vito katedraleko dorreko lehoiaz ari zen. Aitortzen dut Vojtisek jaunaren baieztapen hori ongi gordea dudala gogoan. Ez

nuen arrazoirik lehoia, ni bezalaxe, paseoan harrizko zubian barna Vysehraderaino joan eta han dagoen kolunpioan jar zitekeela dudatzeko, gazte zentzuduna bainintzen. Ordurako zortzi urte nituen! Baina ibilaldi horren ondorioz garai hobeak etorriko zirelako kontu hori ez zitzaidan kaskoan sartzen.

* * *

Ekaineko egun zoragarria zen. Vojtisek jauna San Nikolas elizatik atera zen, burua kapelu urdinaz estalita eguzki-errainuetatik babesteko, eta emeki San Eztebe Plaza gurutzatu zuen, orain hala deitzen baitzaio. Hirutasun Santuaren estatuaren aurrean gelditu eta harmailetako batean eseri zen. Iturria, atzean, marmarrean ari zen, alai; eguzkiak berotu egiten zuen; bizitza goxoa zen! Vojtisek jauna, bistan zen, bazkaria hamaiak pasatxo arte luzatzen zen etxeren batean bazkaltzekoa zen.

Vojtisek jauna jarri eta, handik laster, San Nikolas elizako atarian eserita zeuden emakume eskaleetako bat altxatu eta harengana abiatu

zen. *Alehunka-amoña* deitzen zioten. Beste eskale batzuek emaleei agintzen zieten eman-dako limosna Jainkoak halako ehun bihurtuta itzuliko ziela; hari, berriz, ehun gutxi iruditu eta «alehunka, alehunka» esaten zuen, ez gutxiago; horregatik, Hermann eliz auzitegiko funtzionarioaren andreak —Pragako enkante gehienetara joaten zen emakume bat— hari baizik ez zion ematen limosnarik. *Alehunka-amoña* xuxen ibiltzen zen nahi zuenean, eta, gogoak ematen zionean mainguka. Hartan zuzen zihoan, Vojtisek jaunari buruz, estatuaren oin aldera. Bere gorputz ihartua estaltzen zioten drill arruntezko gonek ia-ia ez zuten soinurik egiten ibiltzean; buru-zapi urdina, kopeta aldera eroria, emakumearen pauso bakoitzean mugitzen zen. Bere aurpegia betidanik ikaragarri zakarra iruditu zitzaidan. Zimur txikiz josia zegoen, fideo finen gisan sudur zorrotz aldera eta aho aldera biltzen ziren zimurrez josia. Begiak berde-horixkak zituen, katuenak bezalakoxeak.

Vojtisek jaunaren ondoan gelditu zen.

— Ave Maria, egun on Jainkoak! —esan zuen imintzio batez.

Vojtisek jaunak buru-keinu batez baietz egin zion, konforme zegoela adierazi nahian bezala.

Alehunka-amoña harmailaren beste muturrean jarri eta atrux egin zuen. Gero «brr» egin eta esan zuen:

— Nik ez dut maite eguzkia; eguzki-errainuek aurpegian jo eta segituan hasten naiz atruxka.

Vojtisek jaunak ez zuen deus erantzun.

Alehunka-amoñak pixka bat atzeratu zuen bere buru-zapia eta aurpegia agerian utzi. Eguzkiaren argiak jotzean, begi itxi-irekiak egiten zituen, katuek bezala; orain itxiak zituen, orain distiratsu ikusten ziren kopeta azpian bi puntu berde bezala. Ahoa urduritasun keinu etengabe mugitzen zuen; irekitzen zuenean goiko matrailezurrean hortz bakar bat zuela ikusten zen, beltza zeharo.

— Vojtisek jauna —hasi zen berriz—, Vojtisek jauna, nik beti pentsatzen dut: «Zuk nahi baze-nu!».

Vojtisek jaunak ez zuen deus esaten. Burua jiratu eta ahora begiratu zion.

— Beti pentsatzen dut: «Vojtisek jaunak nahi balu, jende ona non dagoen esan liezaguke».

Vojtisek jauna isilik, mugitu gabe.

— Zertan ari zara, niri begira-begira? —galde egin zion *Alehunka-amoñak* handik tarte batera—. Zer ikusten didazu?

— Hortz hori. Eta nire artean pentsatzen ari nintzen zergatik duzun hortz bakar hori?

— A, nire hortza! —erantzun zuen. Eta gero gaineratu—: badakizu hortz bat galtzeak adiskide on bat galtzearen moduko zerbait adierazten duela. Hilak daude dagoeneko nirekin zintzo jokatu eta bihotzez maite ninduten guztiak. Denak! Bat bakarra gelditzen zait. Ordea, ez dut ezagutzen. Ez dakit non dagoen adiskide on hori, gure Jainko errukitsuak nire bizitzaren ibilian jarri zuena. Jainko maitea, a zer bakarrik nagoen!

Vojtisek jauna lurrera begira gelditu zen, atsoaren oinen aurrean hitzik esan gabe.

Irribarre moduko zerbaitek, poz-errainu batek, gurutzatu zuen atsoaren aurpegia, baina irribarre itsusia zen, zakarra. Aho-ezpainak zorroztu zituen; ematen zuen aurpegi osoa ezpainenan bildua zuela, zuztar batean bezala.

— Vojtisek jauna!, gu biok oraindik zoriontsuak izan gintezke... Egunotan denetan zurekin

egin dut amets. Uste dut Jainkoaren nahia dela... Zu hagitz bakarrik zaude, Vojtisek jauna; ez zaitu inork zaintzen... Zuk non-nahi adiskide onak dituzu..., jende zintzoa... Ni zurekin bizitzen jar ninteke. Ohe-jantzi batzuk baditut...

Atsoak hitz egin bitartean, Vojtisek jauna altxatuz joan zen poliki. Erabat zutitu zenean bere kapelu urdina bildu zuen eskuineko eskua-rekin.

— Nahiago dut artsenikoa hartu! —esan zuen zakar. Ixtanteko, alde egin zuen, diosalik ere egin gabe.

Gero Ostruha kale aldera urrundu zen. Bi begi berderen dirdaia ikusi zen gizonaren atzetik kale kantoira iritsi arte. *Alehunka-amoñak*, ondotik, buru-zapia ia kokotseraino beheratu zuen, eta eserita gelditu zen, luzaro, mugitu gabe. Loak harturik beharbada.

* * *

Berehala xurrumurru bitxiak zabaldu ziren Mala Stranan. Baina aditzen zituztenei sinesteak lan ematen zien. «Vojtisek jauna...!». Maiz adi-

tzen zen bere izena solasaldietan; eta esamesak baretua zirudienean, berriz: «Vojtisek jauna...!».

Luze gabe izan nuen denaren berri. Vojtisek jauna ez zela pobrea esaten zen. Ibaiaz bestaldean bi etxe omen zituen —horrela esaten zuten, bederen—. Eta gazteluaren atzean, Bruskatik hurbil bizi zela ere ez omen zen egia.

Adarra jotzen ari omen zitzaion Mala Strana-ko jende zintzoari! Aspalditik gainera!

Jendearen sumindura! Gizonak haserre bizian; minduak zeuden eta lotsatuak hain sinesberak izanaz.

— Alu galanta! —zioen batek.

— Egia da —segitzen zuen beste batek— ez duela inork ikusi igandeetan eskean. Ederki bazkaltzen ariko zen bere etxean, haragi erre eta guzti.

Emakumeak artean duda-mudan zeuden. Vojtisek jaunaren aurpegia, esanak esan, sobera zintzoa iruditzen zitzaien.

Baina beste zurrumurru bat ere zabaldu zen, are makurragoa: azken berrien arabera, bi alaba zituen, oso señoiritatzat zutenak beren burua. Bata teniente baten andregaia zen eta besteak

antzerkian lan egin nahi zuen. Ez ziren sekula ateratzen eskularrurik gabe eta *Stromovkara* joaten ziren.

Horrek konbentzitu egin zituen emakumeak.

Eta berrogeita zortzi ordu eskasetan —nolabait esateko—, erabat aldatu zen Vojtisek jaunaren zoria. Leku guztietan ezezkoa ematen zioten, «garai zailak» zirelako aitzakian. Garai batean janari-hondarrak gordetzen zizkioten etxeetan «ez zela deus sobratu» esaten zioten, edo, are makurrago: «pobreak gara, ez dugu deus izan dilistak besterik, baina hori ez da zuretzako moduko janaria». Kalean ume deabruak inguratu eta oihu egiten zioten: «dirudun, dundun!».

Nire etxe aurrean nengoen larunbat batean Vojtisek jauna hurbiltzen ikusi nuen. Herzl jauna atarian zen, ohi bezala, ateko markoari bermatuta, mandar zuriarekin. Nahi gabe, beldur ulertezin batek harrapatua, lasterka etxera sartu nintzen eta ate-orrietako baten atzean gorde nintzen. Ate-orpoen ondoko zirrikitutik oso ongi ikusi ahal izan nuen Vojtisek jaun gizagaixoa.

Dardarka zeraman kapelua eskuetan. Ez zekarren garai bateko irribarre zabala. Burumakur heldu zen, kalpar horixka banaturik.

— Ave Maria, egun on Jainkoak! —agurtu zuen ahots urduriaz.

Juxtutik ausartzen zen aurpegia altxatzera. Matrailak zuri-zuri zituen eta bere begiek galdua zuten dirdir guztia; oso nekatuak ziruditen.

— A zer poza zu ikustea! —esan zuen Herzl jaunak—. Mesede ederra egingen zenidake hogeit mila florin utzita. Ez izan deskuidurik, ez dituzu galduko eta; hipoteka baterako da, afera segurua. Orain ondoko etxea erosteko aukera dut, *Beltxarga* izenekoa eta...

Ez zuen bukatu esaldia.

Bat-batean Vojtisek jaunari malkoak isuri zitzaizkion bere begi izutuetatik.

— Baina..., baina... —esan zuen negar-zotinka—, baina, gizon zintzoa izan naiz nire bizitza guztian!

Pauso kolokaz kalea gurutzatu eta gazteluko atarian lur jo zuen. Burua beheratu, belaunetaraino ia, eta negarrez hasi zen, saminez.

Nire aita-amen gelan sartu nintzen lasterka, gorputz osoa dardarka nuela. Ama zutik zegoen leiho aurrean, kalera begira, eta galdetu zidan:

— Zer esan dio Herzl jaunak?

Vojtisek jaunari begira gelditu nintzen, negarez segitzen baitzuen. Ama merendua prestatzen ari zen eta, gibelera, leihora etorri zen, denbora-puska batean begiratu eta berriz joan zen, buruari eraginez, ikusten ari zenarekin konforme ez zegoela esanez bezala.

Une hartan Vojtisek jauna poliki altxatu zen. Presaka amak ogi-xerra bat moztu, kafe-katilu baten gainean jarri eta laster atera zen. Deitu zion, eta esku-keinuak egin, baina Vojtisek jaunak ez zuen deus ikusi ez entzun. Nire ama, orduan, harenganaino aurreratu eta katilua eman zion. Vojtisek jaunak begiratu egin zion eta, handik puska batera, ahapetik, zezelka esan zion: «Jainkoak ordain diezazula!», eta gero gaineratu zuen: «barkatu, baina orain ezin dut deus irentsi».

Aurrerantzean ez zuen berriz limosna eskatu Mala Stranan. Ibaiaz bestaldean ere ez zitekeen joan etxeetara: ez zuen ezagutzen ez jendeak ez

poliziak. Hortaz, Gurutzearen Zaldunen plazatxoan finkatu zen, guardia militarren kuartelaren aurrean hain xuxen, zubitik hurbil. Hantxe ikusten nuen beti, ordu laurden bat libre izanda zubia gurutzatu eta ibaiaz bestaldera joaten ginenean Stare Mestoko liburudendetako erakusleihoko liburuak begiez irenstera. Kapelua beti lurrean izaten zuen, hanken aurrean, burua bularraldera makurturik, eskuetan arrosario bat, eta ez zion inori erreparatzen. Bere buru-soilgu-neak, matrailek eta eskuek galdua zuten aspaldi gabeko arrosa-kolore osasuntsua; aurpegiko azala horixka antxa zuen, eta ezin konta ahala zimurrez josia. Eta esanen dut... edo ez dut esanen? Baina... zergatik ez? Harrezkeroztik ez nintzen ausartu harengana hurbiltzera: pilareetan ezkututzen nintzen, eta atzealdetik kapelura txanpon bat botatzen nion —lehenago ostegunero etxean jasotzen zuena—, eta berak ni ikusi gabe lasterrari ematen nion.

Geroago, behin, zubian topatu nuen; polizia batek lagun egiten zion, Mala Stranara eramateko. Orduz geroztik ez nuen beste inoiz ikusi.

Otsaileko goiz hotz eta lainotsua. Kanpoan, kalean, oraindik ilun; leihoak izotz-geruza lodi batek estaliak zeuden, eta bertan pare-pareko lurreko suaren dirdai horien isla ikusten zen. Etxe aurrean gurditxo baten gurpilen karraxka eta zakur batzuen zaunka-hotsak aditzen ziren.

— Laster, seme; ekar itzak bi pinta esne — esan zidan amak—; baina ongi babestu lepoa.

Kanpoan, bere gurdian igota, esneketaria zegoen, eta ondoan Kedlicky jauna, polizia. Gantz-kandela baten muturrak argia ematen zuen, lasai, poliziaren esku-argian.

— Nor da? Vojtisek jauna? —galdetu zion andre esneketariak poliziarri, eskuan zeraman burruntzaliarekin esnari eragiteari utzita (esneketariak legez debekatua bazuten ere burruntzaliaz esnea iraultzea lodiagoaren itxura izan zezan, andreak bazuen bat; baina arestian esan bezala, Kedlicky jauna oso bihotz onekoa zen).

— Bai, andrea —erantzun zuen—. Gauerdia pasata aurkitu genuen Oujezden, artilleroen kuartelaren ondoan. Ordurako zurrun zegoen eta

Karmeldarren komentuko hil-kaperan sartu genuen. Jaka zarpaildu bat eta galtza ziztrin batzuk besterik ez zeraman; azpian ez zuen atorrarik ere.

Ruska andrearen bihotz samurra

Josef Vels Mala Stranako merkatari aberatsetakoa zen. Uste dut bere dendan Indiatik eta Afrikatik ekartzen den orotik bazuela, makilgoxotik eta betunetarako marfil erretik hasi eta urrezko hautsekin buka. Denda uneoro jendez gainezka izaten zuen. Vels jaunak egun osoa ematen zuen han, salbu igandeetan San Vito katedralean meza nagusiaren orduan eta Pragako auzo-batzarrek desfileak antolatzen zituzten aldiro, Udaleko tiratzaileen kidegokoa baitzen. Vels jauna lehenbiziko konpainiako lehenbiziko pelotoikoa zen, Nedomy tenientearen eskuinaldean desfilatzen zuen hirugarren gizona. Dendan bi saltzaile eta bi aprendiz bazituen ere, berak bakarrik atendituko zituen, gogotik, bezero guztiak. Baina, dena dela, berak atenditzen ez zituenak ere agurtzen zituen, eta irribarre eta eskua-ekin agur-keinuak egiten zizkien. Egia esanda, Vels jauna ia beti irriz egoten zen: dendan, kalean, elizan, leku guztietan. Saltzaile-irriak

aurpegiari ildo ezin ezabatuzkoak utziak zizkion eta, horregatik, irri hura ezin zen sekula desagertu bere begitartetik. Vels jauna ez zen sobera altua; bai, ordea, potolo samarra, eta burua eten gabe mugitzen zuen. Dendan gehientsuenetan plater-kapelua eramaten zuen, baita larruzko mandarra ere, garai hartan dendariak izaten zituzten horietakoa, eta kalean txistera janzten zuen, eta frak urdina, urrearen koloreko botoiak zituena. Nik buruan Vels jaunaren gaineko irudi bat egina nuen. Ez dakit, ordea, oso zuzena zen, zeren, egiari men egiteko, esan beharra dut bizi izan zen artean ez nintzela behin ere egon haren etxean; baina Vels jaunaz pentsatzen nuen bakoitzean irudi bera bururatzen zitzaidan: kapelurik gabe baina mandarrarekin, mahai ondoan eserita, aurrean lurrina zerion plater bat zopa zuela, besoa mahaian bermaturik eta eskuaz koilara aho irribarretsura hurbiltzen. Holaxe eta holako egoeran ikusten nuen nik haren irudia, nire gogoan zizelatua bezala. Ideia txoraa, badakit.

Baina gure historia hasten den egunean — 184...ko maiatzaren 3an, arratsaldeko laure-

tan— Vels jaunak utzia zuen bizien mundua. Goian zetzan hilik, lehenbiziko solairuan, bere dendaren gainean, harrera-gelan, zerraldo polit-polit batean. Estalkia artean jarri gabe zegoen, eta Vels jaunak irribarre egiten zuen hil ondotik ere, begiak itxita.

Hileta handik ordu laurden batera egitekoa zen. Hil-kotxea, *borladuna* zeritzana, zain zegoen plazan, etxe aurrean. Haren ondoan tiratzaille-konpainia bat formazioan jarri zen, musika-banda eta guzti.

Gela, hil-kapera bihurturik, ia betea zegoen; bertan zeudenak Mala Stranako handikiak ziren. Gauza jakina zen San Nikolas elizako erretorea beranduxko etorriko zela, bere laguntzaileekin, nolabaiteko garrantzia zuen herritar baten hileta zenetan egin ohi zuen bezala, inork esan ez zezan ziztuan bidali nahi zuela hilobira. Gelan bero itogarria zegoen. Arratsaldeko eguzkiak airea berotzen zuen eta ispilu handietan bere errainuak islatzen; hilkutxa inguratzen zuten kandela altuek sugar horiak ematen zituzten, kea zerienak; giro beroan usain azkarra zegoen: kandelen lurrina eta zerraldo bernizatu berriari,

hilotzaren azpiko zirbilei eta akaso hildakoari berari ere zerizkien usainak. Isiltasun erabatekoa nagusi; jendea, noizbehinka baizik ez, aha-petik mintzatzen zen marmarka. Ez zen inor negarrez ari, Vels jaunak ez zuelako ahaide hur-bilik uzten, eta ahaide txikiek esan ohi dutelako: «Ai ene, negar eginen nuke gogotik... baina ezin dut, ez dut-eta malkorik! Eta bihotza erdiratu beharrean dut... eta hori askoz okerragoa da!».

Halako batean gelan Ruska andrea sartu zen, Rus zenaren alarguna, Grafeko lorategietan izan zen ostatu baten jabearena; ospe handiko ostata, artilleroek beren dantzaldi sonatuenak bertan egiten zituztelako. Inori axola ez zaionez, deus gutxi esanen dut Ruska andrea alargundu zeneko kontuez aditzen zirenei buruz. Garai hartan artilleroen bateria bakoitzean bonbaketari-multzo bat zegoen, soldadu gazte sail bat, kementsu eta lirainak, osasun betekoak. Rus jaunak ezin ikusi handia omen zien soldaduei; batzuen iritziz bere andrearengatik eta, beste batzuen iritziz, behin epelak eman zizkiotelako sesio batean. Baina, diodan bezala, hori ez zaio inori inporta. Ruska andreak hogeita bosten bat

urte zeramatzan bere alarguntza-pentsioaren kontura bizitzen, ez zuen seme-alabarik eta *Selky Trheko*, Nekazarien Plazako, bere etxean bizi zen. Norbaiti galde egin baliote zertan aritzen zen, seguru erantzunen zuen: «Hiletetara joaten da».

Vels jaunaren etxean, Ruska andreak aurrera egin zuen jende artean katafalko ondora ailegatu arte. Sasoiko emakumea zen, alturaz tartekoa, berrogeita hamar urte eginak zituena. Sorbaldetan arraun-xerrako mantelina beltz bat zuen, eta buruan tonu berde argiekiko begizta batzuekin apaindutako kapelu beltz bat. Bere begi gaztaina-kolorekoek hildakoaren aurpegiari so egin zioten. Uzkurtu egin ziren bere hazpegiak, begietatik malkoak isuri zituen, eta bularretik min eta negar intziriak atera zitzaizkion.

Geroxeago, musuzapi txuri bat atera eta begiak eta ahoa xukatu zituen laster. Ondoren alde batera eta bestera begiratu zuen. Ezkerraldean Hirt kandelagilearen andrea zegoen, errezoan bere otoitz-liburutik irakurtzen. Eskuinaldean oso apain jantzitako andre bat zegoen, Ruska andreak ezagutzen ez zuena. Pragakoa

baldin bazen —eta hala zirudien—, ibaiaz bestaldekoa behar zuen. Halaz guztiz, hitz egin zion, alemanez, jakina, zeren, nazio kontuetan, garai hartan Mala Stranak argi eta garbi alemanen alde egiten baitzuen.

— Jainkoak betiko atsedena eman diezaiola! —esan zuen Ruska andreak—. Inork ez luke esan-en hilda dagoenik ere. Irribarre ere egiten du. —Eta berriz begietatik zerion malko-erreka xukatu zuen—. Alde egin du gu hemen utzita; zituen dirutza eta ondasunak ere hemen utzi ditu. Heriotza lapur hutsa da, ez da hala?

Andre ezezagunak ez zuen deus erantzun.

— Hileta judu batean ere egona naiz behin — segitu zuen, ahots apalez—, baina ezin dut esan gustatu zitzaidanik. Ispilu guztiak estaliak egoten dira, edozein aldetara begiratuta ere hilotza ikus ez dadin. Baina hemen elizkizuna askoz politagoa da, hildakoa leku guztietatik ikusten delako. Apustu eginen nuke hilkutxa hau gutxienez zilarrezko hogeitazko florin kostatzen dela. Polita benetan! Baina merezi zuen gizarajoak! Begira, ispilu horretatik irribarre egiten digula ematen du. Heriotzak ez du batere aldatu; luzatu bezala

egin du, hori da dena. Lo dagoela ematen du, ezta?

— Nik ez nuen ezagutu Vels jauna —esan zuen andre ezezagunak.

— Ez? Nik bai, oso ongi gainera. Ezkongai zelarik ezagutu nuen, eta bere andrea zena ere bai, hura ere ezkongai zenean. Ezkontza-eguna gaur balitz bezalaxe oroitzen naiz andreaz; negar batean aritu zen argitu zuenetik. Egin kontu! Halako egunean negar egitea, bederatzi urte eman ondoren elkarrekin. Hori ergelkeria!, ezta? Gizona bederatzi urte egon zen haren zain; hobe zuen laurogeita hemeretzi egon balitz! Emakume hura ongi mutur-beltza zen. Egia da ahizpa guztietan argiena eta politena zela eta inork baino hobeki gobernatzen zuela bere etxea, baina merkatuan merkezurrean ibiltzen zen, ordubetez eztabaidan txakurtxiki batengatik, bokata-zuritzailleekin ere borrokan azken xentimoagatik, eta neskameak ogi-erdiz edukitzen zituen. Vels jaunaren etxea infernuko zuloa zen! Etxe hartan neskame egondako bi neskatxa izan nituen nik, eta dena dakit. Ez zion senarrari bakerik ematen ixtant batez ere. Gizonak, azke-

nean, beldurra hartu zion eta andreak garrasi egiten zionean, erantzun ere ez zion egiten, eta orduan eta amorru biziagoan andrea. Erromantikoak esaten zaiona zen andrea; jende guztia beraz errukitzea bilatzen zuen. Kexu zen beti, senarrak min-oinazeak besterik ez omen zion sortzen. Amorrazioz Vels jaunak pozoitu egin balu, poztu egingen zen, eta senarrak bere burua urkatu balu ere bai; horrela, bederen, jendea beraz errukituko zen.

Ruska andrea berriz bere ondoko ezezagunari begiratzeko jiratu zen, baina ordurako ez zegoen han. Hainbeste berotu zen hizketan, non Ruska andrea ez zen ohartu ere egin bere aldamenekoa lotsaz gorri-gorri egin eta erretolikaren erdian alde egin zuela. Orain andre ezezaguna ondoko gelan zegoen, Uhmühl jauna —Estatuko kontu-hartzaile eta Vels jaunaren ahaide— solaskide zuela.

Ruska andrea hildakoaren aurpegi mutuari begiratzeko jiratu zen eta berriz negar-malkotan hasi zen.

— Gizagaixoa! —esan zion ozen samar Hirt kandelagilearen andreari—. Honi ere ailegatu

zaio bere bekatuak ordaintzeko ordua! Zeren, Vels ez zen preseski gizon zintzoa! Gutxienez Tonda gaixoarekin ezkondu balitz haurdun utzi zuenean.

— Gaur gauean sorginak etorri dira ala? — lehertu zen ahots bat atzetik, gizon-esku hezurtsu bat emakumearen sorbaldan pausatzen zen bitartean. Bertan ziren guztiak berehala jiratu eta Ruska andrea ikusi zuten, eta Uhmühl jauna haren aurrean jadanik, andreari besoaz atea seinalatzen ziola eta ahots lakar baina zorrotzaz esaten ziola:

— Segi hemendik!

— Zer gertatzen da? —galdetu zuen atetik orduan Uhmühl jaunaren anaiak, Mala Stranako polizi komisarioa, bere anaia bezalaxe hezur eta azal hutsa zena.

— Sorgin mihi-gaizto hori hona sartu eta gaizki esaka ari da hildakoaren gainean. Nabala bezalako mingaina du.

— Moztuiozu, ba.

— Hileta guztietan berdin egiten du —esan zuten bertan ziren batzuek.

— Behin kanposantu batean ere sortu zuen iskanbila!

— Kanpora, alde! Laster! —agindu zion komisarioak, Ruska andreari eskutik helduta. Andreak negar-zotinka segitu zion, ume baten gisan.

— Hau eskandalua! Eta hain hileta politean! —esan zuten bertan gelditzen zirenek.

— Orain, isilik! —agindu zion komisarioak Ruska andreari, erretorea eta kapilauak heldu zirela ikusita. Eskaileraraino lagundu zion eta, andreak hitz egiteko eginahal guztiak egin bazituen ere, komisarioak ez zion txintik ere esaten utzi eta indarka etxeko ateraino eramane zuen. Han guardia bati deitu eta esan zion:

— Eramazu emakume hau bere etxera, hileta bitartean istilurik sortu ez dezan.

Ruska andrea piper gorria bezain gorri jarri zen eta ez zen ohartu zer gertatzen ari zitzaion.

— A zer iskanbila! Eta hain hileta politean! —zioten jendeek plazan.

Uhmühl anaiak —Uhmel udal-izkribauaren semeak eta Umel tindatzailearen ilobak—, ikusten denez, oso zorrotzak ziren. Eta Ruska andrearen kontra Mala Stranaren haserrea piztu

zuten, edo mundu osoarena ere esan liteke, baldin eta Mala Stranak —nik, bertako semea, nahi nukeen bezala— mundu osoa hartuko balu.

Biharamunean, Ruska andreari Zubiko Kaleko komisariara ager zedin dei egin zioten.

Joan-etorri handia zegoen han beti. Udan leihoak irekita lan egiten zutenean, kale osoan aditzen zitzaien. Atxilotzen zituzten guztiei ikaratzeko moduko oihuak egiten zizkieten. Garai hartan, artean ez zegoen gaurko egunean polizi legeek galdatzen duten gizalegezko tratua. Maiz, leiho azpian, espaloian, Josef harfenista jartzen zen, Mala Stranako iraultzaile itzaltsua. Eta gutako norbait —gazteak— han barna pasatu eta begira gelditzen bazitzaion, Josefek begia kliskatzen zion, behatz lodiarekin goitiko keinua egin eta lasai botatzen zuen: «zaunkaka ari dira». Ez dut uste horretan mesprezu-arrastorik zegoenik; besterik gabe, Josef ahalik modu adierazgarrienean hitz egiten saiatzen zen.

Eta hantxe zegoen Ruska andrea, bere mantelinarekin eta begizta berde argiekiko kapelua-rekin, 184...ko maiatzaren 4ko arratsaldean, komisario zorrotzaren aurrean.

Ahitua zirudien, lurrera begira zegoen eta ez zuen erantzuten. Eta komisario jaunak bere errietaldi gogorra bukatu eta esan zionean «Hobe duzu zure bizitza osoan hileta batera ez agertu! Orain, segi hemendik», alde egin zuen. Garai hartan komisario batek pertsona bati hil zedin ere debekatzen ahal zion. Kontuak atera, beraz, hileta batera joatea!

Bulegotik atera zenean, komisarioak bere menpekoetako bati esan zion:

— Berak ez du kulparik. Zerra bat bezalakoa da: azpian jartzen zaion guztia ebakitzen du.

— Gormutuen aldeko isun bat ordaindu beharko luke! —esan zuen menpekoak.

Irri-algarak egin zituzten biek, umore onean berriz.

Ruska andrea ez zen denbora luzean bere onera etorri, ez zuen barreneko bakea berreskuratatu. Baina noizbait ere —dena iristen da—, bere bidea aurkitu zuen.

Handik urte erdira edo, etxez aldatu zen eta gela bat alokatu zuen, Oujezdeko Atearen ondoran hain zuzen. Han barna pasatu behar zuten hil-segizio guztiek. Eta hil-segizio bat pasatzen zen

aldiro Ruska andrea agertzen zen bere etxeko atean eta negar egiten zuen, bihotz-bihotzez.

Arratseko berriketak

Ekaineko gau epela. Zeru sabaian izarrak ñir-ñirka ari ziren eta ilargia, aurpegi irrikorraz, dir-diratsu zegoen; gau giroan argitasun zoragarria zen nagusi; udaberriko maitagarriek gauean beren zilarrezko hari miresgarriak ehundu zituztela esan zitekeen.

Nolanahi ere, Ilargiaren poza handiagoa izanen zen begiratu bat eman balie Ostruha kaleko teilatuei, batez ere elkarren ondoko bi etxeri: *Bi Astroak* eta *Soto Sakona*.

Teilatu haiek oso bitxiak ziren —jauzi eginez batetik bestera pasatzea zegoen—, sartu-atera xeble asko zituztelako. Bereziki harrigarria zen *Bi Astroak* etxeko teilatua, hamaika profilekoa, aulki itxurakoa, kale aldera bi teilatu-gandor zituena eta patio aldera beste bi. Erdian, bi teilatu-gandorren artean, ur-erreten zabal-zabala zegoen, zaldain estu batek erditik bitan egina. Zaldainaren ganean, dena dela, beste teilatu bat zegoen, are txikiagoa, besteak bezalaxe teila luzexkek estalia ezin konta ahala ur-erreten egi-

nez. Zaldainetik bi ate handitan zehar pasatzen zen erdiko ur-erretenera, zeinak etxea erdiz erdi gurutzatzen baitzuen Pragako *gizon dottoreenen* buruko artesi ongi orraztuak bezala.

Halako batean, ateetako baten ondoan, soinu bat aditu zen, soinu ttikia, sagu baten karraxi baten antzekoa.

Eta beste behin aditu zen soinu txiki hori.

Patoria ematen duten ateetako batean gizon baten burua eta bularra agertu ziren. Trebeziaz ur-erretenera saltatu zen. Hogei urte inguruko gazte bat zen, meharra, aurpegi beltz eta ile kizkur ilunekoa; sudurpean bibotearen lehen arrastoak ateratzen hasiak zitzaizkion. Buruan mairu-kapelu bat zeraman eta eskuan tutu beltz bat, muturrean igeltsozko pipa bat zuena. Jaka grisa, txaleko grisa eta galtza grisak jantzita zihoan. Zuentzat, hemendik aurrera, Jan Hovora, Fisosofiako ikaslea.

«Garrasia egin eta inor ez duk ageri» —esan zuen ahapeka. Aurrera egin zuen, paper orri erdia itsatsia zegoen tximinia bateraino. Bat-batean eskuaz begiak igurtzi eta hurbilagotik begiratu zuen.

«Hemen norbait ibili duk; norbaitek aldatu zidak...», berriz. «Ez, ez zidatek aldatu; nire papera duk. Baina...». Eta are gehiago hurbildu zen. Bat-batean beste eskuaz zapla jo zuen bere kopetan. «Aaa! Eguzkia izan duk; eguzkiak jan dik poesia polita. Mokofina halakoa! Petöfy olerkariari berdin-berdin gertatu zitzaioan. Kupka gaixoa! Orain kantu hori gabe pasatu beharko dik bere santu-egunaren bezpera. Lastima, hain zen polita!». Orduan papera hartu, hautsi eta tei-latu gainetik bota zuen.

Eseri, pipa bete eta piztu egin zuen. Gero tei-len gainean luze etzan zen, oraindik eguzkiaren berotasun pixka bat atxikia baitzuten, eta hankak ur-erretenean paratu zituen.

Beste sagu-karraxi bat aditu zen eta Hovorak soinu berdina eginez erantzun zuen, lepoa jiratu gabe. Beste gazte bat atera zen, txikixeagoa, zuri-zuria, kalpar horikoa, buruan kapelu urdin bat zuena, 1848. urtean Unibertsitate Teknikoko legionarioek erabiltzen zituztenen antzekoa. Jaka motx bat eta drillezko galtza zuriak zeramatzan; ahoan zigarro bat pizturik.

— Servus, Hovora!

— Servus, Kupka!

— Zertan ari haiz? —galdetu zuen Kupkak, ingeniari beharrak, Hovoraren aldamenean etzan bidenabar.

— Zertan ari naizen? Orain dela egun pare bateko patata-purea jan diat eta hemen nagok zain, kalte noiz egingen. Hik zer afaldu duk?

— Nik Jainkoak bezala afaldu diat.

— Eta zer afaltzen du Jainkoak?

— Deus ez.

— E, aizak, zer habil geldirik egon ezinik?

— Botak erantzi nahi nitizkek. Premia ederra diagu, bai, kaltzadore batena. Gure etxean gutxienez traste hori baldin bagenu!

— Kaltzadorea ez duk etxeko traste bat, familiako kide bat baizik.

Hovorak nagiki lepoa jiratu zuen bere lagunari begiratzeko.

— Zer tabako demontre erretzen ari haiz? —galdetu zion.

— Merkeena. Ba al dago okerragorik? Halaz guztiz, gustatzen zaidak gure etxea —esan zuen Kupkak, teilatuari begira. Eta gero, begirada

zerura goratuz, solasean jarraitu zuen—: polita benetan sabai hau!

— Etxea merkea duk gainera.

— Zenbat eta handiagoa izan gela, orduan eta merkeagoa. Jainkoak gela handiena dik eta ez dik deus ordaintzen.

— Hi nonbait mistiko jartzen haiz hire santuegunaren bezperan.

— Ai teilatuak, ene teilatuak! Nire amodio bakarra! —zioen Kupkak, gogo beroz, zigarroa airean astinduz—. Bizitzan hain eginkizun beltza ez balute, kedar-garbitzaileei inbidia izanen niekek.

Hitzak emeki irristatzen ziren, ttar-ttar goxotan, ahots apalean. Polita eta bitxia da ohartzea gizonak, konturatu gabe ere, ahots apalean mintzatzen direla beti oihan handi baten bihotzean, leku bakartietan eta mendi-gailurretan egoten direnean.

— Gauaren ederra! —segitu zuen Kupkak—. Hau isiltasuna! Uraren murmurioa sumatzen duk, amets artean bezala! Eta hor Petrinen, ez diek aditzen urretxindorrei? Hori buila goxoa! Aditu!

— Hiru egun dituk San Vitoak bukatu zirela. Kantuak bukatu zituan; urretxindorrenak ez, ordea. Hau edertasuna! Urrea emanda ere ez nindukek biziko Stare Meston.

— Arrazoi duk. Han inguru guztian, hainbat miliatan, ez zegok txori bakar bat ere. Txori batek zer tankera duen ere ez zekitek.

— Hemen bederen bi bazeudek —aditu zen ahots sendo bat, baritono batena bezalakoa.

— Novomlynsky, servus! —esan zuten Hovorak eta Kupkak.

Iritsi berria, hogeita hamar urtetik goitiko gizona, lau hankan atera zen teilatura, oso polliki.

— Alajainkoa! —purrust egin zuen orduan, haiengana bilduz pixkana—. Hau ez duk niretzat egina; ez nagok ohitua.

Novomlynsky gizon puska zen, lodi samarra; aurpegi beltzarana, bizarra egina, borobila; begi urdin alaiak zituen, eta sudur azpian bibote mardula. Buruan mairu-kapelua zeraman honek ere, eta jakabeltza eta galtza argiak zituen.

— Ez, ni ezin nauk etzan zuek bezala teilen ganean joka beltz honekin. Eser gaitezen behar den bezala!

Kupka eta Hovora berehala altxatu ziren. Beren aurpegietan lehengo lasaitasuna irribarre xume bihurtua zen, eta biek atsegin handiz begiratu zioten ailegatu berriari. Zalantza-izpirik gabe mutilek begirune handia zioten, adinez handixeagoa zelako. Novomlynsky haien aurrean jarri zen, bigarren teilatuko maldaren ganean, eta zigarro bat piztu zuen.

— Zertan ari zarete hemen?

— Mala Strana goraipatzen ari ninduan — erantzun zuen Hovorak.

— Ni Ilargiari begira nengoan —esan zuen Kupkak—. Bihotza bizirik duen Amandre hilaren etxeari begira.

— Orain jende guztiak uste dik Ilargiari begiratzeko eskubidea duela —ihardetsi zuen Novomlynskyk, irriz—. Zuek bulego batean lan egin beharko zenukete, nik bezala, numeroekin borrokan.

Ez zuen apaltzen batere bere ahots ozena. Mendi gailurretan eta baso sarrien bihotzean ere ozen mintzatuko zen Novomlynsky.

— Zer berri dugu? Egia da Jäkl bart itotzeko zorian egon dela Errege Errotan? —galdetu zuen.

— Bai, zera —erantzun zuen Hovorak—; igerian, dena dela, errotarri bat bezalakoa duk. Nire ondoan zegoan, bai, irrist egin eta uretara erori zenean. Ikaratzeko moduko orroa egin zian; hondoratu zuan eta burbuila handiak igo zituan urazaleraino. Haiek lanak atera genuen arte! Ez duk hala, Kupka? Orduan galdetu genioan zer zuen gogoan itotzen ari zenean eta esan ziguanez irri egiteko gogoia sartzen zitzaiola; hargatik orro haiek!

Hirurok egin zuten irri; Novomlynskyren irriak kanpaiek adinako soinua egiten zuen.

— Eta zer iskanbila izan da gaur ere maisuaren etxean? —galde egin zuen berriz—. Hik, Hovora, jakinen duk noski.

— Barregarria —erantzun zuen Hovorak, maltzur-imintzio bat eginez—. Andreak amodiozko gutun batzuk aurkitu ditik bere senarraren langelako mahaian. Emakume batenak zituan, mai-

tasun-deklarazio sutsuz beteak; eta, barregarriena, andreak berak idatziak. Orain dela hogeita bat urte idatzi zizkioan, eta gaur aurkitu ditik... oraindik ireki gabe! Kontu egin nolako amorrua eman dion!

— Komedia bat ekitaldi bakarrekoa —esan zuen irriz Novomlynskyk.

Zangoak luzatu eta Kupkari dei egin zion. Kupka erretenaren bukaeraraino joana zen eta han, teilatuko erlaizaren gainean, lepoa luzaturik, patio barrenera begiratzen ari zen. Laster itzuli zen, kontent bere ikustaldiaren emaitzarekin.

— Kupka, zer arraio ari haiz hi hor? Zeri begira hengoen? Egunen batean erortzen ez bahaiz!

— Zeri begira nengoen? Liburugileak zer egingen duen. Segur aski zuek ez dakizue tipa horrek hogeitaz hamar egunero-egunero Husen biografia irakurtzen, eta irakurtzen hasi eta segituan negarrari ematen diola. Gaur negarrez hasia ote zen begiratzen aritu nauk baina oraindik ez duk hasi.

— A zer zozokeria! Hobe zenukete beste norabait begiratu —esan zien Novomlynskyk

behatzak kliskatuz—. Ez diozue erreparatu pareko eltzegilearen inude berriari? Polita benetan! Txori eder bat ematen dik.

— Novomlynsky etxeakoandre on baten modukoa duk: neska egokia aurkitzea dik problema latzena! —murmuriatu zuen Hovorak urrikalmenduz.

— Hik uste baino okerragoa duk! —sartu zen tartera Kupka—. Loa ere galarazten ziotek-eta! Goizeko bostetarako kalean izaten duk, badakielako neska politenak goiz-goizik joaten direla ur eske iturrira, inork ikus ez ditzan pegarrekin.

— Zaudete isilik! Nik ez diat lo premia handirik izaten eta horregatik egoten nauk goiz kalean. Gainera... —Novomlynskyk bere zigarroaren hautsa kentzen zuen poliki teiletan...—, denbora haiek joan zituan! Garai haietan neskek txotxolotu egiten nitian. Urtean zortzi eskularrupare ibiltzen nitian. Bai, eta egia esanda, oraindik ere arrakasta handia diat neskekin. Baina zer egin behar zioat nik? Nahi nikek nik zuek ni trantze horietan ikustea. Maitasun-aitormen bat egiten dudanean izugarria nauk. Baina —segitu zuen lasterrago mintzatuz—, ez duzue pentsatu

zer egin gaur arratsean entretenitzeko? Noren lana da gaur hizketagaia jartzea?

— Jäklena.

— Orduan ez duk etorriko —esan zuen borobiltasunez Novomlynskyk—. Guk behin talde bat egin genian elkarrekin afaltzeko. Aldi bakoitzean batek ordaintzen zian. Eta ordaintzea tokatzen zitzaiona ez zuan inoiz agertzen inondik inora. — Hori esatean halabeharrez burua altxatu eta...— Abokatua! —esan zuen harriturik.

Pareko teilatuaren gainean hirugarren mairukapelu bat agertu zen eta haren azpian Jäklen aurpegi zabal eta gorria irriz, bigarren ilargi bat iduri.

— Hator hona agudo! —oihu egin zioten hirurek.

Jäkl agertzen joan zen, poliki-poliki. Lehenbizi sorbaldak ikusi zitzaizkion, ondoren bularra eta gero gerria.

— Bukatuko ote du inoiz? —esan zuen Novomlynskyk—. Tipo hau epeka atera litekek.

Azkenean eskuineko zangoa agertu zen eta haren atzetik ezkerrekoa; baina, halako batean, bi zangoak irristatu eta, izugarrizko soinua ate-

reaz, Jäkl teilatutik ur-erretenera erori zen bere lagunaren oinetaraino.

Haiek irri-ajataka ari ziren. Teilatu osoa irriz zegoela zirudien; baita ilargia ere, goian, zeru-sabaian.

Irri gehien egiten zuena, betiere, Jäkl bera zen, oraindik ahuspez eroria, boten muturrekin kixki-kixki emanaz ur-erretenaren zinkean.

Muturreko batzuk eta ostiko bat edo beste behar ziren, lagunkiro emanak, Jäkl altxa zedin. Eta hartu ere egin zituen, bai muturrekoak bai ostikoak. Patxadan altxatu zen, bere kankailu-gorputza zutik jarri eta, udako traje horixka antxari hautsa kendu bidenabar, esan zuen:

— Ez zaiok askatu josturarik —eta pozik jarri zen Novomlynskyren ondoan.

— Bota! Ea zer bururatu zaian gaur gauean entretenitzeko.

Jäkl, bere eskuekin belaunak besarkatuz, denbora-puxka batean aurrera-atzera kulunkatu zen; ondoren solasean hasi zen, lasai:

— Pentsatu diat gutako bakoitzak txikitako lehen oroitzapenak konta ditzala. Konparaziora, lehenbiziko emaztegaiarekin...

— Banengoan, ba, ni ergelkeriaren batekin aterako zela —moztu zion Novomlynskyk—. Gezurra zirudik! Zuzenbideko ikaslea, karrera bukatua duena, dagoeneko hainbat oposizio irabazi dituena...

— Bo! Hi ere ez hintzen ikasita sortuko mundura! —erantzun zuen Jäklek erretxindurik.

— Ni? Ni amak hamasei hilabetez eraman nindian bere sabelean, eta mundura etorri nintzenerako banekian hizketan. Ondoren hogeita lau urtez ibili nauk Latin Eskolan eta egiten dudan hitz bakoitza hoge*i krejcar* kostatu zaiok gure aitari.

— Ba, nik uste Jäklek proposatzen duena ez dela hain tontoa —esan zuen Hovorak, bere pipatik errautsa atera bitartean—. Zergatik ez probatu? Pentsatzekoa duk, Jäkl, hik honezkero jakinen duala zein den hire txikitako lehenbiziko oroitzapena.

— Nik? Jakina —segurtatu zuen Jäklek, oraindik kulunka—. Bi urte ere ez nituela gertatu zen gauza batez oroitzen nauk. Gure aita ez zegoan etxean eta amak mandatu bat egitera joan behar zian etxe aurrera eta, ezin ninduenez era-

man, bakarrik gelditu ninduan. Aspertu ez nendin, amak sukaldetik antzara bizi bat ekarri zidaan, gizentzeko hantxe zuena; jostatzeko utzi zidaan. Baina bakardadeak beldurra ematen zidaan eta antzara nire indar guztiekin besarkatu nian. Eta ni izu-marruka eta antzara karraka ero moduan; pintzelek koadro batean betikotzeko moduko irudia egiten genian biok.

— Ederki —onartu zuen Novomlynskyk.

Isiltasun erabatekoa nagusitu zen. Hovora hirugarren aldiz saiatu zen bere pipa pizten, eta lortu eta ke-bafada bat botatakoan esan zuen:

— Nik ere badiat nire oroitzapena. Behin aitarekin nengoan Urtsulinen monasterioan eta monjek beren magalean jarri eta musu eman zidatean.

— Hori politagoa duk antzararena baino —esan zuen berriz Novomlynskyk—. Eta hik, Kupka, baduk holakoren bat?

Kupka irriz hasi zen.

— Gure aitona sakristau egon zuan Rakovniken. Oso zaharra zuan, eta egun batean kaskoan sartu zitzaioan berak jo behar zituela bere heriotza iragartzeko kanpaiak. Bururatu eta egin.

Kanpaiak jo, etxera joan eta hil egin zuan. Niri hilotza erakutsi zidatean; ordurako beztitua zegoan eta hanketan galtzerdi zuriak zitian; nik bi hanketako bateko behatz lodian musu eman niezaion jantzi zizkiotean; ez nauk oroitzen zer superstizio den hori! Ondoren hilkutxaren ondoran jarri ninduan jostaketan, hura egiten ari zen zurginaren lantegian.

— Ongi goazak gaur —esan zuen Jäklek pozik—. Orain Novomlynskyren txanda.

Novomlynsky betilun antxean zegoen, isilik. Baina azkenean, berak ere hitz egin zuen, bere lagunek eskatuta:

— Nik ez diat aspaldiko inongo oroitzapenik, ez batekorik ez bestekorik. Hobeki esanda, bi ditiat, baina ez zakiat bietan zein den lehenagokoa. Gogoan diat etxez aldatu ginela, Eskaileren Etxetik Elefantearenera, eta nik ez nuela alde egin nahi harik eta nire sehaska eramaten zuten arte. Orduan arrebari itsuskeriaren bat esan nioan, zerbait oso itsusia. Amak belarrondoko bat eman zidaan eta aitak paretari begira jarri nindian zigortuta. Kreatura xelebrea duk bene-tan haurra! Gizon helduaren kopia barregarria

inondik ere! Hain inozoa, ondorioek hain gutxi kezkatzen dutena. Aingeru Guardakoan sinetsi beharra ere! Nire lehenbiziko otoitz-liburua alemanieraz idatzia zegoan, baina orduan ez nekian hitzik ere hizkuntza hartan eta, jakina, urte oso batean, jakin gabe, *Ume esperoan daudenentzako otoitza* errezatzen aritu ninduan, «*Gebet für schwangere Frauen*». Beharrik ez zaidan deus gertatu!

Jäkl berriz bota-muturrekin ur-erreteneko zinka kiski-kiski jotzen hasia zen. Novomlynskyk irribarrez begiratu zion.

— Jäkl gustukoa diat, txiste bat kontatu eta berehala aurpegian nabari zaiolako nolako eragina egin dion.

— Txisteaz irri egiteko asmorik ere ez nian — ihardetsi zuen Jäklek—; sekulako zentzugabeberia bururatzen ari zaidalako ari ninduan irriz. Antzinako erromatarrek ere haurrak izanen zitiztean, ez da hala?

— Jakina.

— Eta haur horiek hasieran segur aski ez zitean jakinen hitz egiten Zizeron zaharrak bezala, eta haurren gisan mintzatuko zituan, zezelka,

gureak bezala. Imajina itzazue haur haiek zezelka nola esanen zuten «*Hannibal ante portas!*» haurren latinean. «*Hannibal ante portas!*» Jexus, Maria eta Joxe!

Jäkl zinkean joka ari zen, indarrez. Denek irri egin zuten; eta teilatua eta Ilargia eta izarrak oro ere irriz zeudela zirudien, denak batera esanez bezala: «*Hannibal ante portas!*».

— Gaur ongi zoak dena —esan zuen Hovorak.

Jäkl pixka bat lasaitu eta berriz eseri zen. Kupkari begiratu eta esan zuen:

— Zergatik isildu? Berdin-berdin jakin behar duzue. Gauza bat aitortu behar dizuet: maitemindua nagok. Tira, ez nagok maitemindua baina ezkondu beharra diat; zera, hori ere ez duk; egia esanda, ez zakiat nola azaldu.

— Polita da? —galdetu zuen berehala Kupkak.

— Zer uste duzue zuek? Nolatan egin behar ziguan berak adiskide minoi emakume itsusi batekin ezkontzearen iraina! —sartu zen tartera Hovora bere lagunaren defentsan.

— Ezkondu! Um! Nik ez diat deus famili bizi-tzaren kontra, baina senarrek traba egiten zida-

tek beti —mintzo zena Novomlynsky zen, jakina—. Eta sosik badu?

— Dirua? Zer inporta du diruak? Ni ez nabilek diruaren atzetik, dotearen atzetik. Urte gutxitan bukatzen duk eta garagardotan xahutzeko baizik ez dik balio.

— Horren gaztea eta dagoeneko horren pres-tua!

— Eta nor da neska? —galdetu zuten beste biek batean.

— Lizinka.

— Zer Lizinka?

— Peralkatarrena; Lastoaren Kaleko jostunaren alaba. Ezagutzen duzue?

— Ez, ezagutu gabe! —baieztatu zuen Hovorak—. Hiru ahizpa dituk. Zaharrena, Marie, ezin diat ikusi. Ikusi bezain laster aho zabalka hasten nauk. Bigarrena Lizinka, eta gero Karla, azal eta hezur besterik ez dena.

— Horixe! Pentsa! Ahoa ireki nahi duenean ezpainak listuaz busti behar izaten ditik. Baina ikusiko duzue; bera ezkonduko duk lehenbizikoa —esan zuen Kupkak.

Novomlynskyk, trantze horietan aditua baitzen, behatz bat altxatu eta, predikatzailer baten gisan, adierazi zuen:

— Hiru ahizpa direnean, lehenbizikoa beti *itsusiena* ezkontzen duk. Horretan ez zegok dudarik.

— Segi, zuek segi astakeriak esaten, segi! — murmuriatu zuen Jäklek—. Nola nahi duzue muturra sartzea isiltzen ez bazarete.

— Lizinka polita duk.

— Horixe dela polita!

— Eta noiztik maite duzue elkar?

— «Orain hemezortzi urte izanen dituk... — Jäklen aurpegian ironia-lauso bat nabari zen—. Ni lehen hezkuntzako bigarren urtean ninduan eta Lizinka lehenbizikoan. Ezagutu nuenean negua zuan, eta berehala maitemindu ninduan hartaz... betikoz. Hura neska liraina! Burutxo mitxoleta bat bezalako; ilea, txirikorda luze urre-kolorekoetan bildua; matrailak, bi arrosaren pare. Buruan kapelu ttiki berde bat zian, zetazkoa, eta sorbaldatik zintzilik begizta berde-hori bat. Bere bizkar-zorroan, brodaturik, artilezko zakurto zuri bat zeru urdin batean. Jainko mai-

tea, a zer polita artilezko zakurto hori! Neskak luze gabe ikasi zian nolako sentimenduak piztu zituen nire bihotzean. Behin nire bihotza eskaintzeko asmotan joan nintzaioan, eta bera ihesi atera zenean, harrapatu eta kapelua kendu nioan. Egun hartatik aurrera irribarre egiten zidaan, ulertzen zidaan. Artean ez ninduan atrebitu hari hitz egitera, eskolatik ateratzen gine-nean elur-bolak botatzera baizik ez.

»Bi urte geroago ni baino mutil gazteagoko bati eskolak ematen nizkioan, *Lastoaren kaleko* muturrean bizi zen bati. Bestela bezala Peralkatarren etxearen aurretik pasatzen hasi ninduan, eta Lizinka beti etxe aurrean egoten zuan. Kapelurik gabe eta begizta gabe are politagoa iruditzen zitzaidan. Bere begi garbiek, zeruaren urdina bezain garbiak, beti alai begiratzen zidatean; indar hura ni baino gehiago zuan, hala begiratzen zidan bakoitzean gorri-gorri jartzen bainintzen. Gure adiskidetasuna estutzen joan zuan. Gogoan diat behin urinaz igurtzitako ogia jaten aurkitu nuela. Hurbildu ninduan. “Emanen dizazu pixka bat, mesedez?”, esan nioan. “Har ezazu”, erantzun zian berak, eta zati txiki-txiki

bat eman zidaan. “Gehixeago nahi nuke”, gehitu nian txantxetan. “Ni deus gabe gelditzeko? Goseak amorratzen nago, ba”. Eta irriz hasi zuan. Pozez txoratzen joan ninduan, oparitu zidan ogi-puskatxoak hari urrutitik erakusten. Lastima izan zuan handik gutxira eskolak ematen nizkion mutilaren gurasoek beste irakasle bat hartzea beren semearentzat. Jostatu besterik egiten ez genuen susmo txoroa zitean.

»Harrezkerotik ez genian elkar ikusi ia hamabost urtez, berriki arte. Joan den maiatzaren lehenean izan zuan, igandea. Arkuaz haratago paseo bat egitea bururatu zitzaidan, *sarkan* —ez zakiat zergatik—; segur aski bihotzen magnetismoagatik izan zuan. Kontua duk paseoan hasi nintzela eta *sarkan* Peralka zaharra, bere andrea eta Lizinka topatu nituela. Neskatxak arrosa ireki berria ematen zian! Begiak aspaldi bezain inuxenteak zitian, haur batenak bezain garbiak. Eta nik bere aurrean hemezortzi urte lehenagoko, gaztetxo bat nintzeneko, sentrazio bera izan nian.

»Jarri nintzen mahaian jendea gaizki esaka ari zuan Peralka zaharraz. “Mintzatzen denean,

behatz erakuslea beti kopetan paratzen du, jendeak buruan zerbait dabilkiola pentsa dezan. Tontoa halakoa, agure hori!”, zioan nire auzokotako batek. “Zaharrak bere alabak jotzen omen ditu —gaineratu zuen beste batek— inork ateratzen ez baditu dantzara”. Altxatu ninduan. Lizinka gaixoa! Aldamenean gazte talde bat dantzan ari zuan. Zuek dakizuen bezala, ni ez nauk batera dantzazalea, honen handi eta baldarra izanda barregarri ematen dudalako, baina une hartan bost axola zitzaidan itxura ona edo txarra eman behar ote nuen. Mahaian, Peralkatarrekin, zahar hura zegoan —nola du izena kapitain zahar erretiratu hark?, a bai, Vitek!—. Marierekin solasean ari zuan. Vitek jaunak eta biok elkar ezagutzen genian eta horregatik hurbildu eta Peralkatarrak agurtu nitian. Lizinkak irribarre egin zian eta gero gorritu. Handik denbora-puska batera dantzara gonbidatu nian. Bere amari begiratu eta baietz esan zioan dantza-eskaerari; niri hori hagitz ongi iruditu zitzaidan.

»Dantza ia isilik egin genian. Baina gero bueltaxka bat eman genian ibai-bazterrean zehar eta han solasean hasi gintuan. Nitaz oroitzen ote zen

galdetu nioan eta berak, burua alde batera pixka bat makurtuta, bere begi xaloekin niri begiratu besterik ez zian egin. Berriz gaztetxo bat sentitzen ninduan; elur-bolak aipatu nizkioan, urinaz igurtzitako ogi-pusketa, artilezko zakurtxoa... Sinetsia nagok berak ere gauza bera sentitzen zuela. Gero bere etxeraino lagundu nioan. Ibilian pixka bat nekatu zenez, besoa eskaini nioan. "Hola, hola: gazteak elkarrekin!", esan zian kapitain zahar ipurterreak. Gizon maiteminduak aise hartzen ditik gaizki asmo oneko hitzak ere.

»Handik egun batzuetara Lizinkaren gutun bat hartu nian. Honela esaten zidaan: "Hirurretan, San Nikolas elizan". Pozez txoratzen nengotan. Elizatik Valdstejn Parkera joan gintuan; han betiereko maitasuna agindu genioan elkarri, eta zin egin nioan irailean karrera bukatu eta bi urte baino lehenago ezkonduko ginela. Berak, orduan, bere aita-amengana eraman nindian; ikusi nuenez, Peralka zaharra oso gizon atsegina zuan eta ama oso andre errespetagarria; Marie zuan gustukoa ez nuen bakarra. Modu bitxian begiratzen zidaan beti!

»Handik laster —duela lau bat aste—Lizinkak korrika eta presaka joan behar izan zian hil hurren zen bere izeba bat ikustera.

»Eta atzo nire adiskide Bures, medikuntzako ikaslea, ikustera etorri zitzaidan eta, besteak beste, zera bota zidan aurpegira: “Ezagutzen duk Lizinka Peralka?”. Ezagutuko ez diat, ba! “Ume bat egin berri dik, ba, Ospitaleko Institutuan!”.

Jäklen adiskideek arretaz segitu zioten narrazioaren hariari, baina hondarreko hitzak aditzean goiti begira hasi ziren..., nora begiratu ez balekite bezala.

— Eta arratsaldean —bukatu zuen Jäklek—Vitek kapitain zaharra ailegatu zuan, Lizinkaz, Lizinkaren osasunaz eta jaioberriaz galdeka.

— Etxe-jabearen neskameak entzuten ari dituk eta irriz zeudek —esan zuen ahots apalean Novomlynskyk. Eta hori esanik, leihatilatik desagertu zen, deabruak harturik bezala. Haren atzetik Kupkak eta Hovorak gauza bera egin zuten.

Bazirudien ilargiak, zeruan, lepoa luzatu eta belarria zorrozten zuela, teilatu azpian irri isil

batzuk eta musu antzeko zerbait aditu balitu bezala.

Jäklek ere zerbait antzekoa adituko zuen apika. Bederen, bere belaunak berriz besarkatu eta, aurrera eta atzera emeki kulunkatuz, esan zuen: “Gaueko lapurretak zigor zinetan larria merezi du”.

Doktore zaputza

Gertakari benetan bitxi baten ondoren egunkariak haren berri eman zuten arte ez zen hasi jendea hari horrela deitzen. Heribert zuen deiturra, eta bataiarriko izena, berriz, bat arrunt-arrunta. Ez naiz hartaz oroitzen, ordea. Heribert jauna medikua zen edo, hobeki esanda, medikuntzako doktore titulua zuen, graduatua zen; baina ez zuen sendatzen ez ezer ez inor. Bera lehenbizikoa izanen zen aitortzen ikasle gisa erietxeak bisitatzen zituen garaitik ez zuela gaixo bakar bat ere izan esku artean. Norbaitekin hitz egin balu, argi eta garbi aitortuko zuen. Baina doktorea hagitz tipo berezia zen.

Heribert doktorea Heribert doktorearen semea zen, bere garaian Mala Stranako jende artean ospe handiko medikua izana. Ama oso gazterik hil zen, eta aita, aldiz, semearen adin nagusitasunetik denbora laburrera; Oujezden bizitza bakarreko etxetxo bat utzi zion, eta diru pixka bat ere bai beharbada, ez asko dena dela. Heribert doktorea etxe hartan bizi izan zen.

Beheko solairuan bi denda txiki zeuden eta lehenbiziko bizitzan kalera ematen zuen gela bat, alokatua, errenta xume bat uzten ziona; doktorea ere lehenbiziko bizitzan bizi zen, barren aldeko gela batean, zeinera estali gabeko zurezko eskaileretatik ailegatzen baitzen patiotik zuzenean. Ez dakit gelak nolako itxura zuen, baina ongi dakit doktorea oso apal bizi zela. Beheko dendetako batean barazki-saltzaile bat jarri zen, eta andreak doktoreari gela txukuntzen zion. Andrearen semea, Jozifek, adiskide nuen; elkarrekikoak aspaldi egin genituen, Jozifek artzapezpikuaren kotxe-gidari hasi eta izugarri harropuztu baitzen. Hark esanda dakit, dena dela, Heribert doktoreak berak prestatzen zuela bere gosaria, bazkaldu Stare Mesto auzoko ostatu merkeren batean egiten zuela eta afari legea edozein modutan pasatzen zuela.

Heribert doktoreak, nahi izatera, bezero franko izanen zuen Mala Stranan. Aita hil ondoren, gaixoek harengan jarri zuten konfiantza, baina berak ez zuen inor etxean hartu edo bisitatu: ez pobrerik, ez aberatsik. Pixkana-pixkana konfiantza agortu zitzairen, auzokoak ere ikasle galdu-

tzat hartzen hasi ziren, eta geroago irri murrিকা ere egiten zuten *Heribert doktorea* aipatzen zenean. «Hori doktorea! Katua ere ez nioke eramanen!». Heribert doktoreari hori, itxuraz, ez zitzaion asko inporta. Bere jokabidea ikusita, jendea bost axola zitzaion. Ez zuen inor agurtzen, eta bera agurtzen bazuten, ez zion agurrari erantzuten. Kalean barna ibiltzen zenean haizeak astindutako hosto zimeldua ematen zuen. Txiki samarra zen —neurri berriaren arabera, metro eta erdi besterik ez— eta kalean halako moldez ibiltzen zen, ezen bere gorputz iharra beti beste pertsonengandik gutxienez metro erdira egoten baitzen. Horregatik, bada, bere pausaje zalantzazko hori! Bere begi urdinetan zakur egurtuarena bezalako muzina sumatzen zitzaion beti. Aurpegia gordea zuen gaztainakolore argiko bizarraren atzean; aurpegi sobera bizartsua, iritzi guztien arabera zikin itxura ematen ziona. Neguan, soingaineko arre zabal-zabala janzten zuenean, bere buru ñimiñoa, oihalezko kapelu batek estalia, astrakan merkezkoko lepogan gordetzen zen; eta udan, traje koadrodun arin bat janzten zuenean, edo beste bat arinagoa,

drillezkoa, balantzaka zebilela ematen zuen, zuztar ahul batean bezala. Hilabete beroetan goizeko laurak aldean atera ohi zen gazteluko harresien ondoko lorategietara joateko, eta bertan jartzen zen, banku erosoenean, liburu bat eskuan. Behin baino gehiagotan gertatu zen Mala Stranako bizilagunen bat haren ondoan jarri eta solasean hastea. Baina Heribert doktorea altxatu, liburua itxi eta hitzik erantzun gabe alde egiten zuen. Aurrerantzean erabat bakarrik utzi zuten. Eta hainbestekoa izan zen kontua, ezen Mala Stranako neskazahar bakar bat ere ez zen saiatu Heribert doktorearengana hurbiltzen, nahiz eta berrogei bat urte besterik ez zuen.

Baina halako batean —lehenago esan dudan bezala— zerbait gertatu zen, egunkariak ere jaso zutena. Gertakari horietaz, bada, esan nahi dut zerbait.

Ekaineko egun zoragarria zen; dena irriz dagoela sentitzen duzun egun horietakoa: zeru sabaia, lurra eta jendearen aurpegiak. Egun hartan, bada, ilunabar aldera, punpezia izugarriko hileta-segizio bat pasatu zen Oujezden barna auzoko ateetarantz. Schepeler jauna ehortzi

behar zuten, Kontuen Auzitegiko kontseilaria, baina —Jainkoak barka diezadala—, itxuraz bederen, jarraigoak ere poz-irribarrea erakusten zuen. Zenduaren aurpegia, jakina, ez zen ikusten ahal, ez baita gure ohitura Hegoaldeko zenbait herritan bezala hildakoei zerraldo irekietan lur ematea, hilobira sartu aurretik eguzkiak hondar aldiz bero ditzan. Baina, momentuak eskatzen zuen seriotasun neurritzkoa kenduta, ukaezina zen gehienen poza. Jendeak, nolabait esateko, barrenera sartua zuen egun zoragarri hura. Eta barrenak bizitzaz gozatzea eskatzen zien.

Alaien, segur aski, Estatuko bulego desberdinetako funtzionarioak zeuden, lepoan hilkutxa zeramatenak. Eta ez zen gutxiagorako. Bi egun oso eman zituzten bulegoz bulego lasterka, baina orain pozik zihoazen, zamaren azpian pauso motelean, burutik kendu ezinik jende guztia begira zutela hau esanez: «Horra hor Kontuen Auzitegiko kontseilarigaiak». Pozik zirudien beste bat Link doktore luxea zen, kontseilari zenaren alargunak hogeit hamar ducat ordaindu baitzion Schepelerren gaixoaldiak iraun bitarteko lansari gisara; zortzi egun eskas iraun zuen gai-

xoaldiak. Link doktorea, halere, buru makur zebil-
len, buruan zerbait balerabil bezala. Ostroh-
radsky bizilaguna ere kontent zegoen; lanbidez
larrugilea zen, hildakoaren ahaide hurbilena.
Bere osaba bizi izan zen artean, ez zion kasu
handirik egin, baina orain bazekien testamen-
tuan bost mila florin utzi zizkiola, eta behin baino
gehiagotan, bidean, esana zion Kejrik garagar-
dogileari: «Ezin da ukatu, bihotz oneko gizona
zen!». Ostrovsky zerraldoaren atzean zihoan,
ondo-ondoan, eta haren aldamenean Kejrik moz-
kotea, osasun bete-betean, zenduaren adiskide
hoberen eta minena. Atzerago Kdojek, Muzik eta
Homann jaunak zihoazen, Kontuen Auzitegiko
kontseilariak, Schepeler zena baino maila apala-
gokoak nolana ere. Bistan zen horiek ere pozik
zeudela. Minez bada ere, esan behar dut Marie
Schepeler andreari ere, lehenbiziko zaldi-
kotxean bakarrik baitzihoan, kutsatu zitzaio-
la gehien poza; esan beharra dago, dena dela,
bere poza ez zela ekaineko eguraldi alaiaren
ondorio. Andrea, azken finean, emakumea zen,
eta emakume ororentzat jende guztiaren arreta
hiru egun osoz bereganatzeak ez du xarma

gutxi. Gainera, bere gorputz lerdenari ezin hobe-ki ematen zioten doluzko jantziek, eta bere aur-pegia, zurbil antxa beti, bereziki zoragarria zirudien dolu beltz-beltzaren aldean.

Kontseilari jaunaren heriotza benetan sentitu eta zoritxarrak eman zion zarrako penagarria ezin ahantziz zegoen bakarra Kejrik garagardogilea zen, ordura arte ezkongai eta, arestian esan dudan bezala, zenduaren adiskide hoberen eta minena. Jadanik aurreko egunean alargun gazteak argi adierazi zion Kejriki espero zuela merezi bezalako saria jasotzea, senarrari, bizi zen bitartean, halako fideltasuna gordetzeagatik. Eta Ostrohradsky bizilagunak bere lehenbiziko «dudarik gabe bihotz oneko gizona zen!» esan zionean, Kejrikek goibel erantzun zion: «Bai zera, bihotz ona izan balu, luzeago biziko zen». Eta gero ez zion gehiago erantzun Ostrohradskyri.

Segizioa pixkana-pixkana Oujezdeko Atera hurbiltzen ari zen. Orduan atea ez zegoen orain bezain arin; garai hartan, artean, bi tunel luze eta ilun ziren, harresi astunen azpitik eginak. Aurreragoko hilobien benetako gaztigua.

Hilkutxaren gurdia segizioaren burura aurreratu eta atearen parean gelditu zen. Apezak jiratu, gizon gazteek kontu handiz zerraldoa lurrian utzi eta errespontsuak errezatzen hasi ziren. Ondotik kotxe-gidariak gurtetxeko ohola atera zuten eta, gero, gazteek zerraldoa jaso zuten bertan uzteko. Orduantxe gertatu zen dena! Alde batean indar handiegia ote zegoen edo batean zein bestean baldarkeria berdina, kontua da gazteei usterik gutxienean zerraldoak eskue-tatik alde egin, parte estuenak lurra jo eta estal-
kia ireki zela kraska eginez. Gorpua ez zen kutxatik atera baina belaunak bildu zituen eta eskuineko eskua kanpoan gelditu zitzaion zintzi-
lika.

Izua nagusi. Berehala herio-isiltasuna egin zen, edozeini besteen sakeletako erlojuen tiki-taka entzuten uzten zuena. Begirada guztiak kontseilari zenaren aurpegi geldian iltzatu ziren. Eta zerraldoaren ondoan suertatu zen hain juxtu Heribert doktorea. Une horretan han barna pasa-tzen ari zen, bere paseoetako batetik etxerako-an; denbora-puxka batean jende artean ibili zen alde batera eta bestera noraezean; geroxeago

apezen ondoan gelditu beharrean izan zen, eta orain bere beroki gris ttikia ageri zen hildakoaren mihise beltzaren ondoan.

Ixtant bateko kontua izan zen. Nahi ezik ia, Heribertek zenduaren eskua hartu zuen, seguruena berriz kutxa barrenean paratzeko asmoz, baina berriz bere tokian jarri beharrean, bere eskuan eduki, behatzak urduritasunez mugitu eta begiak, zorrotz-zorrotz, hildakoaren aurpegian iltzatu zituen. Gero besoa luzatu eta zenduaren eskuineko betazala altxatu zuen.

— Zer esan nahi du honek? —esan zuen orduan haserre Ostrohradskyk—. Inork ez du deus egin behar? Geldirik egonen gara hemen denok?

Gizon gazteetako batzuk mugitu ziren zerraldoa jasotzeko.

— Egon! —esan zuen Heribertek, ahots izugarri sendo eta ozenaz—. Gizon hau ez da hila!

— Hori astakeria! Zu burutik egina zaude! —esan zuen Link doktoreak.

— Non dago polizia? —egin zuen oihu Ostrohradskyk.

Aurpegi guztietan sekulako durduzadura nabari zen. Bakarra Kejrik garagardogilea hurbildu zen laster Heribert doktoarengana.

Zer egin behar da? —galdetu zuen larriturik—. Ziur zaude ez dagoela hilik?

— Bai, katalepsiak joa dago, hori da dena. Orain eramazue lehenbailehen etxe batera, bere onera ekartzen saia nadin.

— Nire bizitza osoan ikusi dudan astakeria handiena! —esan zuen Link doktoreak—. Gizon hau hila ez bada, orduan...

— Nor da gizon hori? —galdetu zuen Ostrohradskyk.

— Medikua omen da.

— Doktore zaputza! Guardia! —esan zuen oihuka larrugileak, bat-batean bost mila florinez oroituta.

— Doktore zaputza! —zioten Kdojek eta Muzik kontseilariak ere.

Baina ordurako Kejrik, hildakoaren adiskide zintzoa, gazte batzuen laguntzaz, zerraldoa hurbileko ostatu batera eramaten ari zen.

Hura iskanbila kalekoa, hura zalaparta! Hil-kotxea joan egin zen, kotxeek buelta eman

zuten eta Kdojek kontseilaria oihuka: «Goazen, goazen; gero jakinen dugu denaren berri». Baina inork ez zekien zer egin.

— Gizona! Bazen garaia etortzekoa, komisario jauna! —esan zion Ostrohradskyk udaltzainen komisarioari, orduantxe heldu baitzen—. Hemen gauza bitxiak gertatzen ari dira: komedia bidegabea, gorpu baten profanazioa egun-argiz eta Praga erdiaren aurrean...

Ostrohradskyk komisarioari segitu zion ostatu barreneraino. Link doktorea desagertu egin zen. Handik puska batera Ostrohradsky berriz atera zen, komisarioarekin.

— Mesedez, zoazte denak —esan zion komisarioak pilatutako jendeari—. Ezin da inor sartu. Heribert doktoreak ziurtatzen du kontseilari jauna bere onera ekarriko duela.

Schepeler andreak kotxetik jaitsi nahi izan zuen, baina kontua galdu zuen. Batzuetan pozak hil ere egin dezake.

Kejrik tarrapatan atera eta kotxera hurbildu zen, han baitzeuden emakume batzuk alargunari lagundu nahian. «Eramazue poliki bere etxera —esan zuen— eta etorriko da bere onera». Gero

bere artean purrustaka: «Ederki dago, ederki dago atso hori!». Jiratu, beste kotxe batera igo eta Heribert doktoreak agindu zion lekura joan zen.

Kotxeak bata bestearen ondotik abiatu ziren eta jendea pixkaka-pixkaka barreiatu zen. Edozein moduz, gertalekura jende asko hurreratu zen egun guztian, eta *hildakoa* eraman zuten etxearen parean polizia-talde bat egon zen iskanbilarik izan ez zedin. Jendea gauza bitxiak haizatzen hasi zen. Batzuek Link doktorea larrutzen zuten eta gezur suerte guztiak esaten zituzten harengatik; beste batzuek, aldiz, Heribert doktoreari egiten zioten irri. Kejrik jauna zenbait aldiz agertu zen, hitz batzuk esateko, arnasa estaturik: «Esperantza handiak ditugu. Neronek ere sumatu diot pultsua. Doktore honek gauza miragarriak egiten ditu!». «Arnasa hartzen du!», esan zuen azkenean, zoraldi betean; berriz kotxea hartu zuen, esperoan baitzuen, kontseilariaren andreari berri ona eramateko.

Noizbait ere, arratseko hamarrak jo baino lehentxeago, esku-ohetali bat atera zuten

ostatutik. Alde batean Heribert doktorea eta Kejrik jauna zihoazen, bestean komisarioa.

Ez zen Mala Strana osoan ostatu edo tabernarik gaueko hamabiak pasata ere jendez gainezka egon ez zenik. Schepeler jaunaren piztura edo Heribert doktorea... ez zebilen beste konturik, eta denak bero eta suturik mintzo ziren.

— Latin-liburu horiek guztiek adina daki.

— Begiratu besterik ez dago; behehala ikusten da mediku ona dela... Bere aita ere doktore bikaina zen, hoberena! Nolako egurra, halako ezpala!

— Baina, zergatik ez du mediku-lanetan aritu nahi? Estatuko edozein kontseilarik adina irabaz lezake.

— Behar adina diru izanen du segur aski.

— Eta zergatik deitzen diote doktore zaputza?

— Zaputza? Lehenbiziko aldia da aditzen dudala.

— Nik gaur ehun aldiz aditu dut, ba.

Handik bi hilabetera, Schepeler kontseilaria bere lehengo ogibidera itzuli zen. «Zeruan Jainkoa eta lurrean Heribert doktorea!», esaten

zuen. Eta halako beste batean: «Kejrik hau aparta da!».

Praga guztia Heribert doktoreaz mintzatzen zen. Mundu osoko egunkariak mintzatu ziren hartaz. Mala Strana harro zegoen. Gauza harri-garriak gertatu ziren. Baroi, konde eta printzeek Heribert jauna mediku pertsonaletarako kontratatu nahi izan zuten. Italiako errege batek ere ordura arte sekula aditu gabeko dirutza eskaini zion. Hil izatera poz handia emanen zuten batzuk gogotik saiatu ziren haren zerbitzuak lortzen. Baina Heribert doktoreak mundutik aparte segitu zuen, bere baitan itxita. Xurrunurru bat ere zabaldu zen: kontseilariaren andrea dukatez beteriko zakuto bat eskaini nahian joan omen zitzaion, baina Heribert doktoreak onartu ez, eta gainera galeriatik ura bota zion.

Geroago ere jendea bost axola zitzaiola erakutsi zuen maiz. Agurtzen zuten, baina berak ez zien sekula agurrei erantzuten. Lehenago bezala, bere kasa harat-honat ibiltzen zen kaleetan, eta bere burutxo ia gardena balantzaka mugitzen zen, lotsati, mitxoletaren loreak beren zuztarrean bezala. Ez zuen behin ere gaixorik bisita-

tu, ez etxean hartu. Baina jendeak berdin segitzen zuen hari «doktore zaputza» deitzen. Izengoitia zerutik erori balitzaio bezala.

Hamar urte luze dira ikusi ez dudala; ez dakit bizirik dagoen ere. Bere Oujezdeko etxea lehenago bezalaxe dago. Egun hauetako batean, doktorea zer moduz dagoen galdetu behar dut.

«Hastrman»

Hotz handia egonik ere edo eguzkiak gogor berotuta ere, txanoa eskuan zuela ibiltzen zen beti karriketan barna. Gehienez, behin edo behin, hegal zabaleko txistera motz bat erabiltzen zuen, guardasol gisara, bere burua babes-teko. Bere kalpar urdinduan artesi zuzena zuen, buru-azala ongi agerian utzi eta atzeko aldean mugitu ere egiten ez zen motots batean bukatzen zena, hain zegoen estuki lotua mototsa; Pragako azken mototsetako bat zen, Pragan bi edo hiru besterik ez zegoen garaikoa. Bere frak berdea, urre-koloreko botoiekikoa, aurrealdean soin-neurri laburrekoa zen. Bizkarraldean, berriz, hegal luzeak zituen eta hegalek pausoro Rybar jaunaren aztal meheak jotzen zituzten bere gorputz ttar meharra kale haietan barna paseatzen zuenean. Bularra txaleko zuri batekin estaltzen zuen, eta galtzak, beltzak, ez zitzaizkion ailegatzeko belaunpeaz haratago. Galtza-barrenetan zilarrezko bi belarri dotore zituen. Handik beheiti galtzerdiak elurra bezain zuriak, eta haien

azpian berriz ere zilarrezko beste bi belarri eta zapata pare bat, aski handiak. Ez dakit zapata pare horrekin eman ote zuen bizi osoa, baina bai esan dezakedala itxuragatik Pragako kotxe zaharreneko kapotako larru zartatuenaz eginak ematen zutela beti.

Rybar jaunaren aurpegi ihar kokots-zorrotza irribarre batek argitua egoten zen beti. Karrikan ibiltzen zenean oso itxura xelebrea izaten zuen: hogeit hamar pausotik behin gelditu eta ezker-eskuin begiratzen zuen. Ematen zuen pentsamenduak ez zihoazela bere barrenean, berari segika baik, zor den errespektuaz pauso bat edo bi atzerago, ateraldi umoretsuak esanez bezala Rybar jaunari, noizean behin irri eragiteko eta adarjotzaileek hari erreparatzeko. Norbaiti diosal egitean, eskuineko eskuko behatz erakuslea altxatu eta, xuabe, txistu egiten zuen. Rybar jauna solasean hasten zenean ere txistu-hots fin hori aditzen zen, «*Djo*» batekin batera, adostasuna adierazten baitzuen.

Rybar jauna *Hluboca Cestan* bizi zen, *Petrin*-dik hurbil. Etxera ailegatzen ari zen, baina hori berdin zitzaion, zeren, Rybar jaunak, bere etxe-

ko ate aurre-aurrean egonda ere, kanpotar bat *Hradcanyetara* bidean ikusten bazuen, berehala atzetik joaten zitzaion, eta kanpotarra goian plaza zabalean gelditu eta gure «Praga urrezkoaren» edertasuna miresten ikusten bazuen, Rybar jauna hari hurbildu, behatz erakuslea goititu eta txistu egiten zuen: «*Djo!* Itsasoa! Itsasotik hurbil biziko bagina!». Ondotik, kanpotarrei segika joaten zen gazteluraino, eta haiek han, San Wentzeslaoren kaperan, Bohemiako harri bitxiz betetako paretak ikusiz, berriz harriturik aho zabalik gelditzen zirenean, Rybar jaunak berriz txistu egin eta esaten zuen: «Bai, horixe! Gurean artzainek harrika egiten diete ardiei, eta harriek, batzuetan, artalde osoak baino askoz gehiago balio izaten dute». Eta ez zuen besterik esaten.

Bere izenagatik, frak berdeagatik eta beti «Itsasoa!» esaten zuelako, *Hastrman* deitzen zioten. Baina izengoiti hori ez zen mespretxuzkoa batere; aitzitik, begirune handia genion, bai zaharrek bai gazteok. Rybar jauna Turnov ondoko herri bateko epaitegiko funtzionario jubilatua zen, baina orain Pragan bizi zen, ahaide batekin:

andre gazte bat, behe mailako funtzionario batekin ezkondua, bere bizpahiru umeen aita. Rybar jauna izugarri aberatsa zelako esamesa zebilen; harri bitxitan dirutan baino gehiago. Jendeak zioenez, bere logelan armairu beltz altu bat zuen, eta barrenean ez zegoen deus kaxa batzuk besterik; kaxa beltzak ziren, baxuak eta luzeak, barrenean paper zuriz estaliko koadrotan banatuak, eta koadro bakoitzean, kotoi garbi-garbiaren gainean, harri bitxi distiratsu bat zegoen. Batzuek beren begiz ikusiak zituztela ziurtatzen zuten. Eta esaten zuten, gainera, denak *Kozak* mendian aurkitu eta bildu zituela. Mutikoon artean esan ohi zen sajveldarren etxean —horrela deitzen ziren Rybar jaunaren jendakiak— zola garbitzen zutenean, parrastaka harea zuria bota beharrean azukre xehetua botatzen zutela parpar. Larunbatetan —garbiketa eguna— sekulako inbidia izaten genien sajveldarren seme-alabei. Behin, Bruska Atearen ezker aldean irekitzen den lubakiaren gaineko barandan jarrita egon nintzen, Rybar jaunaren etxetik hurbil. Han egon ohi zen Rybar jauna ere eguraldi oneko eguntan; belar gainean luze etzaten zen eta ordube-

te ematen zuen horrela, pipa erretzen. Egun hartan, halabeharrez, Unibertsitateko bi ikasle pasatu ziren han barna. Haietako bat irriz hasi eta esan zuen: «Tipo hori bere amaren menirakearen forrua erretzen ari da». Harrezkeroztik, amaren menirakearen forrua erretzea bakarrik jende dirudunaren esku zegoen plazerra zela pentsatu nuen nik.

Horrela paseatzen zen *Hastrman*, —baina ez dezagun horrela deitu, ez gara haurrak eta!—, Bruskaiko harresietan betiere. Paseoa haraino luzatutako kalonjeren batekin topo egiten bazuen, gelditu eta harekin hitz goxo batzuk egiten zituen. Noizean behin —nik gogokoa izaten nuen jende helduaren solasaldiak entzutea—, banku batean eserita egon ohi ziren bi kalonjerekin hitz egiten aditzen nion. Gogoratzen naiz egun batean bera zutik zegoela. *Frankreichez* mintzo ziren, Frantziaz, eta *askatasun* hitza aipatzen zuten; den-denak, gauza bitxiak. Bat-batean Rybar jaunak bere behatz erakuslea goititu eta txistu egin zuen: «*Djo!* Ni Rosenauren aldekoa naiz! Rosenauk honela dio: Askatasuna jaki goxoak eta ardo azkarrak bezalakoxea da;

horietara ohituak daudenak horiekin elikatu eta bizkortu egiten dira; ahulak, ordea, mozkortu, gainbehera etorri eta erori». Ondotik bere txisteararekin agurtu eta alde egin zuen.

Kalonjeetan handien eta lodienak esan zuen gero: «Nor ote da hainbestetan aipatzen duen Rosenau hori?». Txikienak, ez baitzen meheago, erantzun zuen: «Idazle bat; idazle bat noski».

Nik, edozein moduz, jakinduria osoaren muina balitz bezala gorde nuen esaldi hura gogoan. Rosenauz zein Rybar jaunaz oso iritzi ona nuen. Geroago, ia gizon egina, mota guztietako liburuak irakurtzera ailegatu nintzen eta ohartu nintzen Rybar jaunak zehaztasun osoz aipatu zuela esaldi hura, oker bat bakarra eginenez, ez baitzuen Rosenauk idatzi, baizik eta Rousseau izeneko batek. Egokiera maltzurak nonbait nahi izan zuen Rybar jaunak arinkeriaren ondoriozko inprenta-akats batekin topo egitea.

Baina horregatik ere harenganako begirune berdin-berdina nuen. Gizon ona, hobe ezin!

* * *

Abuztuko egun zoragarri bateko arratsaldeko hirurak inguru izanen ziren. Halabeharrez Ostruha kalean zehar zihoazenak gelditu egiten ziren; beren etxe atarian zeudenek barrenekoei abisatzen zieten presaka, eta jendea dendetatik eta etxeetatik ateratzen zen. Denak gelditu eta begira gelditzen ziren. Rybar jauna zen, kalean beheiti heldu zela.

— Segur aski bere aberastasunez arrandian ibiltzera joanen da norabait —esan zuen Herzl jaunak, *Bi Astroak* ostatuaren jabea.

— Bo! —erantzun zuen Vitous jaunak, kale izkinako dendaria—. Oso larritua egon behar du. Saltzera doa!

Aitortu beharrean nago auzoan ez ziotela begirune handirik Vitous jaunari. Behin kiebra jotzeko zorian egon omen zen, eta gaur egun oraindik ere Mala Stranako seme jator batek ez dio besteei bezala begiratzen inola ere behin erreka jotako merkatariari.

Baina Rybar jaunak bere bidean aurrera egin zuen, lasai, beste batzuetan baino bizixeago. Ezkerreko besapean, jende guztiaren ahotan zebiltzan kaxa luze beltz haietako bat zeraman.

Tinko estutzen zuen bere gorputzaren kontra, halako moldez, non kapela —ohi bezala eskuan zuen— zangoari itsatsia zegoela baitzirudien. Eskuineko eskuan kanaberazko makila bat zera-man, marfilezko eskutokikoa; Rybar jauna nora-bait bisitan zihoan seinale zen hori, beste batzuetan ez baitzuen makila eramaten. Jendeak agurtzen zuenean, Rybar jaunak makila goratu eta ohi baino askoz txistu-hots ozenagoa egiten zuen.

Ostruha kaletik atera zen, San Nikolas plaza gurutzatu eta *Zamberecka* deritzan etxera sartu zen. Han bizi zen, bigarren bizitzan, Mühlwenzel jauna, katedratiko, matematikari eta naturalista, kultura paregabeko gizona garai haietarako. Bisitak ez zuen luze iraun.

Irakaslea umore oneko gizona zen. Bazkaldu ondoren atsedean hartua eta siesta egina zegoen. Ile zuria, kopeta zimurgabearen koroa iduri, nahasita zeukan. Bere begi urdin erneak, beti goxotasunaren ispilu, dirdiratsu. Matrailak, gorri antzak, sutan. On-aurpegi hura zulo sakonek aski desitxuratua zegoen, baztangak pikatua, eta horrek irakasleari txiste bat egiteko bide

ematen zion, beti berbera: «Horrelakoxea da mundua —esan ohi zuen—: neskatxa batek irribarre egin eta bere matrailan zulotxo bat ateratzen bazaio, orduan polita dela esaten dute; niri aldiz, irri egiten dudanean, ehun zulotxo ateratzen zaizkit, eta itsusia naizela esaten dute».

Irakasleak sofan jartzeko erregutu zion Rybar jaunari, eta galde egin zion:

— Zertan nahi duzu laguntzea?

Rybar jaunak kaxa mahai gainean paratu, estalkia jaso eta kolore guztietako harri distiratsuak utzi zituen agerian.

— Zenbatsu balio duten jakin nahi nuke, besterik ez —zezelkatu zuen.

Ez zuen besterik esan, eta erantzunaren zain gelditu zen, kokotsa bere makilaren eskutokian bermatuta.

Irakasleak begiratu bat eman zien harriei. Gero bat atera zuen, iluna, harria haztatu eta argiaren kontra begiratu zion.

— Hau moldavita da —esan zuen.

— Nola?

— Moldavita.

— *Djo!* Moldavita! —egin zuen txistu Rybar jaunak. Aurpegian ezagun zuen bere bizitzan hitz hori aditzen zuen lehenbiziko aldia zela.

— Harri hau —segitu zuen irakasleak— oso ongi etorriko litzaiguke Akademian dugun bildumarako. Gaur egun oso bitxiak dira; salduko zeniguke harri hau?

— Ikusi beharko litzateke... Zenbatsu balioko du?

— Hiru florin ordain litezke honen truke. Nahi baduzu...

— Hiru florin! —txistu-hots isila egin zuen Rybar jaunak. Kokotsa altxatu eta berriz eskutokiaren gainean erori zitzaion—. Eta gainerakoak? —galdetu zuen handik puska batera. Hitzak zintzurrean trabatzen zitzaizkion.

— Kaltzedoniak, jaspeak, amatistak, topazioak... Deus gutxi.

Handik denbora-tarte batera, Rybar jauna bueltan zen berriz Ostruha kaleko izkinan. Mantso zebilen. Estrainekoz auzokoek kapela buruan zuela ikusi zuten. Kapelako hegal zabalak kope-ta estaltzen zion ia. Makila lurrian arrastaka zeraman eta klik-klik aditzen zen galtzadarrie-

tan. Ez zion inori erreparatu, txistu-hots bakar bat ere ez zuen egin. Atzera begiratu ere ez zuen egin. Begibistan zen ez ziola segitzen bere sentimendu bakar batek ere: denak barrenean zituen, barren-barrenean gainera.

Egun hartan ez zen etxetik atera; gaztelura ere ez zen joan, ezta Brus karen atzealdera ere. Eguraldi zinez zoragarria egin zuen.

* * *

Gaueko hamabiak jotzeko ziren. Zerua ren urdina egunsentikoaren antzekoa zen; ilargiaren argia zoragarria, ezin ederragoa; izarrak ñir-ñirka ari ziren, txinpart zurien gisan. Petrin zilarrezko gandu batek estalia zegoen; errezel bat, zilarrez ehundua bezala, Praga osoan hedatua.

Argi alaia Rybar jaunaren logela barrenera ere sartzen zen. Bi leihoak alde zalden irekirik, eta haietako baten aurrean Rybar jauna zegoen, zutik. Hortxe zegoen, estatua baten gisara, zurrun. Urrunean, *Vltava* ibaiko uharke-tan, uraren marmarra aditzen zen; soinu handi

eta etengabea, gauaren isila hausten zuena. Aditzen ote zuen zaharrak?

Halako batean zirrara batek inarrosi zuen bere gorputza. «Itsasoa! Zergatik ez dugu itsasorik?», esan zuen ahots apalean, ezpainak dardarati.

Ezinegonak joa zegoen, itsaso harrotuko olatuak bezalaxe.

«E!», esan zuen gero, eta jiratu zen. Lurrean, barreiatuak, kaxa irekiak zeuden, eta bere begiradak haietako batekin egin zuen topo. Hurbilen zegoen kaxa emeki hartu eta bere eskuan hustu zuen. «Errekarriak dira, besterik ez!». Eta leihotik bota zituen.

Beheiti krask-hotsa aditu zen, kristal batzuen kontra jo baitzuten. Rybar jauna ez zen oroitzen behegian, lorategian, berotegi bat zegoenik ere.

«Osaba, zertan ari zara?», —ahots goxo bat aditu zen, dudarik gabe ondoko leihotik heldu zena.

Rybar jaunak ustekabea pauso bat eman zuen atzera.

Logelako atea ireki eta sajvel jauna sartu zen. Gau zoragarriak leihoan egonarazi izanen

zuen noski. Edo osaba zaharrari ohi ez bezalako ezinegona sumatu izanen zion, ondoko gelan luzaro zirauen harat-honata. Edo zaharrari leihotik hasperen batzuek alde egin izanen zioten.

— Osaba, ez dituzu bota nahiko harri politik horiek guztiak, ezta? —esan zion.

Asaldatu zen, eta ondoren apal-apal esan zuen, begirada Petrinen finkatuta:

— Ez dute deus balio... Errekarriak, errekarriak baizik ez dira!

— Zuk esan gabe ere badakit ez dutela asko balio. Baina, halere, beren balioa dute zuretzat eta guretzat. Ederki saiatuta egin zenuen bilduma. Utzi mesedez, osaba, egidazu kasu. Gure haurrentzat izanen dira denak. Horiekin ikasiko dute, eta zuk beren balioaz hitz egingen diezu...

— Zuek pentsatu izanen zenuten ni aberatsa nintzela —murmuriatu zuen xaharrak, ahots erlastuaz, sekulako eginahala eginez—, eta, egia esanda, ...

— Osaba maitea —esan zuen orduan sajvel jaunak ahots dardaragabe baina goxoaz, attonari eskutik helduta—. Zu gurekin izanda ez al gara aski aberats? Zu gabe nire haurrek ez lukete

aitonarik izanen eta nire andreari aita faltako litzaioke, eta ongi dakizu zoriontsu garela zure ondoan eta zu gurekin egotea bedeinkazio bat bezalakoa dela etxe honetan.

Bat-batean zaharra leihora hurbildu zen. Ahoa dardarka zuen eta begi-ondoan sekulako zama sentitzen zuen. Kanpora begiratuta ere ez zuen deus ikusten. Denak dirdir egiten zion, diamante urtu batek bezala; dena inarrosia zegoen, olatuak balitu bezala; olatuak begietaraino iristen zitzaizkion!... Itsasoa!... Itsasoa!...

* * *

Ez dut segituko kontatzen. Ezin.

«Hiru Liliak»

Burutik egina egon behar nuen aldi hartan. Nire zainetako pilpira nabaritzen ahal nuen; odola borborrean neukan.

Gau beroa, iluna. Bero sapako egun batzuen ondoren, hodeitzar beltz lodiek zerua estali zuten. Haize-eraso bortitza zebilen arratsaldeaz geroztik; erauntsiak hodeiak astindu eta zarratazen zituen, eta geroago berriz sortzen; iluntzean ekaitz ikaragarria izan zen, eta euri-zaparrada, eta hala ekaitzak nola zaparradak gau beltzera arte iraun zuten. Eserita egon nintzen *Hiru Liliak* ostatuko zurezko arkupeetan, Strahoveko Atetik hurbil; ostatu ttikia, garai hartan bezero franko igandeetan baizik izaten ez zuena —gehien bat kadeteak eta ofizialordeak—, saloi txiki batean dantzan aritzen zirenak pianoaren soinuan. Egun hura igandea zen hain xuxen ere... Eserita egon nintzen, bakar-bakarrik, arkupeetan, leiho ondoko mahai baten aurrean. Ostotsen burrunba aditzen zen, atertu gabe ia; euri-erasoak teilatua inarrosten zuen nire burua-

ren gainean; ura ibaika heldu zen, gainezka, kaleetan; eta ostatuaren barrenean kadeteek ez zioten atsedetik ematen pianoari denbora-tarte laburretan baizik. Nik noizbehinka leiho irekitik begiratu eta bikote alaiak ikusten nituen, irribarretsu, dantzan; nekatzen nintzenean lorategiko ilunpean zer suma gelditzen nintzen begira. Oinaztura bizi-bizi batek barrutia argitu zuen batean, lorategiko paretaren ondoan, arkupeen muturrean, giza hezur pilak ikusi nituen. Behinola kanposantu bat izan zen hor eta hain juxtu hondarreko asteen aritu ziren gelditzen ziren gorpuzkinak hobitik ateratzen beste norabait eramateko. Lurra artean iraulia zegoen eta hilibiak irekiak.

Ez nintzen, halere, nire mahaian luzaro patxadan gelditu. Maiz altxatu eta hurbiltzen nintzen saloiko atera, zabal-zabalik baitzegoen, bikoteei hobeki behatzeko. Hemezortzi urte inguruko neska eder batek txoraturik nindukan. Segaila, gorputz liraina, garondoaren parerainoko ile beltza, aurpegi borobil-luzexka belusa bezain fina, begi argiak... Hura edertasuna neska harena! Gehiena begiek zoratzen ninduten! Ura

bezain argiak ziren; misteriotsuak, aintzira ezku-
tu bateko ur-azala bezalakoak; hain lasaiak,
ezen berehala hitz hauek pizten baitzituzten
gogoan: «Lehenago nekatuko da sua zuraz eta
itsasoa uraz gizonak emakume honetaz baino».

la gelditu gabe ari zen dantzan. Baina segi-
tuan ohartu zen txoraturik nindukala. Ni zutik
nengoen ate ondotik pasatzen zen bakoitzean,
begira-begira gelditzen zitzaidan, eta, saloi txi-
kian barna dantzan aurrera egiten zuenean,
begirada, urrutitik, nigan finkatzen zuela errepa-
ratu nuen. Ez nuen ikusi, ordea, bertako inorekin
mintzatzen zenik.

Berriz atera hurbildu nintzen eta gure begira-
dak berehala topatu ziren elkarrekin, neska
azkeneko ilaran bazegoen ere. Dantza-saioa
bukatzekotan zegoen; une hartan beste neska
bat sartu zen saloira, arrapaladan, hatsankaturik
eta hezurretaraino zipaturik, eta begi ederreko
neskarenganaino iristeko bidea ireki zuen jende
artean. Musika jo zuten berriz, dantzaldiaren
azken saioa egiteko. Sabaitik zintzilik zeuden
kate gisako lehenbiziko apaingarrien azpian,
neska ailegatu berriak zerbait esan zion ahape-

ka begi zoragarrikoari, zeinak burua makurtuz baietz egin baitzuen, hitzik esan gabe. Azken dantza-saioak gehixeago iraun zuen. Grazia eta umore ona zituen kadete batek gidatzen zuen dantza. Dantzaldia bukatu zenean, neska begi-argiak berriz lorategira ematen zuen ate aldera begiratu eta saloiko ate nagusitik atera zen. Kanpoan berokia nola janzten zuen ikusi nuen; desgertu zen gero.

Atzera nire mahai ondoan jarri nintzen. Une hartan ekaitza are gehiago zakartu zen, bere hots eta soinuen saila agortu nahi izan balu bezala; haizearen orroa entzun zen berriz eta oinaztargiak ziren bata bestearen ondotik. Aditzen aritu nintzen, aztoraturik, baina horrela ere ez nuen deus buruan neska hura besterik, bere begi zoragarriak besterik. Ez nintzen mugitu nire jarlekutik. Nahi izan banu ere, ez nintekeen orduan etxera joan.

Handik ordu laurden batera begiratu bat eman nion saloiari. Hantxe zen berriz neska. Bere jantzi bustiak txukuntzen ari zen, bere ile hezea idortzen, eta bera baino zaharragoko lagun bat laguntzen ari zitzaion.

— Zertara joan zara etxera ekaitz honekin? —
galdetu zion besteak.

— Ahizpa bila etorri zait.

Ahotsa aditzen nion lehenbiziko aldia zen. Inork izatekotan, berak zuen ahots goxoa; fina zinetan.

— Zerbait gertatu da zuen etxean?

— Ama hil zaigu arestian.

Bihotz ikara sortu zidan.

Neska jiratu eta arkupeetara atera zen. Nire aldamenean zen, bere begiratu nire begien hondoraino sartu zen, eta bere eskuak nire esku dardaratia ukitzen zuela sentitu nuen. Esku hartatik heldu nion. Eskuaren guria!

Hitzik esan gabe, arkupeen barreneraino eram nuen; segitu zidan, gogor egin gabe.

Ekaitza bere gorenean zen. Haize-erauntsia orroka, zeru-lurrak dardarka latz ikaraz; gure buruen gainetik ostotsen burrunba aditzen zen, eta inguru guztia itxura iluna hartzen ari zen. Hil-dakoak hilobi irekietatik deika eta oihuka ari bailiran.

Neska nire besoetan babestu zen. Nire bularrean bere jantzi bustiak sumatu nituen; gorputz

leun eta epel hura sentitu nuen nirearen kontra,
eta bere arnasa, gar baten gisan erretzen
zuen... Bere arima ustela edan behar nuela iru-
ditu zitzaidan!

San Wentzeslaoren meza

Elizako korura ematen duten eskaileren azken mailan eserita nengoen, eta hatsa hartze-
ra ere ez nintzen ausartzen ia. Burdinsare itxian zehar elizaren parte handi bat ikusten nuen: eskuinaldean San Joanen zilarrezko sarkofagoa eta ezker aldean sakristiako sarbidea. Denborapuska ederra pasatua zen arratsaldeko bedeinkazioa bukatuz geroztik, eta jendea joana zen San Vito katedraletik. Ez zen inor gelditzen, salbu nire ama, San Joanen sarkofagoaren aurrean, bere errezoetan erabat sartua, eta sakristau zaharra, San Wentzeslaoren kaperatik ateratzen ari baitzen, azkeneko itzulia egiten. Ni nengoen tokitik hurbil iragan zen, aterabide aldera jo zuen, errege-otoizlekuaren azpitik, atea giltzatu eta, segurtasun handiagoa erdies-
teko, kisketa ere itxi zuen. Gero bere bidetik joan zen. Ia aldi berean nire ama jaiki zen, aitaren egin eta sakristauarekin joan zen. Hilobiak ez zidan utzi haiek ikusten; haien hanka-hotsak aditu baizik ez nuen egin, isiltasunean burrunba

egiten baitzuten, eta haien arteko solasaldiko zenbait hitz. Geroxeago berriz beste aldean agertu ziren, sakristiaren ondoan. Sakristauak beste atea itxi zuen, danbatekoa emanda; kisketaren kurrixka aditu zen, eta handik aurrera ez nituen gehiago ikusi ez ama ez sakristaua, eskuinaldetik joan baitziren. Artean bi aldiz aditu nuen nolako kirrink-hotsa egiten zuten hesiko burdina zaharrek; ondotik hantxe ikusi nuen neure burua, bakarrik, giltzapeturik erabat. Sentsazio arrotz batek aztoratu ninduen; hotzikara antzeko zerbait sentitu nuen bizkarrean goiti... eta ez batak ez besteak ez zidaten grazia arrastorik egin.

Tupustean altxatu nintzen, painulua atera eta ahalik sendoena lotu nuen burdin-hesiko atea, ez zegoelako itxita kisketaz baizik. Hurrena, ziztuan igo nintzen eskaileretan goiti koruko lehenbiziko eskailbururaino, eta han murrura inguratu eta berriz maila batean jarri nintzen. Zer gerta ere egin nituen bi gauzak. Ongi nekien handik laster elizako atea irekiko zituztela, gauaz eliza zaintzen zuten zakurrak saltoka sarzitezen. Guk, meza-mutilok, ez genituen behin

ere ikusi zakur haiek, zaunka egiten ere ez genien aditu, baina gure artean esan ohi zen hiru artzakur handi eta gaizto zirela, aldare nagusiaren atzeko koadroko Wentzeslao erregearen zakurraren antzekoak. Eta sekulan zaunkarik egiten ez zutela ere esaten zen; eta hori zakurrengan amorruren adierazgarri handiena izaten omen da.

Banekien, gainera, zakur handiak trebeak zirela ateetako kisketak irekitzen; horregatik lotu eta seguratu nituen painuluarekin beheitiko ateak. Kontuan hartua nuen koruaren goialderaino ez zirela ailegatzen ahalko nire atzetik, eta goizean, sakristauak berriz giltzapetzen zituenean, jaisten ahalko nintzela batere kuidadurik gabe.

Zergatik nintzen ni han? Azalduko dut. Kontua San Vito katedralean gaua ematea zen; inork jakin gabe, noski. Eta afera ez zen makala. Mutikook segurutik genekien gauero-gauero, hama-bietan punttuan, San Wentzeslaok meza esaten zuela bere izena daraman kaperan. Egia esanda, neronek hedatu nuen xurrumurrua nire lagunen artean, baina berria uste on-oneko iturritik har-

tua nuen. Havel sakristauak —bere sudur luze gorri neurritz goitikoarengatik Havel *hegazterrena* deitzen zioten— nire gurasoen etxean kontatu zuen historia, eta hain modu bitxian begiratu zidan zeharka, ezen ixtanteko ulertu bainuen ez zuela nahi nik sekretua ikasterik. Baina ikasi nuen, eta nire lagun-minetako biri eman nien horren berri, eta haiekin erabaki nuen gau batean meza hartara joatea. San Wentzeslao zen gure tema! Nik, bultzatzaile bainintzen, lehentasuna izan nuen, nola ez, eta horregatik ni izan nintzen hirukoteko estrainekoa behehitiko koruan esertzeko joan eta hantxe giltzapean gelditzen, mundutik arrunt bereizirik.

Etxean ez zuten sumatuko nire falta. Horretan ez nuen zalantza-izpirik. Inozotik deus ere ez duten bederatzi urteko mutilen artean zabaldua dagoen ohitura horri esker, gezurrak esateko ohiturari esker alegia, ama engainatzea lortu nuen, esanaz gure izebak, Stare Meston bizi baitzen, gau hartan ni ikustera joatea nahi zuela. Jakina, gaua bere etxean pasatuko nuela ulertzen zen, eta hori ez zen oztopo izanen bihararaino goizean ni *rorate* mezara joan nendin,

meza-laguntzaile eginbeharrak betetzera. Gero-
ra denaren berri baldin bazuten, ez zidan inpor-
ta, orduan aukera izanen nukeelako San Wen-
tzeslaok meza nola ematen zuen kontatzeko.
Horren ondoren hagitz pertsona inportantea iza-
nen nintzela iruditu zitzaidan, ia-ia Wimer andre
zaharra bezain inportantea, Wimer zurginaren
ama alegia, Hradcany jauregikoa, zeinak izurrite
larriaren denboretan bere begiekin ikusi bai-
tzuen Kaputxinoen Ama Birjina, urrezko longai-
naz jantzirik Loreto plazan barna oinez, etxeak
ur bedeinkatuaz zipriztintzen. Jendeak hagitz
poztu ziren izurriteak ez zituela joko jakin zute-
nean; baina kolerak juxtu etxe horietan lehena-
go baino jende gehiago hil zuenean, bururatu
zitzaien, egiazko arrazoi gisa, Ama Birjinak auzo-
koen artetik hautatu zituela berarekin zeruetako
erreinuan sartu behar zutenak.

Mundu guztia egon izanen da noizbait —une
batez badere— jenderik gabeko eliza baten
barrenean, eta jakinen du nolako sentsazioa sor-
tzen duten gogoan nabetzar isil horiek. Irudimen
biziko haurrengan, ohiz kanpoko gauzak espera-
tzen baitituzte, zirrara —ezinbestean— biziagoa

izaten da, askoz ere. Ni zain egon nintzen denbora-puska batean; laurak eta laurden jo zuten, bostak, bost eta erdiak... eta kanpai-hotsek, elizan, hilobi batean bezalako burrunba egiten zuten, baina atean ez zen soinu ñimiñoena ere. Ez al zen katedrala zaindu beharrik? Edo ilundu arte ez ote zituzten askatu behar zakurrak?

Eskailera-mailatik jaiki eta pixkana-pixkana tentetu nintzen. Leiho hurbilenetik ez zen sartzen argi ahul eta hits bat besterik. Azaroko hondarreko egunak ziren, Santa Katalina festaren ondokoak, eta egunak, ordurako, oso motzak ziren. Kanpotik, noizean behin, urruneko soinu bat ailegatzen zitzaidan belarrietara, oso garbi aditzen zena halere. Gauaz hain lasai egoten da zoko hartan, ezen tristura ere ematen baitu. Noiz edo noiz pasatzen zen norbaiten ibili geldoa aditzen zen. Beste batzuetan hanka-hots lasterrak, eta, azkenik, solasaldiak, urrutikoak horiek ere. Bat-batean urrutiko soinu bat hurbiltzen joan zen. Ibilgailu astunen bat gazteluko ataria gurtzatzen ari zen segur aski. Soinua argiagoa egin zen: ibilgailua, beharbada, ataria pasatu eta plazara hurbiltzen ari zen. Soinua gero eta handia-

goa egin zen, zaldien azazkalen ttaka-ttaka aditzen zen zola zauritzen; gero kateen kliniki-klan-ka eta gurpil handiek zolaren gainean egiten zuten kirrinka-karranka. San Jorge kuartelera zihoan gurdi militar bat zen, dudarik gabe. Hain zen handia soinua, non elizako leihoak ere dardar pixka bat egin baitzuen, eta eliza-txoriak, koru gain-gainean, txioka hasi baitziren izuturik. Eliza-txorien txorrotxioa aditzean, hasperen egin nuen, sakon: niregandik hurbil izaki bizirik egote hori baltsamo bat bezalakoa zen nire bihotzarentzat.

Horrek ez du esan nahi nik eliza hutsean estura edo beldurra sentitzen nuenik. Ez zegoen horretarako arrazoirik. Ezin hobeki ohartzen nintzen nire eginkizunaren berezitasunaz, baina ez neukan deus txarra egiten ari nintzen kontzientziarik. Ez nengoen larriturik, ez nuen sentitzen inongo bekaturen bihotz-zimikorik; aitzitik, sentitzen nuen zilegi zitzaidala harro egotea. Ezin hobea sentitzen nintzen, guztiz ona, fede bizi gartsuak nigan beste gizon bat sortu balu bezala, lehengoa ez bezalakoa eta handik aurrerakoa ez bezalakoa. Nire burua gurtu ere egingen nuen,

baina haur bat ez da gauza izaten heldu franko-
ri hain atsegingarri zaien berekoikeria ergel
horretarako. Beste batean, apika, iratxo edo
mamuen beldur izanen nintzen, baina banekien
han, elizan, mamuek ez dutela inolako ahalme-
nik. Eta hantxe lur emandako santuen espiri-
tuek? Bakar batek kezkatzen ninduen, San Wen-
tzeslaorenak, eta santu hori bene-benetan poz-
tuko zen nik hainbesteko ausardia nuelako, bera,
bere lorian, Gure Jauna zerbitzatzan ikuste
hutsagatik. «Berak nahi badu —nioen nik neure
artean—, ikusiko dik nolako debozioarekin zerbi-
tzatuko dudan aldarean, nolako arretaz erama-
nen dudan meza-liburua, bere metalezko estal-
kiekin, alde batetik bestera, eta nola saiatuko
naizen mezerdikoan zintzarria behar baino oze-
nago ez jotzen. Eta kantatuko diat, hain gora eta
ongi, ezen San Wentzeslaok pozaren pozez mal-
koak isuriko baititu, eta bi eskuak nire buru gai-
nean pausatuko, esanez: *Hau mutil zintzoa!*».

Une hartan katedraleko dorrean sei kanpai-
kadaren burrunba aditu zen eta nire ametsetik
esnatu ninduten. Sorbaldatik zintzilik neraman
eskolako bizkar-zorrotik nire irakurgaien liburua

atera, barandaren gainean ireki eta irakurtzen hasi nintzen. Nire begi gazteek artean egin zezaketan hori, nahiz eta ilun zegoen, oso ordurako. Baina hots bakoitzak, txiki-txikia izanagatik, arreta galarazten zidan, eta uneoro geldialdia egiten nuen nire irakurraldian, harik eta kanpoan berriz herio-isiltasuna nagusitu zen arte. Halako batean pauso arin batzuk hurbiltzen zirela nabaritu nuen, eta nire leiho azpian gelditzen zirela hain juxtu. Bozkario-itsaso batek hartu zuen nire bihotza, berehala pentsatu bainuen nire bi adiskideak zirela. Kanpoan txistu-hots berezi bat aditu zen: gure ohiko seinalea. Poz-zirrara sentitu nuen, pentsatuta gogoz behinik behin nire lagunak nirekin zeudela eta ordu haietan momentu bat aurkitu zutela nire ondora etortzeko eta..., gero auskalo, etxean, egurtu batzuk hartzeko, ihes egiteagatik. Gixajoak! Aldi berean, halarik ere, harro sentitu nintzen ustez eta nire lagunek, beharbada, miresten nindutela, eta beharbada ni nengoen tokian egon nahiko zutela gutxienez ordubetez. «Mutil horiek —egiten nuen nire baitan— ez ditek gau osoan lorik

eginen!». Eta zer gustura utziko nien sartzan, ordubetez bederen, lagun egin ziezadaten.

Argi eta garbi ezagutu nuen ahots hura; *Fri-ckena* zen, zapatariaren semearena. Bera zen! Ezin nintzen oker egon. Izugarri maite nuen! Egun hartan, esan dezadan, goiz-goizetik suerte txarra besterik ez zuen izan gizajoak. Hasteko, lehenbiziko mezan erretore jaunari ura boten gainean bota zion —beti bezala apezari begiratu beharrean elizara begira egoteagatik!—. Arratsaldean eskolako maisuak harrapatu zuen, Aninkari, zuzendariaren alabari, musu ematen eta gutun txiki bat ematen. Aninka guk hirurok maite genuen eta berak ere hirurok maite gintuen. Beste txistu-hots bat! Oraingoan Kubicek zen. Kubicek! *Ihuhu!* Gustura eginen nuen neronek ere txistu eta *ihuhu!*, berak bezala edo, gutxienez, hitz bat ozen esanen, erantzun gisa. Baina elizan nintzen eta isilik egon beharra zegoen. Mutilak oso gora mintzo ziren, nik entzun niezaien; batzuetan zer edo zer esaten zidaten, baina nik ez nien ulertu hitz bakar batzuk besterik. Hauexek: «Hor hago?». «*Ihuhu!* Hor hago?». «Ez duk beldurrik?».

«Hemen nagok. Ez diat beldurrik!», erantzunen nien. Norbait hurbildu aldiro, haiek lasterrari ematen zioten, eta gero bueltan gibelera etortzen. Murruetan zehar haiek ikustearen eta haien mugimendu bakoitzaz ohartzearen sentsazioa nuen, eta bat-batean pozaren pozez nire aurpegian irribarrea ageri zela sumatu nuen. Zerbaitek jo zuen leihoaren kontra. Ikaratu ere egin nintzen! Baina pentsatu nuen, geroxeago, harri koxkor bat bota zutela. Berriz! Halako batean, plazan, gizon baten ahots sendoa aditu zen; gizonak zakurrarenak esan eta nire adiskideek ihesari eman ziotela aditu nuen. Ez ziren itzuliko! Ez zegoen esperantzarik! Alferrik zen itxoitea.

Larritasun pixka bat sentitu nuen lehenbiziko aldiz. Liburua bizkar-zorroan gorde, bigarren barandaraino joan eta beheiti begiratu nuen, elizara. Den-denak lehenago baino itxura tristea goa zuela iruditu zitzaidan, berezko itxura tristea, iluntasunaz gainekoa. Gauzak ongi bereizten nituen eta are iluntasun beltzagoarekin ere bereiziko nituen, denak ezagutzen nituelako, banan-banan. Baina ematen zuen aldareak oihal

morez estaliak zeudela, Garizuman bezala, eta beren tolestura zabalek dena inguratzen zutela, denari kolore bera emanaz edo, hobeki esanda, dena batere kolorerik gabe utziaz. Burua gehiago atera nuen barandatik. Eskuinaldean sagra-rioko kandela-argia diz-diz ari zen, errege otoiz-lekuaren azpi-azpian. Kandelari harrizko meatzari batek eusten zion, oso irudi ezaguna hura, kolore naturalekin pintatua. Argi txikia sutan zen, lasai, zeru-gangako izarño lasaiena bezala, dardararik gabe batere. Argiaren azpian dornadura ikusi nuen, koadro berdinetan banatua; eta aurrean bankua, gaztaina-kolore iluneko dirdaiekin. Aldare hurbilenean urre-marra batek distiratzten zuen zurezko santu baten abitu apaingarriz betean. Burua estututa ere ezin nintzen oroitu zer santu zen hura. Begirada meagizonaren irudian finkatu nuen berriz. Aurpegiak azpitik hartzen zuen argia; matraila beteek bola zikin desitxuratu baten antza zuten; ezin nituen ikusi egunaz ia ikara eragiten ziguten begi atereak. Haratxeago, ilunpean, San Joanen hilobia zegoela nabaritu nuen, baina koloreaz aparte, argixea goa, ezin izan nion deus ikusi. Berriz meagizona-

ri so egin nion, eta iruditu zitzaidan espres atzeraka eramaten zuela burua maltzurki irri egiteko, eta matrailen kolore gorrixka, seguru aski, ederki kostata eusten zion irri-murrika horren ondoriozela. Zeharka begira irri egiten ari zitzaidan beharbada. Begiak itxi eta errezoan hasi nintzen. Berehala hobekixe sentitu nintzen; altxatu eta meagizonari sendotasunez begiratu nion. Argitxoak pizturik segitzen zuen lasai. Dorrean zazpiak jo zuten.

Luze gabe, halere, beste sentimendu gozaitz bat sortu zitzaidan. Hotzikara sentitu nuen. Kanpoan hotz lehorra zen eta barreanean, jakina, freskura zegoen; behar bezala jantzita banengoen ere, ez nuen arropa gehiegi. Bat-batean, gainera, gosea sentitu nuen. Pasatua zen ohiko afalordua, eta ahantzi nuen nire gaueko ibilaldirako zerbait hartzea. Besterik ezin eta, heroi moduan goseari eustea erabaki nuen. Hotzari gogor egiteko, aldiz, ez zen aski borondatea, gorputz barrenera sartua bainuen, eta mugitu beharra izan nuen berotzeko, pixka bat bederen. Koruan batera eta bestera ibili nintzen; ondotik beheitiko organoaren atzealdera joan nintzen, goitiko

organora —organo nagusira— joateko eskailbururaino hain zuzen. Elizako zoko guztietara egirik, eskaileran goiti joateko erabakia hartu nuen. Lehenbiziko eskailera-mailak karrask egin zuen, eta arnasa moztu egin zitzaidan. Goiti segitu nuen, halere, poliki eta kontu handiz, jai-egunetan musikarien atzean jartzeko egiten genuen bezalaxe, horrela organoko hauspoei eragiten zien gizonak guri aditu ez eta jaitsaraz ez gintzan.

Koru nagusira ailegatu nintzen. Pausoz pauso egin nuen aurrera barandarekin topo egin arte. Han, beldur pixka batez joan eta nolabaiteko sentimendu poetikoaz gelditu ohi ginen lekuan, bakarrik nengoen, arrunt bakarrik, inortxok ere ikusten edo kontrolatzen ez ninduela. Han, organoaren alde banatako mailetan, jarlekuak daude eta bata bestearen gainera altxatzen dira antzinako anfiteatroetan bezala. Behe-beheko mailan eseri nintzen, dunbalen ondoan hain juxtu. Nork galarazten ahal zidan guretzat hainbesteko xarma zuten dunbal horiekin jostatzea? Nire ondo-ondokoa ukitu nuen, nire eskuarekin arraxtada eginez haren gainetik, danbor-larruko hau-

tsa kendu ere nahi izan ez banu bezala; ondotik behatzarekin ukitu nuen berriz, indar handixea-goarekin, eta soinu bat aditu nuen, ia-ia sumaezina. Hori ikusita, bazter utzi nuen josteta. Bekatu zen zerbait egiten ari nintzela iruditu zitzaidan.

Nire aurrean, atrilen eta barandaren gainean, koruko liburukoteak zeuden irekita. Liburu horiek ere ukitzen ahal nituen; bakarren bat jasateko gauza nintzen probatzen ahal nuen eta, gaua izan ez balitz ere, ez nion eutsiko tentazioari. Guretzat koruko liburu haiek zerbait misteriotsua zuten. Apaingarriak brontzezkoak zituzten, oso astunak. Azalak hondatuxeak zeuden. Pergaminozko orriek, zeinak zurezko belarrien laguntzaz pasatzen ziren, ertz-muturrak zikinak eta higatuak zituzten; orri horietan kolore zoragarrienekin pintatutako inzial urreztatuek distira ematen zuten. Antzinako letra gotiko beltzez beteak zeuden, gainera, eta horietako gehiengutan nota beltz eta gorriak, jarleku altuenetik ere ikusten genituenak, hain ziren handiak. Liburu horietako batek izugarrizko pisua izan behar zuen, zeren errege kaperako tenore altu meheak

ezin baitzuen mugitu ere egin —guk horregatik gutxiesten genuen—, eta liburu horietakoren bat alde batetik bestera eraman beharra baldin bazegoen, beti aurpegi zanbratuko baxu mozko-teak egin behar izaten zuen; eta hura ere kexatzen zen pisuaz. Gure estimu guztia baxuarentzat zen: bere ahots lodiak bihotza ukitzen zigun, musika-uholde batek gorputza gurutzatuko baligu bezala, eta prozesioa zenean beti harengandik ahalik hurbilena jartzen ginen. Ni orduantxe nintzen tokian egoten zen beti baxua meza nagusian, eta harekin batera beste bi gizonek kantatzen zuten —ahots molde berekoak, hain ahots sendokoak ez baziren ere—. Pauso bat haratago bi tenorek zuten lekua; tenoreek garrantzi txikia dute baina horietako bat, halere, estimu handitan genuen. Dunbalak ere ibiltzen zituen, eta makilatxoak hartzen zituenean eta bere aldamenen Rojko dendaria, *Harrizko Txoria* deritzan etxearen jabea, tronboia jotzeko prestatzen zenean, orduan une solemneena hurbiltzen zen guretzat. Haratxeago haur kantariak zuten tokia eta, horien erdian, koruko zuzendari guztiahaldunak. Bere hitzak aditu nituen: nola

akuilatzen zituen mutikoak meza hasi aurretik; ondoren, banatzen ari ziren orri notadunen xarrasta aditu nuen, kanpoko kanpai-hotsak, sakristiako txilina eta organoaren doinuen uholdea, bere soinu-akordeekin eliza osoa dardarazten zuena; eta ikusi nuen koruko zuzendariak lepoa luzatzen zuela aldare nagusira begiratze-ko, eta bat-batean orekan zuen batuta mugitu zuela *Kyrie eleyson* solemnea sortarazi eta bere indar eta edertasun guztiarekin elizako zoko guztietara hedatzeko. Kantariei aditu nien, musika ere bai. Meza osoa pasatu zen nire irudimenetik, baita *Dona nobis pacem* sostenitua ere. Sekula ez zen meza ederragorik kantatu une hartan nire arima zokotik ateratzen ari zena baino; baxuaren ahotsari sekula entzun gabeko ezintasuna zerion, eta uneoro dunbalen eta turuten burrunba-hotsa ere aditzen zen. Ez dakit zenbat denbora iraun zuen meza hark, baina iruditu zitzaidan, behin baino gehiagotan, nire bihotzetiko soinu miragarriak, sortu ahala, dorreko kanpai-hotsekin nahasten zirela. Bat-batean hotz handiak berriz astindu zuen nire gorputza eta, nahi gabe, altxatu egin nintzen.

Erdiko nabearen alturetari zilar-dirdai lauso bat zegoen. Zenbait leihotatik gau izartsuaren argia sartzen zen; ilargiaren argia ere bai agian. Barandaren aurreko horma-bularrera igo nintzen eta elizaren hondo aldera begiratu nuen. Hasperen sakon bat atera zitzaidan bularretik; eliza guztiei darien usain bereziak —intsentsu eta lizunaren nahastea— birrikak betetzen zizkidan. Han beheiti mausoleo handiaren marmol zuriak distiratzten zuten; aldare nagusiaren parean sagraio-ko beste kandela-argia ñir-ñirka ari zen, eta aldareetako hegala urreztatuetan bazirudien argi arrosa dardarati bat pasatzen zela noizean behin. Nerbioak artean fede-sukarraldiaren eraginpean nituen. Zeren antza izanen ote zuten San Wentzeslaoren meza hark? Dorreko kanpaiek, segur aski, ez zuten joko. Joz gero, kanpaihotsak munduan aditzen ahalko ziren, eta bukatua egonen zen sekretu zoragarria. Beharbada sakristiaren aurreko kanpai ttikia adituko zen; organoaren musika misteriozkoa sortuko zen, eta bat-batean jarraigoak aurrea hartuko zuten, naturaz gaindiko argi batek inguraturik, eta aldare nagusiaren paretik pasako zen, eta gero

eskuinaldeko nabetik San Wentzeslaoren kape-
rara. Jarraigoak, noski, igande arratsaldeetako
elizkizun solemneen ordena bera izanen zuen.
Ordena bestelakoa izan zitekeenik ere ez zitzai-
dan burutik pasatzen.

«Jarraigo misteriotzuko buru —nioen nire
artean— makila gorrien gaineko brontzezko
esku-argiak izanen dituk. Segur aski aingeruek
eramanen ditiztek. Horretan ez zagok duda-
arrastorik! Ondoren kantariak, baina nork egingen
du horien egitekoa?». Iruditu zitzaidan segurue-
na jarraigoan hurrenak triforioan goian dauden
irudiak izanen zirela, buru polikromatuak dituz-
tenak: errege txekiarrek, Luxemburgeko familia-
ko erreginak, artzapezpikuak, kalonjeak eta
katedrala eraiki zuten maisu handiak. Gaur egu-
neko kalonjeak segur aski ez ziren egonen jarrai-
goan; ez ziren ohore horretarako behar bezain
duinak, Pesina kalonjea batik bat. Hori zen
gutxien maite nuena. Behin, igandeko bedeinka-
zioko elizkizun batean, brontzezko esku-argi
astuna eraman nuen batean, epelak eman zizki-
dan zuzen-zuzen ez eramateagatik. Beste behin,
kanpaijoleak dorrera igotzen utzi zidan, *Josef* ize-

neko kanpaia jo nezan. Lehenbiziko aldiz nintzen han goian bakarrik erraldoi jostagarri haien jaun eta jabe, eta hainbesteko gogoz jo nuen, ezen, nire eginkizuna beteta jaitsi nintzenean —harrotasunez, zilegi zitzaidan bezala—, Pesina kalonjea nire zain zegoen dorrearen oinean kanpaijoleari galdeka: «Nor zen goian zegoen astoa? Ordara jotzen zuela zirudien!».

Nire irudimenean antzinako gizon handiki guztiak ikusi nituen, beren harrizko begiekin, jarraigoaren buru, baina —gauza harrigarria— ez zitzaidan burura etortzen beren gorputzaren eta zangoen irudia; burua besterik ez nien ikusten, baina halere denak hanken gainean ibiliko bailiran mugitzen ziren. Haien ondotik, beharbada, Kinsky familiaren kaperan ehortzitako artzapezpikuek segituko zuten; haien atzetik, San Joanen hilobiko zilarrezko aingeruak, eta ondotik San Joan bera, gurutzea eskuan. Hurrena, San Sigismundoren erlikiak, hezur bakar batzuk buruko gorri baten gainean, baina burukoa ere ibiliko balitz bezala. Gero, zaldun batzuk beren halakretetan; gero, mausoleo guztietako errege-erreginak eta printze-printzesak, horietako batzuk

bikain jantziak beren marmolezko longain gorriekin, eta beste batzuk, besteak beste Jorge Podobrad, marmol zurizko longainekin. Eta azkena, kaliza zilarrezko kaliz-gainaz estalita zeramala, San Wentzeslao bera: gizamolde gazte eta sendoa. Buruan, birretaren orde, brontzezko kasko soil bat; gorputza babesten dion altzairu-sareko atorra, zeta zuri distiratsuz estalia; ilea, luzea, sorbaldetara ailegatzen zitzaiola, kizkurretan; aurpegia, onbera, lasaitasun solemnearen ispilu. Harritzekoa! Ez nuen batere zailtasunik izan bere aurpegia imajinatzen: begi urdin handiak, matraila gorri osasuntsuak, bizar biguna; baina, halere, aurpegia ez nion ikusten haragi eta odollezkoa, baizik eta argi dirdiratsu eta lasaiaz egina.

Handik lasterreko jarraigoa imajinatzen aritu nintzen bitartean, begiak itxita izan nituen. Isiltasunak, nekeak eta irudimen kitzikatuak beren ondorena izan zuten. Logaleak menean hartzen ninduen eta zangoek huts egin zidaten. Berehala berriz tentetu nintzen eta nire begiek lekua arakatu zuten. Isiltasuna eta lasaitasuna lehena-go bezala. Baina, halako batean, hilobi-isiltasun

hura oso bestelako eragina izaten hasi zen niregan. Sentitu nuen, gainera, ordurako nire nekea handia zela, gorputza hozmindua neukala, eta beldur lauso eta horregatik sumingarri batek bere menpean harrapatzen ninduela. Ez nekien zeri nion beldurra, baina beldur nintzen. Eta nire haur-kemen ahula, bat-batean, euskarririk gabe gelditu zen.

Barandaren horma-bularrean eseri eta negarez lehertu nintzen, saminez. Malkoak zerizkidan, bularra arras estutua nuen; negarrari eusteko eginahalak egiten banituen ere, negar-zotinka hasi nintzen; gero negarra larriagoa izan zen eta burrunba-hots samina egiten zuen hango isiltasunean; burrunbak —ustekabeko soinua izan baitzen— are gehiago handitu zuen nire beldurra. Hain bakarrik ez banengo eliza izugarri handi hartan!... Giltzapean ez banengo behinik behin!

Goraki kexatu nintzen berriz, lehenago baino ozenago apika, eta une hartan —erantzun gisa— airean bihotza pozez bete zidan soinu bat aditu nuen. Nire gainetik txoritxoaren txio ahula ailegatzten zitzaidan. Ez nengoen bakarrik!; eliza-txo-

riek nirekin pasatu behar zuten gaua! Oso ongi nekien non zuten babeslekua: haben artean, eskaileren gainean hain zuzen. Hantxe zuten beren gordeleku sakratua; hantxe onik eta salbu egoten ziren gure erasoetatik ere. Haben azpitik eskuaz harrapatzen ahal genituen, baina ez genuen behin ere egin.

Erabakia berehalakoa izan zen. Arnasari eutsiz eskailera-mailak igo nituen, kontuz. Segituan habenen aurrean nintzen; badaezpada ere berriz arnasa hartu nuen, eskua luzatu eta elizatorri bat harrapatu nuen. Txoria, izuturik, txioka hasi zen errukarriro eta amorruez behatzean mokokada bat eman zidan, baina ez nion ihes egiten utzi. Behatzetan bere bihotz-taupada lasterrak sumatzen nituen; beldurra erabat itzali zitzaidan. Ez nintzen hain bakarrik sentitzen. Inondik inora! Eta kontzientziak esaten zidan, gainera, izaki ahula babestu behar nuen izaki indartsua nintzela. Orduan, bada, konfiantza berri batek lasaiturik ikusi nuen nire burua.

Eliza-txoria ukabilean gordetzeko asmoa nuen. Horrela ez zitzaidan beldurra berriz piztuko eta lokartu ere ez nintzen eginen. Edozein

modutan, ez zen denbora asko falta hamabieta-rako. «Erne egonen nauk —esan nuen neure artean— ordua ez pasatzeko». Eta bi jarlekuren gainean etzan nintzen, eliza-txoria nuen eskua bularraren gainean jarrita, eta aurpegia San Wentzeslaoren kapera aldera begira, barrenean meza misteriozurako argia piztu bezain laster hura ikusi ahal izateko.

Nire tokian kokatu nintzen, eta argitasun arre bat sartzen zen leiho batera begiratu nuen. Ez naiz oroitzen zenbat denboraz gelditu nintzen horrela begira. Bai, ordea, argitasun arre hori argiagotuz joan zela, urdin bihurtu arte, geroz eta urdin biziagoa. Zerua urdina zen berriz. Une hartan dorreko kanpaiek jo zuten. Kanpai-hotsak bata bestearen ondotik, makina bat kanpai-hots, ezin konta ahala...

Zitxada min bizi batek iratzarri ninduen bat-batean. Gorputza hebaindua bezala neukan, desegina. Nire begien aurrean dena gorria iruditu zitzaidan, odolaren koloreko sugarrak botatzen zituen labe bati so banengo bezala. Belarrietara infernu-zulokoak ziruditen txistu-hots eta uhuriak ailegatzen zitzaizkidan.

Non ote nengoen? Agudo oroitu nintzen, halere. Aurreko gauean jarlekuen gainean etzan nintzen, eskua bularraren gainean jarrita; baina eskua zabalik neukan, hutsik. Nire aurrean San Wentzeslaoren kaperako leihoa, barrenetik argitua. Eta nire belarrietara organo txikiaren soinua eta *rorate* mezako kantu ezaguna iritsi ziren.

San Wentzeslaoren meza ote zen hura?

Aldaroka jaiki eta isilik beheitiko korura ematen zuen leihora hurbildu nintzen. Ahalkez kristaletan zehar beheiti begiratu nuen.

Aldarean erretore jauna meza ematen ari zen. Sakristaueko bat ari zen meza laguntzen, eta une hartantxe mezerdian goratzeko jotzen ari zen.

Begirada, amen batean, beldurrez, toki ezagun batera finkatu nuen. Hantxe zegoen ama, belauniko beste batzuetan bezala, burua makurturik, zeinatzen. Haren ondoan nire izeba, Stare Mestokoa, belauniko hura ere.

Amak burua altxatu zuen eta ongi ikusi nuen bere matrailetan beheiti negar-malkoak zerizkiola, banaka-banaka.

Orduan, gertatutako guztiaz ohartu nintzen. Lotsa handia sentitu nuen.

Ene errukarria! Buruko mina nuen eta dena jira-bueltaka neukan, txoraturik. Nire ama negarrez ari zen, ni galdutzat emanda seguruenik, eta amaren min ikaragarria, neronek hari sortua, bihotza saminez erdiratzen ari zitzaidan, eta arnasa larritzen. Laster jaitsi nahi izan nuen, amaren aurrean agertzeko, baina zangoek huts egin zidaten, buruak paretan irrist egin eta lurre-ra erori nintzen. Zorionez, aldi berean hasi nintzen negarrez. Hasieran, malkoek suaren antzerara erretzen ninduten, gero bularra goxatu zidaten.

Euri langar hotza ari zuen jendea *rorate* mezik atera zenean. Heroia, apaldua eta etsitua, elizako atearen aurrean gelditu zen, baina inork ez zion kasurik egin. Berak ere ez zion inori egin; baina, hondarrean, ama xaharrak, izebarekin batera atera zenean, bat-batean bere semearen ezpainen musu gartsua sentitu zuen bere esku zimurrez betean.

Nolatan

ez zen suntsitu Austria

1849. urteko abuztuaren 20.ean

arratsaldeko 12,30etan

1849ko abuztuaren 20an, arratsaldeko 12,30etan, Austria suntsitu beharra zegoen; horrela erabakia zuen Pistolaren Anaidiak. Austria aldi hartan erruduna zen ere ez dakit, baina gauza batean ez dut dudarik: erabaki hura gogoeta sakonen ondoren hartu zen. Ez zegoen beste erremediorik; afera erabakia zegoen, zin egina, eta betearazteko lana lau gazte hauen esku fidagarrietan utzia: *Jan Zizka Trocnovekoa*, *Prokop Handia*, *Prokop Txikia* eta *Nikolas Hussekoa*; hau da, nerau, Pepik Rumpal —zurginaren semea—, Frantik Mastny —jostunaren semea—, eta Antonin Hochmann —Rakovnik ondoko herri batetik ailegatu berria, bere anaia nekazari batek ikasketak ordaintzen zizkiona.

Ez ezazula uste gure buruari jarri genizkion izen historikoak nolana akeratu genituenik; bakoitzaren merituen arabera jarriak ziren. Niri

Zizka izena egokitu zitzaidan, beltxena izateagatik, mintzatzerakoan mingainean herdoilik ez izateagatik eta gure Anaidiaren lehenbiziko batzarrera (batzarrak Rumpaldarren sabaian egiten genituen) ezkerreko begia benda beltz batez estalia nuela agertzeagatik, bendak aho zabalik utzi baitzituen denak. Benda hura, harrezkeroztik, batzar guztietan jarri behar izan nuen; oso gustukoa ez nuen kontua zen, baina ez zegoen beste erremediorik. Besteek nireak adinako arrazoiak ematen zituzten, zalantza izpirik gabeak, nork bere izengoitia merezi izateko.

Konspirazioa bikain prestatua zegoen, perfektioaren pareko zorroztasunaz. Urtebetez gure ibilaldiak tiragomarekin trebatzeko aprobeixatu genituen. Mastnyk —Prokop Txikia ere deitua— gure ariketetarako munizio ezin hobez hornitzen gintuen, eta luze gabe lortu genuen ehun pausora zegoen edozein enborretan jotzea, gizon bat adinako lodiera zutenetan bai behinik behin. Baina ez ziren ariketa haiek izan egin genuen gauza bakarra. Urte hartan zehar handik eta hemendik dirua baztertzen joan ginen, eta Pistolaren Kaxan sartzen; handik heldu zitzaion

izena anaidiari. Azkenean bildutakoa hamaika florinera ailegatu zen. Bost florinen truke, Stare Mestoko Trikopy kaleko denda batean pistola bat erosi genuen, «Liejako diseinua», dendariak esan zigunez. Pistola batzar guztietan begiratzten genuen —opor aurretik egunero egiten genituen—, eta eskuz esku ibiltzen zen, eta dendenok benetan Liejako lana zela berresten genuen. Jakina, ez genuen tiro bat ere egin harekin; lehenbizi, bolborarik ez genuelako, eta bigarrenik, egoera arriskutsua zelako eta kontuz ibili beharra zegoelako. Horrela, bada, zuhurtzia erabatekoaz gorde genuen sekretua eta, horregatik, ez genuen beste inor onartu anaidian.

Gainera, Latin Eskolako lehenbiziko urteko lau ikasle ginen, eta sinetsiak geunden laurokin aski zela. Gelditu zitzaizkigun sei florinekin bagenuen beste pistola bat erosteko adina, eta, hala egin izatera, halako bi bihurtuko genuen gure armamentua, baina diru sobrantea bolbora erosteko gorde genuen, ez baikenekien segurutik prezioaren berri. Gure proiekturako aski eta sobra genuen pistola batekin. Bagenuen, dena dela, beste ondasun bat: portzelanazko pipa bat,

eta Prokop Txikiak hantxe erretzen zuen, gure isilpeko bileretan, gu denon izenean; pipa polita zen, paregabea, bikain apaindua kaliza batekin eta lantza eta aizkora batekin, baina ez zuen inongo balio berezirik gure zereginetarako. Traste elektriko bat ere izan genuen, txanpon bat erabiliz Prokop Handiaren anaiak egina, sarrailgin-aprendiza baitzen, baina aparatuak ez zuen funtzionatzen eta etxean utzi genuen.

Gure plana? Ondoren azalduko dut jende guztiak mirets dezan. Helburu nagusia: Austria suntsitzea. Lehenbiziko pausoa: Pragaren jabe egitea. Ezinbestekoa: Belvedereko ziudadela gure menpe hartzea, horrek Pragaren jabe eginen gintuzkeelako eta, gure ustez, inork ez zuelako modurik izanen gu inondik bondardatzeko.

Aldez aurretik erabakitako xehetasunak hauek ziren: ziudadelari eguerdian punttuan erasoko genion, kontuan hartuta aspaldi guztitik harresiak gauerdian atakatzeko ohitura dagoela eta, beraz, ordu horietan hain juxtu egoten direla zentinelak erneen. Aitortu beharra dago gure xedea zuhurtzia ia deabruzkoan oinarritua zegoela. Ziudadelak garai hartan guardia-talde txikia

zuen: sei-zortzi soldadu guztira. Horietako batek patiora ematen zuen burdinazko atearen ondoan zuen guardia-postua; ate gehienak beti erdi zabalik egoten zirenez gero, soldadua alde batera eta bestera ikusi genuen. Bigarren zentinela bat Pragako aldean paseatzen zen, kanoi batzuk zeuden tokian. Aitaren batean —esan genuen gure artean— laurok eta beste norbait (hemen-dik gutxira jakinen duzu nor zen bosgarrena) Atera hurbilduko gara; zentinela harrapatu eta hilko dugu, fusila kendu, gure tiragomekin guardia-etxolako leihoa hautsi eta agertzen diren soldaduei eraso, hil eta fusilak kenduko dizkiegu. Oraindik bigarren zentinela geldituko zaigu. Horrek, segur aski, bere burua entregatuko du; hura lotu eta fusila kenduko diogu. Errenditzen ez bada, beretzat kalte: hilko dugu. Orduan, atean kanoi bat paratuko dugu, han makila baten gainean dagoen uztai bikeztatuari su eman eta harresitik oihuka hasiko gara herritarrei iraultza hasia dela aldarrikatzeko. Orduan, pentsatzekoa denez, armada azalduko da. Baina ez da ailegatzen ahalko guganaino, guk noizean behin harresiko ateak ireki, eta kanoi-balak jaur-

tikitakoan berriz ateak itxiko ditugulako. Lehenbiziko lerroko soldaduak hil eginen ditugu eta gainerakoak, segur aski, errenditu eginen dira, bizkitartean toki guztietan iraultzak eztanda eginen duelako, eta beren burua entregatzen ez badute, haientzat kalte. Handik aterako gara, Pragako herritarrekin bat egin eta gero aurrena eginen duguna Hradcanyko gotorlekuan sartuak dauden preso guztiak askatzea izanen da. Gainerakoa gaua egunari darraion bezala etorriko da. Gure lehenbiziko bataila handia *Nemecky Brodetik* hurbil irabaziko dugu. Bigarrena Moraviako Zelaietan, Promysl Otacar erregearen espiritua mendeku aldarrika dagoen lekuan hain zuzen. Ondoren Vienaren jabe egin eta Austria suntsituko dugu. Azkeneko horretan hungariarrak garbituko ditugu. Zoragarri!

Ezbehar odoltsu honen hasieran, lehenago aipatu bosgarren lagunak munta handiko eginkizuna izan behar zuen. Halere, ez zuen deusen berririk eta ez zuen deus jakin behar azkeneko unera arte. Pohorak barazki-saltzailea zen. *Bila Hora* atzeko herri batekoa zen, Jenec ondokoa,

eta astean hirutan Pragara etortzen zen, eta oilasko eta usakumeak ekartzen zituen zakur handi batek tiratutako gurditxo batean. Gizon hori gure buruzagi Rumpalek —Prokop Handiak— hautatu zuen xehetasun garrantzitsu batez mintzatu ginenean: nola hornitu behar genuen bolboraz. Bolboraz hornitzea, garai hartan, hagitz afera latza zen; merkatariek agintarien baimen ofiziala behar izaten zuten erosteko, baina Prokop Handiak kontatu zigun Pohorakek bere gurasoen dendan haragi gazitua erosteko ohitura zuela Pragara joaten zen aldiro eta bide-nabar bere herriko dendariak enkargatutako bolbora hartzen zuela. Hori ikusita, nire lagunak galdetu zion guretzako bolbora ere erosiko ote zuen, ongi ordainduta, eta Pohorakek baiezkoa eman zion.

Beraz, abuztuaren 19an Pohoraki sei florin eman zitzaizkion, horietatik bi errege-sari gisa eta beste laurak bolbora erosteko. Barazki-saltzaileak agindu zuen biharamunean lasterrago ibiliko zela bere salgaiak saltzen eta erosketak egiten, eta gero bere gurditxoarekin pasatuko zela, ez Strahoveko Atetik, baizik eta Bruskako-

tik, Prokop Handiari bolbora emateko. Gure planaren arabera, orduantxe, eta ez lehenago, jakin zuten Pohorakek gure indar handiaren berri; eta, dudarik gabe, bere zakur zuria askatu, gurditxoak kamioan utzi eta guregana bilduko zen. Azkeneko horri buruz ez genuen zalantza-arrastorik ere, Pohorakek bi florin hartuak zituelako, eta ez dezagun ahantz beretzat ohorea zela. Gainera, gero egitekoren bat aurkituko genion, erabat ziur egon zitekeen. Prokop Handiak esanda genekien, gainera, Pohorakek behin kontatu ziola aurreko urteko Mendekoste egunaren biharramunean soroan lanean ari zela husar batekin sesioan hasi eta azkenean husarra zalditik eraitsi zuela.

— *Bila Horaren* atzean Bohemiako gizon indartsuenak bizi dituk —esan zuten horren hari-
ra Prokop Handiak.

— Eta horrek Rakovnikeraino ere hartzen dik —esan zuten Nikolas Hussekoak, ukabila astinduz gora.

Egia esan behar badut, niri oso egokia iruditzen zitzaidan Pohorak gure laguntzaile izatea.

Eta apustu eginen nuen beste buruzagiak iritzi berekoak zirela.

Kontua zen, beraz, gure planari dagokionez, lehenago xehe-xeheki azaldu dudan bezala, ateetako zentinelaz erabakitakoa betetzea. Esan dezadan leku hartan, hilabete batzuk lehenago, guztioi arrastoa utzi zigun gauza bat gertatu zitzaigula. Laurok, eta besteren batzuk, pilotan jokatzan ari ginen harresietako lubakian. Joko militar horri «*Artzain handia*» deitzen zitzaion, eta zenbait orduz jo eta su borrokan ibili ginen, bi taldetan banaturik. Gomazko pilota polit bat genuen, guttienean berrogei zentimo kostatu zena. Ongi jokatzan ariko ginen, zeren han barna iragaten ari zen granadari bat guri begira gelditu baitzen zutik; handik denbora-puska batera soropilean jarri zen gure jokoaren erosoago ikusteko. Halako batean pilota granadariaren ondora joan zen, eta orduan bera nagiki luzatu zen, tri-paz beheiti gelditu arte, eta pilota hartu. Gero poliki altxatu zen —guri iruditu zitzaigun ez zuela sekula altxatzen bukatuko—, eta uste genuenean bere eskuin bizkorrarekin pilota itzuliko zigula, kontua da lasai-lasai baloia beretzat

gorde eta patxadan maldan goiti joan zela. Hura ikusita, inguratu egin genuen, erruguka eskatu, garrasi eta mehatxu egin..., baina alferrik. Prokop Handiari eta Nikolas Hussekoari belarrondo-ko bana ematea besterik ez genuen lortu. Orduan harrika hasi gintzaizkion, baina granadaria gure atzetik etorri zen, eta egiari men egiteko, aitortu behar dugu den-denok ihesi atera ginela.

— Edozein moduz, gizona jipoitzea hankasartzea izanen zuan —zioen, ondoren, Jan Zizka Trocnovekoak—. Zuek badakizue zein den gure planen funtsa eta auskalo zer gertatuko zen! Behin ere ez duk jakiten zer gerta daitekeen, gurea bezalako konplot bat dagoenean alegia. Ni ordurako dardarka nengoan. Gustura helduko nioan tipo horri! Baina gero pentsatu nian: «Egon pixka batean, lasai».

Eskertu zuten denek azalpen tolesgabe hori, denok aitortzen baitzuten beldurtu zirela eta ia ez zirela zutik egoteko gauza.

Gertakari hartaz oroituta beharbada, abuztuko lehenbiziko egunetan, gure hizketagai baka-

rra gure planaren xehetasun txikienak ziren egu-
netan, halako batean galdetu nuen:

— Pohoraken zakurrak ausiki egiten du?

— Ez, egin gabe! —esan zuen Prokop Han-
diak—: atzo berean mazapanak saltzen dituen
dendariaren neskari gonak tarratatu zizkioan.

Hori axola handikoa zen. Pohoraken zakurrak
ausiki egiten zuen.

* * *

Egun gogoangarri hartako goiza iritsi zen.
Zeruetako Kronika hutsezinak astelehen goiza
zela dio. Emeki nola argitzen zuen ikusi nuen,
zeruak nola hartzen zuen tonu grisaxka, eta
ondoren argia nola joan zen bizitzen; hori dena
denbora-tarte luze samarrean. Hala ere, nik
nahiago nuen argia inoiz urratu ez eta eguna
inoiz hasi ez balitz, eta Naturak jauzi egin balu
egun haren gainetik, egun bakar haren gainetik.
Eta horrelako zerbait gertatuko zen esperantzan,
errezoan hasi nintzen, atertu gabe... Arima, aitor
dut, zinez larriturik, hil beharrean nuen.

Erabat aztoraturik eman nuen gaua. Une bakar batzuetan baizik ez nuen lorik egin, baina sukarraren moduko loa zen; berehala esnatu eta iraulka hasten nintzen nire ohatze bero-beroan, eta lan ematen zidan ez kexatzeak.

— Zer duk? Hasperenka ari haiz! —galdetu zidan amak behin baino gehiagotan.

— Ez —erantzun eta loaren itxurak egin nituen.

Orduan ama jaiki, argia piztu eta nire ohatze-ra hurbildu zen. Begiak itxi nituen eta amak bere esku-azpia kopetan jartzen zidala sumatu nuen.

— Mutiko hau sutan da! Zatoz, gizona, hau ez dago ongi!

— Utzi! —erantzun zuen aitak—. Atzo borrokan ibili izanen zen bere lagunekin. Ume deabruak!... Egun oso-osoa pasatzen du Frantikekin, Pepikekin eta Rakonvikeko mutilarekin. Eta aski du, zerbait egin behar dugu.

— Estudiatzeko elkartzen dira, eta horrela gehiago ikasten dute.

Ez naiz gezurretan ariko; ez nengoen batere ongi. Egia esateko, egunak ziren ez-ongiri nengola eta abuztuaren 20a hurbildu ahala gero eta

makurrago sentitzen nintzen. Gainerako buruzagiei ere antzeko zerbait nabaritzen nien. Hondarreko batzarretan nahasi antzean mintzatzen zirela ohartu nintzen, eta beldurrez ote zeuden susmoa hartu nien. Handik egun pare batera indarrak bildu eta afera mahairatu nuen, kemezez. Denek ahalik argien ukatu zuten; berotuginen; ordura arte behin ere ez zen hitz egin hainbesteko indarraz. Baina hurrengo gauetan, halaz guztiz, gaizki lo egiten segitu nuen. Jakina, besteengan benetako adorea nabaritu banu, ni ere benetan adoretzu sentituko nintzen seguruenena.

Nik ere beldurra nuen? Ezin nuen inola ere onartu. Hala ere nire buruari galdera bat egin nion —patuari kargu hartzea bezala zen niretzat—: zergatik egokitu zitzaidan niri egiteko ikaragarri hori? Bat-batean Austria suntsitu beharra kaliza bat bete samindura adierazezin iruditu zitzaidan. Gustura eginen nuen otoitz honela: «Jainko maitea, urrun ezazu nigandik edari samin hau!». Baina ulertu nuen ez zegoela beste erremediorik; eta loriaren tontorrari, bat-batean,

Golgotako tontorraren tankera hartu nion. Hale-
re, zin larri batek lotua nengoen.

Hamarretarako gure guardia-postuetan egon
behar genuen; Pohorakek hamaiketan ailegatu
behar zuen; hamabi eta erdietan burutuko zen
ekintza.

Bederatzietan atera nintzen etxetik.

Haize goxo batek freskatzen zituen nire loki
sutuak.

Bazirudien zeru urdinak irribarre egiten zida-
la Marinkak, Prokop Handiaren arreba lirainak,
bere bihurrikerietara gonbidatzen ninduenean
bezala. Esan dezadan, bidenabarkoan, bera zela
nire maitea. Orduan Marinkaz oroitu nintzen, eta
berak nire heroi-izatearen aurrean beti erakus-
ten zuen miresmen handiaz. Tupustean bularra
zabaltzen eta arima bizkortzen zitzaidala sentitu
nuen.

Nire espirituan aldaketa miragarria gertatu
zen ni Oreinen Lubakira ailegatzeko. Bitan
txingoka nindoala harrapatu nuen nire burua.

Neraman guztia errepasatu nuen gogoan.
Dena behar zen bezalaxe zegoen: bi tiragoma
sakela batean gordeak, beste sakelan begiko

benda beltza eta besapean liburu bat, jendearen oharkabean pasatzeko. Harresietan instrukzioan ari ziren soldaduen artetik iragan nintzen, baina dardararik ere ez nuen egin. Ongi nekien gure erasoaren ordurako soldadu horiek kuarteletan egonen zirela.

Oraindik denbora dexente falta zenez gero, paseo bat egin nuen gerora borroka-toki izanzen lekuan barna. *Chotekeko* lorategiak gurutzatu nituen, Nikolas Hussekoak han baitzuen, jaisuten zen kamiotik hurbil, bere guardia-postua. Beheiti begiratu nuen, Bruskako Atera, eta pentsatu nuen hantxe egon behar zuela gero Prokop Txikiak Pohoraken zain, hura noiz ikusiko, ondoren guri segituan abisatzeko eta lubakian barna etorritz hari aurrea hartzeko. Ziudadelaraino hurreratu nintzen, eta berriz harresietatik pasatu nintzen Bruskako Atera joateko. Ziudadela ondora ailegatu nintzenean bihotza pilpiraka hasi zitzaidan indarrez, baina baretu zen urrundu nintzenean. Harresiek, ziudadelatik ate hartarainoko tartean, bi gotorleku dituzte, irtenak. Lehenbizikoa gora samarrean dago eta goian, luze-zabal osoan, ordoki koxkor bat du. Zelaia-

ren erdian, garai hartan, urmael txiki bat zegoen, harlanduzko baranda batekin, eta, inguruan, zuhaixka eta sastraka usuak: gure josteta anitzetarako leku kuttunena. Zuhaixka horietako baten azpian harri-hornitu ederra geneukan gorderik gure tiragometarako. Bigarren gotorlekuak zokogune sakonagoa du. Gaur egun, bertan, Panorama kafe-etxea dago, baina garai hartan toki hura ere sasiz itxia zegoen. Pauso batzuk haratago Bruskkako Atea dago, hau da, nire guardia-postua, buruzagi nintzen aldetik zegokidana.

Atearen gaineko banku txiki batean jarri eta liburua ireki nuen. Dardara arin batek gurutzatu zuen nire gorputza, eta bizkarrean hotzikara moduko zerbait sentitu nuen, baina ziurtatu dezaket ez zela beldurra. Nahiko ongi sentitzen nintzen, ustez, baina aitortu beharra dut nire borroka-lagunetako inor ez ikusteak aldarte onez egoten lagundu zidala.

Orduan errezelo izpi bat piztu zitzaidan, atsegin eman zidana: nire lagunak beldurtu eta ez zirela agertuko. Baina, ixtanteko, errezelo horiei gogor egiteko eskatzen zidan bihotzak, heroi bat bainintzen. Zoritxarrez, halere, pentsamenduak

kontrakoa iradokitzen zidan, buruan piztu baitzidan, susmoa uxatuz gero, lagunak niregana erakarriko nituelako superstizioa. Hori ikusita ez nien kasu egin nire buruaren aginduei.

Tarteka instrukzio-eremuetako turuta eta danbor hotsak ailegatu ziren nigana. Ate azpitik sartu eta atera ari ziren gurdiak eta jendea. Hasieran ez nion asko erreparatu horri, baina handik puska batera superstizioak bere mendean hartu ninduen pixkana. «Zubiaren bukaera aldeko gizon hark —egiten nuen nire golkorako— Bubenec aldera jotzen badu, gureak egin dik; Podbaba aldera jotzen badu, aldiz, ez diagu zertaz kezkatu. Ikus dezagun! Bat, bi, hiru, lau, bost. Denek Bubenec aldera hartu ditek! Eta turutak, Belvederetik, erasorako deiak balira bezala aditzen dituk orain». Braust zutitu nintzen.

Une hartan hamarrak jo zuten San Vitoko dorrean. Ingurura begiratu eta Nikolas Hussekoa ikusi nuen, lasterka zihoala zumardian barna bere guardia-postura. Bihotz xalo eta ausarta! Gerlari kementsua!... Oporrei ere uko egin zien balentria handi honen alde. Baziren hamabost

egun, nahi izatera, bere anaiarekin egon zitekeela. Nikolasen hurbiltasunak amorrua eman zidan, halere. Nik bera ikusten nuen bezalaxe ikusten ahal ninduen berak ni. Orduantxe erronda egin beste erremediorik ez nuen, nire eginbehar militarra baitzen. Poliki ibili nintzen paseoan harresietan zehar, eskuan liburua irekita neramala. Han goian ez zegoen arimarik ere.

Urmaeleraino joan nintzen. Bazterrean Prokop Handia zegoen, belar gainean etzanda. Ikusi nuenean, pauso luze eta astunak ematen hasi nintzen, kamioan ahalik hobekiena entzun zitezkeen nire hanka-hotsak.

Prokop Handiak ere liburu ireki bat zuen eskuan eta niri begira zegoen. Begiak gorrituak zituen.

- Dena ongi?
- Dena ongi.
- Hemen duk?
- Bai.

Horrek esan nahi zuen hartua zuela bere esku utzi genuen pistola. Gure harriak azpian zituen arbolari begiratu bat eman nion. Prokop Handiak ere begiratu eta irribarre egiteko egin-

halak egin zituen, baina ia-ia ez zuen lortu. Orduan zitudelatik soldadu bat atera zen, pitxar bat eskuan, drillezko traje bat soinean eta militar-kapelua buruan. Ordenantza bat zen; gure kalkuluetan erabat ahantzia genuen soldadu hura. Baina, tira!, beste bat; azken finean, zer inporta zuen? Ordenantza polliki-polliki hurbildu zen gugana eta, gure parera ailegatuta, pitxerra lurrean utzi zuen. Ikaratu ginen.

— Mutikoak, ez duzue izanen zigarroren bat niretzat?

— Ez, ez dugu...

Ezin izan nuen esaldia bukatu, ezin niolako aitortu gutako inork ez genuela artean erretzen, Prokop Txikia kenduta.

— Baina krejcarren bat izanen duzue noski, eta tabakoa erosteko ematen ahal didazue. Ni iazko iraultzaz geroztik nago hemen —zirrarakoa sentitu genuen berriz, elektrizitateak emana bezalakoa—, eta mutikoek egunero tabakorako ematen didate.

Kobrezko bi txanpon atera eta, esku dardarattia luzatuz, eman egin nizkion. Soldaduak txistu-

soinua egin, bere pitxerra bildu eta ospa egin zuen, eskerrak ere eman gabe.

Esku-keinu batez Prokopi agur egin eta kamiora jaitsi nintzen. *Chotekeko* lorategietara sartu eta Nikolas Hussekoarengana hurbildu nintzen. *Bista Ederra* zeritzan banku batean eserita zegoen, zelatan, eta liburuaren gainetik begiratzeko zuen beheiti. Berriz ere pauso luze eta sendoak ematen hasi nintzen, halaketa jantzita banindoa bezala.

— Dena ongi?

— Bai, dena —erantzun zuen irribarre bortxatuaz.

— Prokop Txikia hor da?

— Bai, bere postuan, tximinia bat bezala kea botatzen.

Halaxe zen. Han zegoen Prokop Txikia, barandaren gainean jarrita, zangoak aurrera eta atzera, puru bat erretzen. Segur aski hiru zentimoko bat.

— Bihar ni ere erretzen hasiko nauk.

— Baita ni ere.

Agur esateko betiko keinua, eta alde egin nuen, ahalik urrats sendoenak eginez.

Bruskako Atearen gainean nintzen berriz. Soldaduak nor bere instrukzio-eremutik itzultzen ari ziren. Zer itxura polita ematen zuten! Baina, harritzekoa, egun hartan atsekabeturik begiratzeko nien. Beste garai batean ikuste hutsarekin berotzen nintzen; turuten bibrazioa aski zen nire zakur-ametsak oso gora hega zitezen, eta musika-bandarik ez zegoenean nire irudimenak soinua ordezkatzen zituen eta zaldiko urduri baten gainean ikusten nuen nire burua, bataila irabazietatik etxerakoan. Nire atzetik soldaduak gizon-kantak abesten zihoazen, eta inguruan jendeketak, zoraturik, gorai patu egiten ninduen; nik, bitartean, hoztasunez, buru-makurtu txikiak egiten nituen, aldian-aldian. Baina egun hartan irudimena ez zen ohi bezain gora hegatu. Zopa egiteko nire amak erabiltzen zuen garagardo zozo nazkagarri jasanezinaren antza zuen. Nire gogoak ez zegoen garaipenaren turutaren hotsak aditzen ziren alturetara igotzeko moduan; aho-sabaia lehor nuen, mingainean aholegarra banu bezala. Soldaduren batek deskuiduan begiratzen zidanean, nik begirada saihestu eta kontrako

aldetik zerbaitek begia jotzen zidalakoa egiten nuen.

Nire ingurura begiratu nuen. Bazirudien alaitasuna nagusi zela goizeko isiltasunean, urre-auri batek, oharkabean, ibar eta mendi-muinoak busti balitu bezala. Nik, halere, kutsu elegiazkoa hartzen nion horri guztiari. Eta, giro epela baze-
goen ere, hotzikara sentitu nuen.

Zeru urdinari begiratu eta Marinkaz oroitu nintzen berriz. Nire neska maitea! Zergatik ote nuen une hartan Marinkari beldur pixka bat nio-lako sentsazioa?

Gogoak, hondarrean, beste bide batzuk hartu zituen. «Tira! —esan nuen nire artean—; Zizkak gizon bakar batzuekin Gurutzearen ehun zaldun garaitu zitian. *Pertzevalek* ordubetea ehun soldadu hil zitian ezpataz». Baina Jainkoak bakarrik zekien zer gertatuko zen. Historiak ez du formularik eskaintzen gauza batzuetarako. Idor-idorra nuen mingaina, legarrak hartua bezala.

«Ez, ezinezkoa duk!; ez zagok atzera egite-rik! Bete dadila patua».

Atearen azpitik lehenago baino jende gehia-
go pasatzen ari zen. Nik begiradarekin segitzen

nien, nire gogoetetan murgildurik. Gero berriz superstizioa oldartu zitzaidan eta probak egiten hasi nintzen, oharkabean nire buruari engainu eginez alabaina. Bakarrik nekazari-jantziak zera-matzatenei erreparatzen nien, espero nezakeelako, horregatik, okertzeko arrisku handirik gabe, seguruena ezkerraldera hartuko zutela, Podbaba aldera.

Nolanahi den, zer gertatu zen? Gauza bat ongi gogoan dut, dena dela. Gutxiena espero nuenean, berriz sukar moduko kitzikadura batek harrapatu ninduen eta, nekez bada ere, altxatu egin nintzen. «Hobe izanen duk —esan nion nire buruari— beste bisita bat egitea postuetara». Edozein moduz, ordurako deika ari zitzaidan eginbehar utziezina.

Prokopengana hurbildu nintzen unean —urrats sendo eta geldoak egin nahian, nahiz eta neroni ere ohartzen nintzen lehenago baino arinagoak zirela— nor eta ofizial ikuskatzailea sartzan ari zen zitudadelara. «Nolanahi ere —esan genuen gure artean—, berriz ateratzen den arte itxoin beharko diagu».

Prokop Handia hilotza bezain zurbil zegoen.

— Pepik, izutua hago, ezta? —esan nuen hartaz benetan errukiturik.

Prokop Handiak ez zuen erantzun. Baina eskuineko eskuko behatz erakuslea alde bereko begiaren azpian jarri eta, betazala jaitzaraziz, begi-zuringoaren behealdea agerian utzi zuen. Keinu hark, Pragako haurren artean ongi ezaguna, ezezko borobila adierazten zuen.

Zergatik ez zuen aitortu beldurra zuela? Austria oraindik salba zitekeen...

— Hamaikak! —esan zuen zezelka Prokop Handiak.

Haize epelak hamaika kanpai-hots geldoen oihartzuna zekarren. Kanpai-danbada bakoitzak burrunba luzea egiten zuen gure belarrietan; nahi gabe gora begiratu nuen, ea soinu horiek ikusteko modukoak bihurtuak ote zeuden. Indar handiko hil kanpaiak ziren, Europako estatu handien eta zaharrenetako baten alde joak.

Nikolas Hussekoaren postua aztertutakoan, korrika txikian jaitsi nintzen Prokopengana. Bidezkoa iruditu zitzaidan hura akuilatzea, buruzagi gorena zen aldetik bere eginbeharrak bete zitzan.

Prokop Txikia artean barandaren gainean eserita zegoen, baina ez zen erretzen ari; aldiz, izterren gainean bere kapelua zuen, aranez betea. Gogo biziz jaten ari zen. Hezur bakoitza ahotik kontu handiz atera, behatz erakuslearen muturrean utzi, gero hartan behatz lodia jarri, indarra egin eta ttak!..., kamioaren beste aldean zeuden oiloetako bat berehala iheska eta kakaraka ateratzen zen. Gehientsuenak toki segurua-go batera joanak ziren; oilo bakar bat, beltza, gelditzen zen oraindik lohian mokoka, arriskutik hurbil. Prokop Txikia hura jotzeko destatzen ari zenean, ni ikusi ninduen. Orduan tiroa desbideratu eta oiloa jo beharrean hezurak ni jo ninduen, kokotsean. Zaztako mingarri eta bizia eman zidan, zartailu-muturrarekin emana bezalakoa. Prokopen aurpegia pozez txoratzen.

— Baina zertan ari haiz? Erne egon beharko huke!

— Erne nagok. Ez diat begirik, ala? Nahi duk?

— Ez nagok goseak. Zenbat balio ditek?

— Zortzi *fuky*. Hartu baten bat.

— Lau hartuko ditiat, Pepikentzat. Baina adi egon! Honezkero edozein unetan ailega litekek!

Berriz nire postura igo nintzen. Prokop Txikiak botatako beste hezur batek zartzakoa eman zidan belarrarian, baina ez nuen lepoa jiratu ere egin. Aurrera segitu nuen, duintasunez.

Hamaika eta erdietan, berriz Prokop Handiaren postuan nintzen. Artean belarraren gainean zegoen etzanda.

— Aranek ekarri dizkiat Frantiken partez.

Prokop Handiak muzin egin zien. Aranek lurrian utzi nituen eta ni ere eguzkitan etzan nintzen.

Zeruan ez zegoen hodei bakarrik ere. Eta goiti begira gelditzen den jende guztiari bezalaxe gertatu zitzaidan: begiradak bere indarra galtzen du eta ematen du airea xomorro txuriz betea dagoela, denak begien aurrean dantzan, zorabioa sortzeraino.

Baina iruditu zitzaidan, pixkana-pixkana, begiak ez ezik gorputz osoa neukala xomorro horietaz beterik; odola sekulako ziztuan zebilkitan zainetan barna baina, tupustean, hormatu zitzaidala sentitu nuen, eta gihar guztiak uzkurutz zihozkidala. Iruditu zitzaidan zerutik argia

ez, baizik eta berun urtua erortzen zela euriaren gisan.

Alde batera jiratu nintzen, Prokopi buruz buru.

Hamaikak laurden gutxi ziren.

— Aizak —esan zidan bat-batean, begietan latz-ikara nabari zuela—. Pohorakek ez ziguk traizio egin izanen, ezta?

— Ez horixe! —esan nuen totalka, konbentzimendurik gabe. Ezinegonak harrapatu ninduen; altxatu eta batera eta bestera hasi nintzen. Traizio doilorrena gerta zitekeelako pentsamendua gogoratu zitzaidan.

Orduan beheiti begiratu nuen eta, harri eta zur, Prokop Txikia eginahala guztian mehargunetik lasterka igotzen ikusi nuen.

— Prokop Txikia! —esan nuen garrasika. Hasieran ihes egitea bururatu zitzaidan.

Prokop Handia ere zutik jarri zen, salto batean. Kontrako aldetik Nikolas Hussekoa agertu zen laster eginez. Prokop Txikia ikusi zuen gugana etortzen eta zer gertatzen zen jakitera heldu zen.

Prokop Txikia arnasestuka iritsi eta esan zuen:

— Eliza ondoan zurrutean ari ziren morroi batzuek esan ditek poliziak azokan barazki-saltzaile bat atxilotu duela.

«Pohorak!», pentsatu genuen denok. Eta, harri koxkor bat txorien artera botatzen denean bezala, guztiok lasterka atera eta barreiatu egin ginen.

Mehargunera jaitsi nintzen arrapaladan, burua sorbalden gainean dantzan. Aitaren batean Waldstein kalean nintzen, baina zerbait tek bultzatzen ninduen lasterka segitzera. Senovazna kalean sartu eta San Tomas elizara ailegatu nintzen; arkupeetatik plazan goiti hartu eta lehenbiziko zutabea pasatu nuen, baina bigarrenera ailegatzean harri eta zur gelditu nintzen.

Poliziak une hartantxe Pohorak zeraman ondoko komisariara, gurdi, zakur eta guzti. Argi eta garbi ikusi nuen Pohorak izugarri larritua zegoela; aurpegian oinaze lazgarria nabari zuen.

Gizateriaren historiak hutsune tamalgarri bat izanen luke baldin Pohorakekin zer gertatu zen kontatuko ez banu.

Egun hartan Pragara ohi baino beranduxeago sartu zen; saltzaile batentzat, Pragako usadioetarako, aski berandu zela esan liteke: zazpiak ziren. Strahoveko Atetik aldaroka kale maldatsuetan beheiti joan zen, zakur zuria alde batetik alai lasterka, gurditik tiratu behar ez zuelako, eta Pohorak beste aldetik, gurdiari eutsiz ezker eskuarekin pertikatik hartuta.

— Zer dela-eta hain berandu gaur, Pohorak?
—galdetu zion *Kale Sakoneko* okinak, atorrutsik espaloian patxadan erretzen ari zen bitartean.

— Geldialdi batzuk egin behar izan ditut bidean.

Pohorakek irribarre egin eta sooo! luze bat esanda gurdia geldiarazi zuen. Eskuineko saketan eskua sartu eta zumezko zorroko botilatxo bat atera zuen, pattarra, eta okinari eskaini zion.

— Tragoxka bana?

— Ez, eskerrik asko. Nik egina dut nire goizeko tragoa.

— Nik ere bai; baina hobe bost aitagure bat bakarra baino.

Eta Pohorakek trago ederra edan, botila hutsa gorde, agurtu eta bidean aurrera egin zuen.

Nekazarien Azoka jendez gainezka zegoen ailegatu zenerako. Poliziak tokirik ez zuela esan zion eta Pohorakek gurditxoarekin alde batetik bestera ibili behar izan zuen, baina eztabaida nekagarri baten ondotik postu huts bat aurkitu zion. Batzuetan Pohorakek, barazkiez gain, erbiak, gantza eta arrautzak ere eramaten zituen. Egun hartan oilaskoak eta usakumeak besterik ez zeraman. Hegaztiak ziren bere salmenta nagusia. Horregatik Pohorakek usain zelebren samarra botatzen zuen, ez oso goxoa, oilategi-usaina, bere inguru guztian urrutitik ere sumatzen zena.

Pohorakek aspaldi eginak zituen berrogeita hamar urte. Irakurleak uste baldin bazuen, lehenago esandakoagatik, Pohorak altu samarra zela, barka dezala, baina bere irudimena apaldu beharko du. Pohorakek ez zuen, ez, Herkules baten eiterik preseski. Txikia zen, konkortuxea,

eta gehiago zuen hezurretik giharretik baino. Aurpegi ihar baztangak pikatuan hainbeste zulo zituen, ezen bihotz oneko edozein gizonek haiek pixka bat betetzeko aholkua emanen baitzion. Pohorakek jaka koadrodun urdin bat janzten zuen, baina zenbait tokitan —bizkarrean, lepo azpian eta ezkerreko sorbaldan bereziki— lohi idorraren kolorea hartzen zuen eta ez zitzaion koadrorik ikusten. Galtzak gaztaina-kolorekoak zituen, eta galtza-barrenak gora bilduak eramaten zituen beti, nahiz eta hartan, konparazio batera, zortzi aste ziren euri-tantarik egin gabe. Neguan zein udan burua oihalezko kapelu ilun batekin babesten zuen, eta kapeluaren ertzetik janari-saltzaile baimena ateratzen zitzaion.

Pohorakek lasto pixka bat barreiatu zuen gurdi azpian, itzalean, eta zakurra bertan etzan zen lotara. Ondoren barazki-saltzaileak bere saltgaiak atera eta gurdian zabaldu zituen. Azkenik, pixka bat tentetu eta ingurura begiratu zuen.

— Poxpolin —esan zion ondoko saltzaileetako bati, gutxienez berrogeita hamar urteko emakumea bazen ere—, mesedez, begiratu bat eman noizbehinka nire gurdiari. Bideak zintzurra lehor-

tu dit eta tragoxka bat edan behar dut, bat bakkarra.

Hurbileko kafe-etxe batera sartu eta kafe bat hartu zuen. Ondotik ostatura joan zen, handik hiru pausotara edo, bi kopa *kumel* edan, bere botilatxoak betearazi geroko eta sakelari gorde zuen. Gero bi ogi-opil erosi zituen, mitxoletahaziz zipriztinduak, bata beretzat eta bestea zakurrarentzat, eta bere saltokira itzuli zen.

— Ezkerrean ala eskuinean? —galdetu zion aulki baxu batzuk alokatzen zituen emakume batek. Pohorakek behatzaz adierazi zion aulkia non jarri, hitzik egin gabe; emakumeak krejcar bat eman eta eseri egin zen. Gero jakako ezkerreko sakelatik pipa eta tabako-poltsa atera zituen. Poltsa ireki, pipa bete, txalekoaren eskuineko sakelaren zoko-zokotik poxpolu-kaxa bat atera eta erretzen hasi zen. Gustura ari zen. Gero bere salgaiei begiratu bat eman zien.

«Oilaskoak berrogei krejcarrean; usakumeak hogeian», zioen bere artean, ke-bafada lodiak bota bitartean.

Agure moztaka bat hurbildu zen, garagardosaltzailea ezberrik gabe. Aise jakiten da agure

edo atso bat garagardo-saltzailea den, atzetik beti neskame bat joaten delako kobrezko uztaiak dituen kupela bati bultzaka.

— Zer balio dute oilasko horiek?

— Zer balio duten? —erantzun zuen Pohorak-ek patxadan, bere pipa ahoko ertz batetik bestera eramanez—. Urrea balio dute, baina berrogei krejcarrean emanen dizkizut.

— Burutik egina zaude noski! Hogeita bi emanen dizut. Zer diozu, konforme? Sei eramannen ditut.

Pohorak isilik gelditu zen, buruari eraginez, garagardo-saltzaileak alde batera egiten zuen bitartean. Gero berriz eseri eta kea botatzen segitu zuen.

— Bat bakarra ere ez duzu salduko prezio horretan —esan zion ondoko saltzaileak, Pohorak-ek lehenago «poxpolin» deitu zionak—. Alferrik ari zara; azokan gaur asko dago saltzeko.

— Eta zer inporta zain atso zahar horri? Nik nahi dudan prezioan saltzen ditinat. Hi arduratu hire arrautza ustel horietaz. Pohoraki erakutsiko dion hik saltzen! Gainera, gaur deus salduko ez

banu ere, irabazi pollita zeramanat sakelan etxera.

Eta txalekotik florin batzuk atera eta eskuahurrean ibili zituen hotsa aterarazteko.

Atsoa isildu egin zen. Pohorak ere bai, amorrazioa pattarretan itoaz.

Andre bat ailegatu zen, bere neskamearekin.

— Zenbatean daude oilasko horiek?

— Berrogei krejcarrean.

— Alajainkoa! Horren garesti? Hogeita bost emanen dizut. Konforme?

Pohorakek ez zuen erantzun orduan ere.

— Gizona, ez izan kaskagorra!

— Horrek ez du bueltarik. Nik nire prezioa jarri dut. Hori da dagoena.

— Andrea, goazen —esan zion neskameak—; dena dela, ez dute freskoak ematen.

— Freskoak, freskoak!?! Hi bai freskoa, aza-hostoa! Nire oilaskoak xamur-xamurrak ditun, hoberenen pare!

Eta horietako batzuk hanketatik hartuta, airean astindu eta oihu egiten zuen. Atso guztiak orduan irri-algaraka hasi ziren, eta Pohorakek berriz pattarretan ito zuen amorrazioa.

Kontuak berdintsu segitu zuen denborapuxka batean.

Azoka husten joan zen, baina Pohoraken oilaskoak eta usakumeak hortxe zeuden saldu gabe. Noizean behin barazki-saltzaileak txorrotx begiratzen zien, han ikusita sufrituko balu bezala, eta amorruez zioen bere artean: «eutsi goiari, gizona, eutsi».

Pattarra bere eragina egiten hasia zen.

Saltxitxa-saltzaile bat ailegatu zen, oihuka.

— Saltxitxa beroak! Hoztu baino lehen hartu!

— Ekartzu bat hona!

Pohorakek saltxitxa pare bat hartu eta irentsi egin zituen. Bitartean, saltzailea ondoko postuetan eskaintzera joan zen. Gero barazki-saltzailearen postura itzuli eta esan zion:

— Aittona, hiru krejcar saltxitxengatik.

— Zer saltxitxa?

Ondoko saltzailea, emakume bat, tartean sartu zen:

— Arestian jan dituzunak.

— Nik saltxitxa bakarra jan dut! Erotuak zaudete denak!

Eztabaida piztu zen. Pohorak asma ahala guztiak esaten hasi zen. Saltzaileak, kakoa airean astinduz, poliziari deitu zion. Poliziak, gertatzen zena jakindakoan, barazki-saltzaileari galdetu zion:

— Bi saltxitxa jan dituzu?

Pohorakek begiak zorroztu eta erantzun zuen:

— Bai, jauna.

— Orduan, ordaindu oraintxe!

— Bai horixe! Erabat ahantzia nuen, kabo jauna. Badakizu... adina, zaharra naiz. Ez naiz lehengoa.

Haiek irriak ondoko postuetakoak! Pohorak berriz jarri zen, erretxindurik, kexu: «Hau burua nirea! Hau burua!». Ondoren bere botilatxoak hustu eta berriz pipa piztu zuen.

Eguzkiak gupidarik gabe berotzen zuen. Pohorak ez-ongi zegoen. Zakurrari begiratu zion, gurdiaren itzalean lo baitzegoen; nagiki altxatu zen, oilaskoak eta usakumeak olana batekin estali eta zakurraren ondoan etzan zen...

Denak joanak ziren erositakoarekin, baita eguneroko azken bezeroa ere, «andre main-

gua». Saskiak eta postuak desagertzen zihozen eta feriako saltzaileek kaxak zeramatzen, arrautzekin eta gainerako salgaiekin. Poliziak itzuli osoa eman zion azokari eta oihu egin zuen: «bukatu lehenbailehen, denak!».

Pohoraken gurdiaren aurretik pasatzean gelditu egin zen. «Agudo, bildu dena. Norena da gurdi hau?», esan zuen, gurdiari bultza eginez. Azpitik kexu-marmar bat atera zen. Poliziak hantxe ikusi zuen Pohorak, lozorroan lastoaren gainean, kapelua buruaren azpian zuela burkotako. «Pohorak, altxa!», eta zango batetik tiratu zion.

Zakurrak salto egin zuen, hainbesteko indarrak tiratuz gurditik, ezen gurgilak Pohoraki eskua zapaldu baitzion. Pohorak, halaz guztiz, ez zen iratzarri. Poliziak irri egin zuen.

— Botaiozu balde bat ur —esan zion azoka txukuntzen hasiak ziren kale-garbitzaileetako bati.

Eta... braust, balde erdi bat urek burua zipatu zion agure gixajoari.

Pohorak ikaraturik esnatu zen, eta ondoren eseri eta begiak igurtzi zituen.

— Jaiki zaitez!

Pohorak ederki kostata zutitu zen.

— Ez dakit zer dudan; ez nago ongi. Zaharra naiz asto lanean aritzeko.

— Ongi da, lasai. Zatoz nirekin, zahar gixajo hori. Lo pixka bat egiteko toki bat emanen dizugu.

— Konforme, nahi duzun bezala.

Eta Pohorakek bere gurdiaren pertikari heldu eta poliziak eraman zuen tokira joan zen, bihotza tristurak harturik.

Bitartean, Rumpaldarren etxeko ganbaran, batzarrean ginen; batzar latza. Elkarri betirako leialtasun-zina egin genion. Jan Zizka Trocnovekoaren txostena: «Pohorak ikusi dut; han nintzen ni, orain hemen nagoen bezalaxe; gogotik lagunduko nion, baina ezin izan dut deus egin». Nikolas Hussekoa izan zen bilera huts egin zuen bakarra, ordurako Rakovnikeko basoetara bidean baitzen.

Arratsaldeko seiak aldean bukatu ziren gure herio-ikarak. Ordu hartan Pohorak ailegatu zen, neke handiz, bere gurditxoarekin maldan goiti, bere herrira bidean, eta Rumpalen denda aurrean gelditu zen. Prokop Handiak, kristalezko

ateen atzean gorderik, dendan esaten ari zirena aditu zuen, larriturik, bihotza pilpiraka.

— Gaizkitu naiz —zioen Pohorakek—. Komisariara eraman behar izan naute, eta han lo pixka bat egin dut. Gaua *siroky Dvuren* pasatu behar dut. Gaur azokan ez zegoen deus saltzeko modurik. Espero dezagun bihar hobeki egotea!

Handik egun batzuetara, hiriko zoko batean, iturri baten ondoan, pistola bat aurkitu zuten, berri-berria. Inork ez zekien nola agertu zen han eta oso esamesa bitxiak zabaldu ziren.

Handik lau astera Prokop Handia Pohorakengana hurbildu zen, azokatik bere gurdi hutsarekin ateratzen ari zenean, eta galdetu zion:

— Pohorak, zer egin zenuen sei florin haiekin?

Pohorakek geldialdia egin zuen:

— Zer sei florin?

— Gizona! Bolbora pixka bat erosteko eman nizkizunak.

— Zuk niri sei florin eman? Pepik, Pepik, ez zenioke adarra jo behar honelako agure gizajo bati! Zaharrei adarra jotzea bekatua da, ongi

dakizu —esan zuen behatz erakuslearekin muti-ko gaixoari mehatxu eginez.

Gero berriz bere bideari lotu zitzaion, lasai.

Aurten Arimen Egunean idatzia

Ez dakit oraindik beste zenbat aldiz etorriko den Arimen Egunarekin *Kosireko* hilerrira. Gaur behinik behin ederki kostata etorri da —ematen du dagoeneko zangoek huts egiten diotela—. Gainerakoan, dena aurreko urteetan bezalaxe egin du. Hamaikak aldean bere gorputz lodi sekulakoa kotxetik jaitsi du; atzetik kotxe-gidariak lore-koroa bat atera du, zapi zuri batean bildua, eta azkena bost bat urteko neskato bat jaitsi da, arropa asko jantzia hura ere. Hamabosgarren urtea du bost urteko neskato batek laguntzen diola. Mary andereñoak berri bat bilatzen du urtero bere auzokoen artean.

— Ongi da, polita! Begiratu zenbat jende dagoen hemen... Ikusten duzu? Eta zenbat argi eta kandela, eta zenbat lore! Segi aurrera, ez izan beldurrik. Segi, segi! Ni zure atzetik joanen naiz.

Neska, aztoraturik, ibiltzen hasi da. Mary andereñoak jarraitzen zion, aurrera egiteko esanez, baina norantz joan behar zuen ere esan gabe. Horrela ibili dira tarte batean, harik eta, tupustean, Mary andereñoak esan dion arte: «Zaude pixka batean!». Burdinazko gurutzeetako batetik lore-korua zimeldua kendu du, hai-zeak eta euriak hondatua, eta haren ordeztan korua berri bat paratu du, lore artifizial gorri eta zuriz egina. Orduan, libre zuen eskua gurutzearen beso batean jarri eta otoitzean hasi da —zutik, belaunikatzea neke handiegia izanen baitzen—. Hasieran, begiratua soropilean eta hilobiko lur beltzean finkatu du, baina, ondotik, burua jaso eta aurpegi zabal goxoa edertzen dioten begi handi urdinak, begirada garbikoak, urrutira luzatu ditu, zerbait ikusi balute bezala. Pixkana-pixkana begiak malkoz bete zaizkio; ahoa dardarka hasi; ezpainak, otoitz-marmarrean, uzkurtu, eta azkenik malko-erreka bat isuri zaio matrailetan beheiti. Neskatoak harriturik begiratzen zion, baina andereñoak ez zuen deus ikusten, ezta aditzen ere. Handik puska batera, halere, bere baitara etorri da, ederki kostata, itxuraz bede-

ren; hasperen luzea egin, oinaze-aurpegiaz neskatoari irribarre, eta ahots apal eta erlatsaz esan dio: «Tira! Segi, nire aingerutxo, segi! Zoaz nahi duzun tokira; ni zure atzetik joanen naiz».

Paseoan segitu dute puxka batean batera eta bestera, neskatoari gogoak ematen zion lekura, harik eta bat-batean andereñoak berriz esan dion arte: «Zaude!». Eta beste hilobi batera hurbildu da. Haren aurrean eszena berdina gertatu da; uste dut ez dela han egon bestean baino minutu bat gehiago ere. Gero zapian bigarren lore-koroa zimeldua sartu du, lehenbizikoarekin batera, neskatoari eskutik heldu eta esan dio: «Hotzak zaude, ezta? Tira, goazen, bestela hoztuko zara. Kotxean eseri eta etxera joanen gara. Gustatzen zaizu kotxean ibiltzea, ezta?». Patxadan kotxera itzuli dira; lehenbizi koroak barreanean paratu dituzte; gero neskatoa eseri da eta ondoren, ederki koskata, andereñoa. Kotxea abiatu da, eta zaldiak bizpahiru zigorkada hartu ditu trostan hasi aurretik. Eszena hori, orain berriz egina, berdin-berdina izan da urtero, hala-ko egunean.

Oraindik nobelagile inozo hasi berriabanintz, seguruena hemen hauxe idatziko nuke: «Irakurleak hilobiak norenak diren galdetuko dio bere buruari». Baina nik badakit irakurleak ez duela sekulan deus ere galdetzen. Nobelagileak obra bere horretan onartzera behartu behar du irakurlea, kontu erraza ez bada ere. Mary andereñoa oso isila zen, itxia bere bizitzako gertakariei buruzko guztian, eta ez zuen bere kontuekin inoiz nekatzen inor, ezta adiskide minenak ere. Txikitatik zuen —orain ere badu— adiskide bat bakarra, Luiza andereñoa, garai batean pollit samarra, karabineroen sarjentu Nocar jauna zenaren alargun aski tximeldua gaur egun. Gaur arraltsaldean berriz elkartuko dira biak Nocar andrearen etxean. Hori ez da maiz gertatzen, Mary gutxitan joaten baita Vlaska kaleko bere adiskidea ikustera; Mary bakanetan ateratzen da bere gelatik, San Joan muinoaren oinean dagoen etxe bateko beheko bizitzan; ia-ia esan liteke meza entzuteko baizik ez dela ateratzen, igandeetan goizean goiz, San Nikolas elizara. Sekulako gorputz larria baitu, nekez ibiltzen da. Horregatik, Luizak ez du inkomodatu nahi izaten eta

egunero bera joaten zaio bisitan. Aspaldi-aspaldiko adiskidetasun zintzoak bat egin ditu kasik.

Gaur, hala ere, Mary andereñoa sobera atsekabeturik egonen zen bakarrik bere etxean. Are hutsagoa irudituko zitzaion, beste egun batzuetan baino bakartiagoa, eta horregatik bere adiskidearen etxeak ematen dion babesa bilatu du. Nocar andrearentzat halako eguna festa da. Kafea ez du inoiz prestatzen gaur bezainbesteko arretarekin; ez da inoiz hainbeste kezkatzen pastelak goxoak eta ongi harrotuak atera daitezzen. Eta gaur bere hizketaldi osoak ere badu punpezi eta jai kutsua. Bietako inork ez du asko hitz egiten, baina esaten dutena, gai arruntak izanik ere, oso esan nahi sakonekoa da. Halako egunean noizbehinka malkoak ere izaten dira eta besarkadak gehiago beste egun batzuetan baino.

Azkenean, denbora luzean elkarren ondoan egon eta gero, urteroko hizketagaiaren muinera ailegatu dira.

— Zer egingen diogu? —esan du Nocar andreak—. Jaunak ia patu berdina eman digu. Nik senar ona izan nuen, arrunt ongi tratatzen

ninduena, eta ez kondurik bi urte eman ondoren beste mundura joan zitzaidan, eta bizitza alaitzeko ume bat ere ez zidan utzi. Harrezkeroztik bakarrik bizi naiz ni ere, eta ez dakit zer den makurragoa: behin ere gizonik ez ezagutzea edo bat ezagutu eta galtzea.

— Zuk badakizu nik beti onartu dudala Jainkoaren borondatea —erantzun du gero, handikiro, Mary andereñoak—. Nik aldeztu aurretik izan nuen nire patuaren berri; amets egin nuen. Amets egin nuen, hogeitun urte nituela, dantzaldi batean nintzela. Badakizu nire denbora guztian ez naizela joan behin ere dantzaldi batera. Musikaren soinuan paseoan genbiltzan bikote guztiak, zoragarri argitutako toki batean. Baina —gauza bitxia!— dantza-aretoak etxe-ganbara zabal bat ematen zuen, sabai gisa teilatua zuena. Halako batean, aurretik genituen bikoteak eskaileretatik jaisten hasi ziren; ni azkena nindoan nire dantza-lagunarekin, baina ez naiz oroitzen nolatsuko aurpegia zuen. Bikote gutxi gelditu ginen goian; une hartan nire ingurura begiratu nuen eta gure atzetik Herioa heldu zela ikusi nuen. Belusezko longain berde bat jantzita

zihoan; kapelan luma zuri bat zuen eta ezpata zeraman. Ni ere jaistekotan nintzen, baina beste guztiak desagerturik zeuden... baita nire dantza-laguna ere! Bat-batean Herioak eskutik hartu eta kanpora aterarazi ninduen. Ondoren denbora luzean jauregi batean bizi izan nintzen, eta Herioak senarrarena egiten zuen. Gizalege handiz tratatzen ninduen; maite ninduen, baina nik bera ez nuen gogoko. Gure inguruan sekulako handimandikeria zegoen: dena kristala, urrea eta belusa; ordea, nik ez nuen batere gozatzen. Beti goibel nengoen, mundura itzultzeko irrikitan, eta gure morroiak —hura ere heriotza suerte bat zen—, munduan zer gertatzen zen kontatzen zidan. Nire senarrari pena eman zion nire bizitzara itzuli nahi bizi horrek; nabaritu nion, eta aldi berean nire senarrak pena eman zidan. Orduz geroztik jakin nuen ez nintzela sekula ezkonduko eta Herioa zela nire senargaia. Eta zuk badakizu, Luiza, ametsak Jainkoaren eskutik etortzen direla. Ez al da egia heriotza bikoitz batek bereizi zuela nire bizitza besteen bizitzatik?

Eta Nocar andreak, orduan, negar egin du, nahiz eta amets hori hamaika aldiz aditu duen. Andereñoaren arima minberatuarentzat baltsamo lurrintsu bat bezalakoa da bere adiskidearen negarra.

Eta, egia esanda, harrigarri samarra da andereñoa sekula ezkondu ez izana. Umezurtz zen, diru kontutan inoren menpekoa ez, eta San Joan muinoaren oinean zen bi bizitzako etxe pollit baten jabea. Itsusia ere ez zen; gaurko egunean ere ezagun du hori. Emakume gutxi ziren hura bezain lirain eta garaiak; begi polit-politak zituen; aurpegia zabal antxa, baina hagitx hazpegi neurrizko eta atseginekoa. Txikitatik, gauza bakar batek itsusten zuen pixka bat: emakume puska galanta izatea, *Mary Gizen* goitizena ekarri ziona. Gizentasunaren ondorioz, betidanik izan zen gutxi mugitu zalea; txikitan beste haurrekin ere ez zen jostatzen; emakumetu zenean ere ez zen inorekin biltzen, eta eguneroko ateraldi bakarra harresietan barnako ibilaldi llabur bat izaten zuen. Ez zitekeen esan Mala Stranako bizi-lagunak inoiz kezkatu zirenik Mary andereñoa inoiz ezkondu ez izanaz. Mala Stranan jende guz-

tiari bere marka eransten zaio; Mary andereñoa neskazahartzat hartzen zuten guztiek eta inori ez zitzaion bururatzen bestela izan zitekeenik ere. Eta emakumeren batek, deskuiduan, emakumeek hain ohikoa duten jakin-minez, Mary bertan zela kontu hori aipatzen bazuen, andereñoak orduan irribarre lasaiaz honela erantzuten zuen: «Nik uste ezkongai izanik ere, berdin zerbitzatzen ahal dudala Jainkoa, ez da hala?». Eta norbaitek kontu bera aipatzen bazion Nocar andreari, honek, orduan, bere sorbalda txorrotxak goititu eta erantzuten zion: «Berak ez du nahi izan, ordea! Ezkontzeko aukera bat baino gehiago izan ditu, eta ez edozeinekin; egia santua da hori. Nahi izatera... Nik badakit bi gizoni —biak oso gizon onak ziren— ezetz esan ziela».

Baina Mala Stranan jaiotako semea naizen honek ongi dakit biak parrandazale amorratuak zirela eta ez zutela piperrik ere balio, ez baitira Cibulka merkataria eta Rechner grabatzailea baizik; bi horien izenak aipatzen ziren toki guztietan beti hauxe esaten zen: «A zer pare!».

Horrekin ez dut esan nahi gaiztoak zirenik —hori bakarrik falta genuen!—, baina bai ez zirela

harentzat egokiak: arau gabeko bizimodua zuten, baldresa, fundamenturik eta zentzurik gabea. Rechner ez zen sekula lanean hasten osteguna baino lehenago, eta larunbat arratsalderako utzia izaten zuen berriz lantegia. Hermann jaunak —bere herrikidea, nire ama bezala— ziurtatzen zuenez, diru asko irabazten ahal zuen, trebea baitzen oso; baina muzin egiten zion lanari. Cibulka merkatariak ardandegian denbora gehiago pasatzen zuen bere dendan baino, salmahaiaren atzean jartzen zen aldiro izugarri logaletu eta purrustada bota besterik ez baitzuen egiten. Frantsesez ongi omen zekien, baina ez zen negozioaz arduratzen eta bere menpekoak beti gogoak ematen ziona egiten zuen.

Gehienetan elkarrekin egoten ziren Cibulka eta Rechner, eta noizbait biotako bati gogoan pentsamendu zintzoren bat pizten bazitzaion, kontu segurua zen besteak berehala itzaliko ziola. Egia da, bestetik, zaila zela aurkitzen zurruterako eta denbora pasatzeko lagun hobetik. Irribarre xume batek gurutzatzen zuen beti Rechner txikiaren kokots zorrotzeko aurpegi

bizar-egina, eguzki-errainuak hodeien artetik bazterrak argitzeko pasatzen direnean bezala; bere kopeta altua, ilea atzealdera orrazturik, lasaitasun ispilua zen eta bere ezpain zurbilen inguruan ez zen behin ere irribarrerik faltatzen. Gorputza, traje hori batez jantzia —hori zuen kolore gustukoena—, etengabean mugitzen zuen eta uneoro bizkarrak uzkuratzen zituen.

Bere adiskide Cibulkak, beti beltzez jantzia, askoz itxura lasaiagoa izaten zuen, ongi ezagutzen ez zuenarentzat bederen. Rechner bezain mehea zen, baina altuxeagoa. Buru txikia zuen, baita kopeta ere, baxua eta estua. Bekain iletsuen azpian txinparten pareko begi distiratsuak zituen; ilea, beltza, aurreraka orraztua izaten zuen eta lokiak estaltzen zizkion, eta bibote beltz batek, luze-luzea, ezpainak ezkututzen; Cibulkak irri egiten zuenean elurra bezain hortz zuriak erakusten zituen. Aurpegian jende basaren itxura pixka bat zuen, baina baita, aldi berean, bihotz onekoarena ere. Cibulkak ia-ia lehertzeraino eusten zion irriari, eta orduan irri-algaraka hasten zen; halere, gero segituan lasaitzen zen. Bi lagunek begiratu bakar batekin ulertzen zio-

ten batak besteari eta hari esker bazekiten elkarri esan nahi zioten guztia, xehetasun eta guzti. Oso gutxitan jartzen zen beste norbait beren mahai aurrean, beren burutazioak, auzoko jende xalo harentzat, sobera arinak zirelako, sobera basak; jendeak ez zituen ulertzen eta uste zuen solasean etengabe maldizio batean aritzen zirela. Cibulkak eta Rechnerrek, bestetik, ez zuten bilatzen Mala Stranako jende zentzudunarekin elkartzea. Gauaz nahiago zituzten, askoz ere, Stare Mestoko ostatuak. Elkarrekin ibiltzen zituzten hiriko bazterrak, eta astean hirutan Frantisek auzo urruneraino ere joaten ziren beren ibilaldietan. Gaueko ordu txikietan Mala Stranako kaleetan parranda-irriren bat aditzen baldin bazen, seguru egon zintezkeen Cibulka eta Rechner zirela, etxera bidean zihoazela.

Adin beretsukoak ziren biak, Mary andereñoaren adina. Garai batean elkarrekin ibiliak ziren San Nikolas parrokiako eskolan, baina harrezkerotik haiek apenas izan zuten Maryren berririk, ezta Maryk ere haienik. Kanean ikusten zuten elkar, beste inon ez, eta hiruren artean diosal

axaleko bat besterik ez zen izaten, buru-keinu bat gehienez.

Halako batean, halere, Mary andereñoak gutun bat jaso zuen, eskura emana, kontu handiz eta ia kaligrafikoki idatzia. Irakurri zuenean eskuak dardar batean jarri zitzaizkion eta gutuna lurrera erori zen. Honela zioen:

«Ene andereño agurgarria:

Seguru aski harrigarria eginen zaizu zure zerbitzari naizen honek zuri idaztea, nork eta nik idaztea. Baina areago harrituko zaitu gutun honen edukiak. Ez naiz behin ere atrebitu zuregana hurbiltzera, baina zertarako ibili itzulingeruka? Maite zaitut! Aspalditik maite zaitut. Nire bihotza aztertu dut eta sinetsia nago niretzako zorionik nonbait baldin bada, zorion hori zure ondoan baizik ezin dudala aurkitu.

Mary andereñoa! Beharbada harri eta zur gelditu eta arbuiatu eginen nauzu. Beharbada zure begien aurrean ere marmarrek ospea zikindu didate eta mespretxua besterik ez duzu izanzen niretzat. Gauza bakar bat eskatzen dizut: erabaki baino lehenago denbora pixka bat har-

tzeko, dena ongi pentsatzeko hitz erabakigarria esan aurretik. Esan dezakedan bakarra da buruan zu zorientsu egitea besterik izanen ez nukeen senarra izanen nintzatekeela zuretzat.

Berriz ere erregutzen dizut: ongi pentsatu. Hemendik lau astera zure erabakiaren berri jakin nahi nuke, ez lehenago, ez geroago.

Besterik gabe, barkatu inkomodatzeagatik.

Zure berrien esperoan, irrika biziz.

Zure esanetara.

VILEN CIBULKA».

Mary andereñoak arrunt nahasia zuen burua. Hogeita hamar bat urte zituen eta, halako batean, bere lehenbiziko amodio-aitormenaren aurrean zegoen. Lehenbiziko aitormen benetakoak! Berez ez zuen sekula maitasunean pentsatuko eta, egia esanda, ordura arte inork ez zion maitasun-konturik aipatu. Burua eztanda egiteko zorian zuen; lokietan zainen taupadak sumatzen zituen; arnasa falta. Ez zen soseguz pentsatzeko gauza. Bere begiak lausotzen zituen lainoan zehar, tarteka, irudi bakar bat ikusten zuen: Cibulkaren aurpegi malenkoniatsua.

Hondarrean, lurretik gutuna hartu eta berriz irakurri zuen, dardar batean uneoro. «Zer gutunaren polita!... Zer samurra!».

Ezin izan zuen agoantatu: gutuna bere adiskideari erakutsi behar zion, Nocarren alarguna jadanik ordurako. Eskuan utzi zion, hitzik esan gabe:

— Ongi, ongi! —esan zuen azkenean Nocar andreak. Aurpegian harri eta zur egina zegoela ezagun zuen—. Eta zer egin gogo duzu?

— Ez dakit, Luiza.

— Lasai, denbora asko duzu pentsatzeko... Barkatu hau esatea, baina badakizu gizonak nolakoak izaten diren: askok dirua besterik ez dute bilatzen. Baina, azken batean, zergatik ez dugu sinetsi behar zutaz maitemindua dagoela? Badakizu zer egin behar dudan? Den-dena xuxen ikasi.

Mary andereñoa isilik zegoen.

— Begira, Cibulka oso itxura oneko gizona da: begiak ikatza bezain beltzak, bibotea ere beltza, eta hortzak elurra bezain zuriak. Bi hitzetan esanda, gizaseme ederra da.

Eta Nocar andrea bere lagunarengana makurtu zen, isilik baitzegoen, eta gartsuki besarkatu zuen.

Mary andereñoa piper gorria bezain gorri jarri zen. Baina juxtu handik astebetera Mary andereñoak beste gutun bat aurkitu zuen elizatik bueltan. Eta irakurri egin zuen, gero eta harridura handiagoaz:

«Andereño maite hori:

Ez gaizki hartu zuri idaztera atrebitzea. Kontua hauxe da: ezkontzeko asmotan nago eta nire etxerako etxekoandre jator bat behar dut, baina ez dut inor ezagutzen nire eginbeharrek ez dida-telako dibertsiorako astirik uzten. Zu behar dudan emaztea izan zintezkeelako uste bete-betea dut. Ez gaizki hartu esaten badizut gizon zintzoa naizela eta ez zinatekeela erabakiaz damutuko: bizitzeko adina badaukat eta gogor egiten dut lan eta, Jainkoa lagun, ez litzaiguke deus faltako. Hogeita hamaika urte ditut, zuk ni ezagutzen nauzu eta nik zu ere bai; badakit diruduna zarela, baina hori ez da txarra, hobe horrela, ongi dago. Zinetan esaten dizut nire etxea ez

*daitekeela luzaro egon etxekoandrerik gabe eta ez nezakeela gehiegi itxoin. Horregatik eskatzen dizut, mesedez, beranduenez gaur hamabost erantzutea, ezetz esanez gero beste norbaitengana jo beharko nukeelako. Ni ez naiz erromantikoa eta ez dakit hitz politik esaten, baina bada-
kit estimazioa erakusten. Hemen naiz, bada; hemendik bi astera arte.*

Begirunez, zure zerbitzari leial

JAN RECHNER, *grabatzailea*».

— Tolesik gabe idazten du, gizon xaloen gisan —esan zuen egun hartako arratsaldean Nocar andreak—. Orain, aukeratzea da kontua. Zer egingen duzu?

— Zer egingen dut? —esan zuen Maryk ere ametsetan bezala.

— Bietatik zein gustatzen zaizu gehiago? Esan, benetan, nor nahiago duzu?

— Vilen —erantzun zuen ahots apalean, gorri-gorri eginda, Mary andereñoak.

Cibulka jauna «Vilen» bihurtua bazen, Rech-
nerrek jai zeukan. Erabaki zuten, bada, Nocar
andreak, eskarmentu handiagokoa baitzen gizon

kontuetan, Rechnerrentzako gutunaren zirriborroa eginen zuela eta gero Maryk bere eskuz idatziko zuela.

Astebete ez zela, Mary andereñoa berriz bere adiskidearen etxera itzuli zen, beste gutun bat jaso zuelako. Pozez gainezka dagoenaren aurpegikera zuen. Gutunak honela zioen:

«Andereño maite hori:

Mesedez, ez gaizki hartu esan behar dizudana. Gauzak diren bezala dira eta nik ez dezaket deus egin. Lehenago jakin banu beste gizon batek eskatua zizula eskua eta gizon hori Cibulka nire adiskide ona zela, ez nuen aipatu ere eginen kontua. Baina berak ez zidan hitzik esan eta ez nekien deus. Dena esan diot eta nire borondatez baztertuko naiz, berak maite zaituelako. Espero dut, dena dela, zu nitaz ez trufatzea, bidezkoa ez litzateke-eta; nik oraindik beste nonbait aurkitzen ahal dut zorientasuna. Lastima da, baina horrek ez du inporta. Ez ahantzi zure zerbitzari leiala nauzula.

Begirunez.

JAN RECHNER, *grabatzailea*».

— Ederki —esan zuen Nocar andreak—. Bukatu dira zure kezka.

— Jainkoari eskerrak! —eta Mary andereñoa bere etxeko bakardadera itzuli zen, baina bakardadea inoiz baino goxoagoa zen. Pentsamenduak etorkizunean jarri zituen, eta behin eta berriz haiek zebilzkion buruan, hain ziren zoragarriak. Pentsamenduek gero eta errealagoak ziruditen eta denek, bat eginik, bere zoriontasun mugagabeko bizitzaren koadroa osatu zuten.

Biharamunean, halere, Nocar andereñoak Mary ez-ongi aurkitu zuen. Etzanda zegoen sofan, zurbil, eta begiak gorrituak zituen negararren negarraz.

Nocar andrea, izaturik, apenas izan zen gauza deus esateko. Mary negarrez hasi zen berriz, eta gero, hitzik esan gabe, mahai aldera seinalatu zuen. Beste gutun bat zegoen.

Nocar andreak gauza ikaragarriren bat susmatu zuen. Eta gutunak, egia esanda, afera latza zekarren:

«Ene andereño agurgarria:

Bistan da ez dagoela zoriontasunik niretzat. Ametsetik iratzarri naiz, kopeta sutan daukat, burua arrunt nahasia. Ez dut, alabaina, zapuztu-tako esperantzaz jositako bidean segitu nahi; ez dut nire lagun hoberenaren, nire lagun bakararren, bidean oztoporik jarri nahi. Lagun gaixoa; neroni bezain zorigaiztokoa!

Oraindik ez duzu erabakirik hartu, baina zer erabaki har zenezake? Ez ninteke zoriontsu bizi nire adiskidea lur jota ikusita. Bizitzaren gozamen guztien kopa eskainiko bazenit ere, ez nuke onartzen ahalko.

Erabakia dut: uko egiten diot guztiari.

Gauza bakar bat eskatzen dizut: ahantz nazazu eta, arren, ez nitaz trufatu.

Adeitasunez, zure zerbitzari leiala.

VILEN CIBULKA».

— A zer grazia! —esan zuen oihuka Nocar andreak. Gero irri-ajajaka hasi zen.

Mary andereñoak zorrotz begiratu zion, oso kezkatu-rik.

— Jakina! —Nocar andrea pentsakor jarri zen—. Hagitz jende xaloa dira; begibistan da

biak gizon xaloak direla. Zuk ez dituzu ezagutzen gizonak, Mary maitea! Xalotasun horrek ez du irauten; bat-batean gizonak xalotasun hori bazter utzi eta beren buruaz baizik ez dira arduratzen. Lasai, Mary; erabakiko dute! Rechnerrek gizon praktikoa ematen du, baina Cibulka..., ezagun du zutaz txoratu dagoela! Cibulka etorriko da, duda-izpirik ez izan!

Mary andereñoari, berehala, ameslari-begirada jarri zitzaion. Adiskidearen hitzak sinetsi zituen, eta Luizak bere hitzen egia santua sinetsi zuen. Bi arima xalo ziren, lañoak; ez zitzaion deusen susmorik piztu. Pentsatu hutsarekin gustu txarreko broma bat izan zitekeela, ikaragarri gustu txarrekoa, izu-laborriak hartuko zituen seguruena.

— Lasai! Etorriko da; erabakiko du noizbait ere! —kontsolatu zuen beste behin Nocar andreak, agur esatean.

Eta Mary andereñoa esperoan egon zen, eta itzuli egin zitzaizkion lehengo pentsamenduak. Egia da ez ziotela egin lehenago bezalako zirra-zoragarria; aitzitik, elegiazko zerbait zegoen berarengan, baina andereñoari iruditzen zitzaion

pentsamendu horiek tristeak izanagatik, horre-
xegatik kuttunagoak egiten zitzaizkiola.

Mary andereñoa esperoan eta esperoan... eta hilabeteak joan ziren bata bestearen ondotik. Noizean behin, harresietan barnako ohiko paseoa egitean, bere bi lagunak ikusten zituen, elkarrekin betiere. Bi gizon horiek batere inporta ez zitzaizkion garaian, Maryk seguru aski ez zien erreparatuko elkarrekin topo egite horiei, baina orain maiztasun susmagarriaz gertatzen zirela iruditu zitzaion. «Zuri segika dabilta, ikusiko duzu!», esaten zion Nocar andreak. Hasieran Mary andereñoak begirada beheratzen zuen haiekin topatzean. Geroago, begiratzera ausartu zen. Bidea egiten zioten bien artean, biek ala biek ahalik adeitsuen agurtzen zuten, eta gero begirada apaltzen zuten, bat-batean tristetu balira bezala. Nabaritu ote zuten inoiz andereño-aren begi urdinetan idatzia zegoen galdemodu inozentea? Ziur nago, ordea, andereñoa ez zela behin ere ohartu haiek ezpainak hozkatzen zituztela irriz ez lehertzeko.

Urtebete igaro zen. Nocar andrea, bitarte horretan, oso berri bitxiak jakiten hasi zen eta,

lotsatu samarturik, Maryri eman zizkion: biak kaxkarin samarrak zirela, *gautxori* fama zutela eta ez zutela atarramendu onik izanen. Hori esaten zuen, bederen, mundu guztiak.

Mary andereñoak sekulako astinaldia jasaten zuen berri bakoitzaren ondoren. Baina bere errua al zen hori ere? Bere adiskideak ez zekien zer aholkatu, eta Mary andereñoari bere emakume-ahalkeak eragozten zion berez pausu erabakigarria ematea. Hala ere, isilik egonez gaizki jokatzeko ari zela iruditzen zitzaion.

Bigarren urtea pasatu zen, are ilunagoa. Orduan Rechner ehortsu zuten. Hetikak joa hil zen. Mary andereñoak tristura barne-muinetaraino sartua zuen. Rechner, gizon praktiko hura — Nocar andreak deitu ohi zion bezala— penak ahi-tua!

Nocar andreak hasperen luzea egin eta esaten zuen: «Orain dena erabakia duzu. Cibulkak denbora pixka bat pasatzen utzi eta etorriko da». Eta orduan Mary andereño dardaratia besarkatu eta musu ematen zion kopetan.

Cibulkak handik gutxira utzi zuen mundua. Lau hilabete geroago Rechnerri segitu zion hilo-

bira. Birikeriak eraman zuen. Hamasei urte dira orain biak *Kosireko* kanposantuan dautzala.

* * *

Munduko deusengatik ez luke erabakiko Mary andereñoak Arimen Egunean hilobi batera bestera baino lehenago hurbiltzea. Horregatik, bost urteko neska inozente batek erabakitzen du haren ordeztu: neska zein hilobitara hurbildu lehenbizi, hartan uzten du andereñoak lehenbizi-koroa.

Cibulkaren eta Rechnerren hilobiez gain, Maryk beste hilobi bat erosi zuen betikoz. Jendeak uste du Mary andereñoak deus inporta ez zaizkion hilobiak erosteko tema duela. Hirugarren hilobi hartan Majdalena Töpfer andrea zegoen ehortzirik. Egia da oso andre jakintsua zela eta hartaz gauza asko esaten dira. Vels jauna lurperatu zutenean, Töpfer andreak Hirt andrea, kandelagilearen andrea, ondoko hilobiaren gainetik pasatzen ikusi zuenean, segituan esan zuen kandelagileari haurra hila jaioko zitzaiola. Eta halaxe gertatu. Töpfer andreak, behin, bere

auzoko eskularrugilearen emazteari bisitan joan eta azenarioak garbitzen ari zela ikusi zuenean, ixtanteko esan zuen ume orinez betea izanen zuela. Eta Marina, eskularrugilearen alaba, ikaratzeko modukoa da, orinez josia dago eta adreiluak bezalako ile gorria du. Emakume jakintsua, bai, Töpfer andrea, baina...

Esan bezala, Mary andereñoari andre hura ez zitzaion batere axola. Baina Töpfer andrearen hilobitik tarte berdina dago Cibulkaren eta Rechnerren hilobietara. Nire irakurleen argitasunarentzat iraingarria litzateke azaltzea Mary andereñoak zergatik erosi zuen hilobi hura bere betiko atsedenerako.